

ZENBAKI HONETAN

Zilarrezko ezteien urte bonetan, agindu bezala, gure aldizkariaren promozio-ekinaldi bat antolatu berria dugu. Milaka hormakartel ta harpidetza txartel banaturik dugu jadanik bazterretan, lema honekin: JAKIN 25 urte euskal kulturari. Zergatik ez beste 25 gutxienez. Harpidedun egin zaitez. Fruituen zain gaude orain. Izango abal dugu nahi beste harpidedun berririk!

Zenbaki honi dagokion aurkezpena egitean goazen sailez sail, ohi dugunez.

Eskutan duzun zenbaki honen gai nagusia industri birmoldaketa da, arazo ezin gaurkoagoa eta gure herriaren etorkizunerako zein garrantzizkoa. Hiru ikuspuntu eskainiz antolatu dugu azken dossier hau. A. P. Callejak euskal ekonomiaren diagnostikoa egiten digu, krisia zertan den zehaztuz. X. Olaberri eta B. Bakarkoia krisiaren egoeraz eta etorkizunaz gehiago arduratu dira Hiru lanotan, dena den, badu irakurleak datu, azterketa eta goetarik frango gure gizartearen ezagutzapenean sakontzeko.

Orain eta Hemen sailean denetik aurki dezake irakurleak, kirolak, politika, hizkuntza, kultura, komunikabideak...

Gaiak saila luze eta bizi datorkigu. Aurtengo lehen hilabeteean bazterrak astindu dituen polemika sonatuen izan diren planteamendu eta auzi guztien azpian dagoen funtsezko arazoa aztertu nahi du Joxe Azurmendik artikulu honetan, hots, euskararen normalizazioa. Polemika honen bedaduraz eta nondik-norakoaz jabetu nahi duen irakurlearentzat aldizkariak, bere aldetik, bibliografía oso bat prestatu du.

Hainbat aburu sailean bere projektua agertzeko hitza eskatu digute Argia-koek, eta guk pozik eman.

Liburuak sailean atzera J. Kortazarek bere obizko lanari ekiten dio, J. Sarrionandiaren Izuen gordelekuetan barrena liburuaren azterketa burutuz oraingoan.



A. Perez Calleja
X. Olaberri
B. Bakaikoa

INDUSTRI BIRMOLDAKETA

Euskal krisia

Krisialdi historikoa. Krisiaren datuak. Euskal ekonomiaren mar-txa. Faktore negatiboak. Energia. Etorkizunaz gogoetak.

Industri krisia Euskadin

Egungo egoera. Krisiaren aurrean erresistentzia: planifikatu, ekonomia instituzionaldu, teknologi azpiegitura desarrolatu. Eraldaketa politikoak.

Euskal ekonomiaren egoera eta irteera ahalgarriak

Langileriaren egoera. Etorkizunari so. Langabeziaren aurkako ekonomi politika. Berrikuntza.

Euskal krisia

A. Perez Calleja

Euskadi *krisialdi historiko* batetan murgildua aurkitzen da, *bai ekonomikoki eta bai politikoki*. Ez da, ez, egoera berri bat; krisiak gauza ezaguna gertatu behar litzaizkiguke; bakarrik, herri baten memoria historikoa oso apala izan ohi da, eta ez da ehun urte baino haruntzago gogoratzen. Urte horietan gauzak —zenbait ikuspuntutatik begirata— oso ondo joan zaizkigu, edo oso aise behintzat. Alabaina, Herri honen funtsezko arazoak —behin eta berrizko arazoa, betikoa— berbera izaten jarraitzen du: Herri pobrea garez gero, lehengairik gabea, baliabide natural edo energetikorik gabea, kanpoan erosi behar dugu premiazko zaiguna, eta horrek, fakturak ordaindu ahal izateko, industri eskaintza desarroilatza behartzen gaitu; eginkizun neketsua eta zaila benetan, eta duela ehun urte arte zorion handirik eman ez diguna gainera.

Funtsezko bi fenomenok aldatu dute errotik euskal ekonomiaren etorkizuna eta beronen funtzionamendu-eremua. Alde batetik, krisi mundiala edo petrolioaren krisia. 1974az geroztik espainol

ekonomia ez da gauza izan gordinkien garestitzeak bere pagamendu-balantzari planteatu dizkion problemen aurrean erreaktionatzeko eta iraganeko hazkunde-maila ekonomikoak berreskuratzeke; haren hazkundeak lanak izango ditu benetako dermiontan %2tik gorako batezbesteko tasak gainditzen. Eta horrek esan nahi du, lotuta gaudela, eta etorkizunean oso gutxi haziko den merkatu baten menpean gainera; eta, jakina, logika hori ez dago batere ados elastikotasun-errenta handiagoko merkatu eta produktuetarantz jotzeko jokabidearekin. Ezin dugu segitu merkatu honetan kontzentratuta; dibertsifikatu egin behar dugu gure produktuen norabidea; azken batean, espainol merkatuaren menpean egungo neurrian jarraitzen dugun bitartean (gure kanpoko salmentan %75) *merkatuaren problema* funtsezko auzi bat bilakatuko zaigu berriro ere.

Beste aldetik, ez dugu kontutan izan ekonomi krisiaren azpian dagoen fenomenoa, hau da *industri krisia*, edo espezifikokiago esateko, enpresa-krisia. Alde batetik, energiaren eta lehen-gai askoren prezio berriek funtsezko aldaketak eragin dituzte eta seguraski atzeraezinak gainera eskari mundialean eta zenbait sektoreren etorkizunerako expektatibetan. Beste aldetik, funtsezko input batzuen prezio berriek eta benetako alokairuen gorakada ikusgarriak —zeren iragan hamarkadan *urteko %7ko batezbesteko akumulatiboan* hazi bait dira— eta finantz gastuenek, sakonki aldatu dituzte *gure produktu eta teknologia askoren konkurrentzialtasuna eta bideragarritasuna*.

Guzti horren ondorioz, eta gauek goizera, bai produkzio-prozesuen eta berdin produktuen beren *teknologi zaharkitzapen* oso grabe bat sortu da. Jadanik instalatuta dagoen produkzio-ahalmenaren parte on batek —moderno baina modernoagoa izanda ere— ez du ezertxotarako balio, edo sortutako produktuek eskerik aurkitzen ez dutelako, edo Hirugarren Munduko herriekin ezin konkurri dezaketelako, edota dagoeneko ez direlako errentagarriak egungo prezio eta kostuekin.

Enpresak gelditzearekin eta alokairu-indizeekin, gure ekonomiarentzat *ezinbesteko diren produktu eta sektoreen krisi* itzela probokatu da; egia esateko, industri kapitalaren eta honen ondoriozko teknologien %50tik 75erako bat denboraz aurretik zaharkituta geratu da. Euskadik 60etako hamarkadaren honda-

rretan halako industri aparatu moderno bat bazuen ere, aparatu horretxekin berarekin sartzen da 80etako hamarkadan, hau da, ez da gauza izan ez aldatzeko eta ez adaptatzeko eta, beraz, nabarmenki desegokia gertatzen da bienbitartean errotik aldatu diren merkatu batzuetan konkurrizkeko.

Guzti horrek zeraz jabetzera garamatza, alegia ez garela aurkitzen —29ko krisian bezala— eskari-faltazko egoera tipiko baten aurrean, aitzitik baizik *industri eskaintza* gainbeheratu eta zaharkitu baten aurrean gaudela, langileak, enpresariak, akzionistak, Administrazioa, bankuak eta hornitzaileak denak herio-tranpantan harrapatuz, eta subsidio, subentzio, kreditu merke eta abarrez kostata eutsitako *klase pasibo* berezi baten partaide izatera pasa nahi duela.

Nola nahi dela ere, eta petrolioaren krisirik ez balitz eman ere, Euskadi problema larri baten aurrean aurkitzen zen: nola utzi espainol merkatuaren probintzia bat izatetik eta bere sistema nazioartekotu, munduko merkatura irekiz. Hain garrantziko da aldaketa, ze gure industri ehunaren erabateko berrikustapena suposatzen bait du, eta, horren ondorioz, urte gorri baino gorriagoak pasa beharko ditugula, hobereanean ere.

Horretarako *gizarte-kontsentsuaz* harmatu beharko zatekeen —urte batzuetan behintzat zuhurtasun handiagoz jokatu beharko genukeen enpresen bizkarretara zama sozial handiagorik bota gabe (alokairuak, Seguritate Sozialaren kostuak, presio fiskala)— eta trantsizioko *industri politika* burutsu zuzenduz. Politika horrek, azken berrogei urteotan gidatu gaituzten *seinaleez* aparteko beste batzuez zuzendua egon beharko zukeen orain, *Administrazio propio* baten zuzendaritzapean eta pisuarekin ez bazen ere, behintzat bere laguntzarekin indartuz, zeren bera bait da etapa berri eta zail honetatik arrakastatsu irteteko interesik handiena duena.

Oraingoz, ordea, ez da horrelako deusik eman. Energi kriak beste galdekizun bat eransten zion prozesuari. Nazioarteko merkataritzaren atzerakada ez da, ez, nazioarteko merkatuaren kota berriak irabaztea galdatzen digun politika baten laguntzarik hobereana. Horrek esan nahi zuen gerta zitekeela errakuntzak eta inefikazia askoz gutxiago toleratuak izatea eta, edozein modutan ere, *doitzeko aldia uste baino gehiago luzatuko litzatekeela*.

Baina izan ere, gainera, ez zen eman *trantsizio* honetarako aipatu ditugun ezinbesteko *baldintza* horietako bat bakarra ere; ez zen eman ezta *kontsentsu minimo* bat ere. Konkurrentzi posizio hobe batetarantz zuzentzeko bidetik urruti eta, gero eta gaitzago bilakatu zaio euskal enpresari superbibentzia bera; ez da eman zuzendaritzarik ere, hau da, zer jokatzen genuen adierazi eta jokorako lege minimo batzuk ezar ziezazkigukeen *botere* bat alegia.

Bestalde, aurreko denboraldiko itxurazko euforiak zailagotu baino ez zuen egin aurkitzen ginen egoeraren benetako izaera ulertzeko posibilitatea, eta enpresariak berek ere, konfidantza lelo xamar batek jota, atzeraldi kojuntural labur batekin nahasi zuten krisia. Ez zuten jakin izan oraindik 1975era arte enpresa gehienek zuten inertzia bikain hura behar ziren aldaketei hasiera emateko aprobetxatzen, eta alokairuen arloan amore ematen ihardun zuten, ez beren finantz egiturak eta ez beren konkurrentzi egoerak jasan ezin zitzaizketen kotetaraino iritsiz.

Trantsizio ekonomikoaren problematika guzti hau —berez ikaragarri *gatazkatsua* izaki— arindu ahal zatekeen, edo soluziobide hoberik idoro, baldin eta gure Herri honetan industri erlazio-marko egoki bat eman izan balitz. Berrogei urtetako libertate sindikalik eza, hipoteka astun baino astunagoa gertatu zaio eskierki. Eztabaidarako oinarri objetibo eta experimentatu batzuen falta, bere aldetik, gorren arteko elkarriketa bat bilakatu da langile-enpresarien arteko harremanetan, eta parte solaskide bakoitza apenas saiatzen den bestearen egoeran jartzen, edo behintzat ulertzen. Eta honela, helburu kontrajarriak —alokairuak eta errentagarritasuna; enpleguaren segurtasuna eta sektorearen birmoldapena— *elkarrenganatzten* lehiatzeko soluziobide bat izan zitekeena, alderdi biak galtzaile gertatzen direneko gatazka bihurtu da; ez alokairu eta ez errentagarritasun, ez enplegu eta ez birmoldapen.

Enpresari askok garai bateko denbora onen nostalgiari lotuak jarraitu dute —ordena eta disziplina zegoeneko garaiari, negoziatu eta konbentzitu beharrik ez zegoenekoari, merkatu bereziki eroso batek enpresariaren edozein erabaki azken onera eramaten zuen garaiari alegia—, egundaino berpiztuko ez den iragan batetara noiz itzuliko zain. Entzungor eta muzin egin diote

enpresari-logika batetik ere itzuriezinezko gertatzen zenari, hots, langileekin zabalkiro mintzatzeari, eta hauen problemak konpartitzeari, horietxan lankidetzaren beharra dutenez gero beren enpresak salbatzeko.

Sindikatuak, berriz, arduragabetasun gozoan iraun izan dute, eta «ogia gaurko eta gosea biharko» praktikatu; aurreko Erregimenak zeregin oro ukatzen zien enpresan eta ekonomi politikako crabakietan; eta egoera berria heldu denean haiek ez dute zeregin bat bakarrik ere bereganatu nahi izan. Beren borondatez —ez zutelako erantzukizunik nahi—, eta borondatez kontra ere bai —enpresariak eta Administralgoak utzi ez dietelako— hertsiki zeregin ekonomizista batetara jokatzera —alokairuak negoziatzera— baztertuak izan direnez gero, nahiago izan dute ez jakin alegia enpresen etorkizunak zuzenki afektatzen dituela eta hauen hondamenak, lehentxoago edo geroxeago, berena herrestatuko duela. Errudun txikiak izaki —izan ere ez enpresariak eta ez Gobernuak ez diete inoiz partehartzeko edo kontsultatuak izateko aukera garbirik eman, beste erremediorik ez zegoenean izan ezik—, berak izan dira zigor sozialik gogorrena pairatu dutenak: langabezia alegia. Eta beraiek izan dira, egungo perspektibatik begiratuta, alokairu-politika suizida bezala kontsideratu behar den jokabide horrekin, zigor horri su eman eta gero egurra bota diotenak. Baina ez dugu ahaztu behar enpresariak berek ere jarri dutela beren partetxoa suizidio kolektiko horretan, zeren askotan nahiago izan bait dute atzeraezinezko kontzesio ekonomikoak egin, ezen ez boterea eta erabakia konpartitu beharra onartu.

Guzti horren ondorioa, *krisiaren kontra burruka ezin egina da*. Gaur eguneko egoera bezalako batetan, zeren ez bait da ko-juntura, eta bai egoera zeharo berri batetaranzko trantsizioaldi luze bat irekitzen duena, *ezinbestekoa da lehenbailehen mugitzea eta errotik aldatzea*. Gizartearen korporatibizazioak *aldaketa-prozesu guztiaren geldieraztea suposatzen du*; beti izaten da galtzen ateratzen den norbait eta defenditu egiten da, nahiz eta ez aldatzearen ondorioa, bestalde, mundu guztiaren galera izan, baina mendebaldeko gizarteetan *mundu guztia eta inor ez berdin dira*. Ekonomi sistemak, eta bere egitura industrialaren konposizioak

partikularzki, apart zurrun jokatu izan du. Sektorearen birmoldapeneko plan guztiei berandu ekin izan zaie eta are beranduago burutu gainera —beti finantz neurri nekatsu baino nekatsuagoe-kin, baina beti bildurrez eta axaletik, hondoko arazoak konpon-zeke— eta orain arte lortu diren emaitzak urruti baino urrutia- go geratzen dira, baita sinboliko hutsak izatetik ere. «*Malguta- suna*», krisiari hortzak erakusteko ezinbesteko baldintza izan behar zukeena, bere ausentziaz gailendu izan da hemen.

Guzti horrek begien bistan jartzen digu benetan absurdoa dela inguruabar berriotan garai bateko industri politikari eutsi nahi izatea. Orain arte defenditu eta praktikan jarri izan dena, egungo ikuspuntutik, erabat zentzugabea ematen duen zer bait izan da. Estatuak errespetatzen zituen, teorian baina, inizatiba pribatua eta merkatu-ekonomia, baina ez du egundaino zalantza-rik izan inizatiba pribatu hori bortxatzeko eta merkatu hori enpresen errealitatean datuek zeharo aldatzen dituen arautegi- sare konplexu baten bidez hausteko. Bere jokaeraren oinarri-ko plataforma, kreditu-zirkuitu pribilegiatuak izan dira, xede kuantitatibo sail bat betetzeko baldintzarekin, baina beren bu- rutzapena, erantzukizuna eta mozkinak beti sektore pribatuaren eskuetan utziz. Ekintza kontzertatuak dira politika-mota honen adibide klasikoa. Estatuak enpresari izatera jokatzen du, izan gabe ordea, eta egin behar ez lukeena egiten du (dirua merkatutik kanpora ematen du, enpresa-konkurrentziako baldintzak eralda- tuz) eta ez dakiena ere bai (enpresen jomugak finkatu alegia). *T'ransferentzi* politika bat da azken finean, zeren gisa horretako politikaren funtsezko «argudioa» ez bait da merkatua, edo etor- kizuna, subentzio, exentzio fiskal, kreditu merke etab.en gisa liberalki erabilitako dirua baizik.

Hala eta guztiz ere, Administrazio espainolak oraindik irten- bide horretatik joaz jarraitzen du, bere finantz soluzio alfer eta kostu handikoekin —berregiturapen industrial, esate baterako, 570.000 milioi pezeta kostako dela esaten da—. Ustezko berregi- turapen industrialerako dekretu-legeak, *garai bateko ekintza kon- zertatuak egungotzeko eta egunean jartzeko bertsioetat* eman daitekeen sektore-politika sagaratzen du. Berriz ere erabiliko den argudioa finantz erregalia liberalak izango dira, berorietaz ba-

liatzen direnak ezer gutxitara konprometitzen dituztenak. Politika hori, *aldaketakoa ez baina sostengapenakoa da*, beste ezer baino gehiago, zeren ez bait da ematen barne-aldakuntzarik, ezta aurreko politikaren errakuntzak bistan baino bistanago dauden arloetan ere. Horrela, apenas aurrirakusten den produkzio-ahalmenaren edo gehiegizko enpleguaren murriztapena, ezta enpresa zaharkituak istea ere. Ez aipamen bat ere konkurrentzia hobetzeari buruz, kanpora ateratzeari, edo enpresa horien mantenu sano eta beraz *autonomo* batetarako aukera eman lezaketen beste inguruabarrei buruz ere. Beti bezala, kreditu-emateak eta kontzesio fiskalak, berauen xede bakarra urte guzti hauen ondoren seko hebaingiduta aurkitzen diren enpresen Balantzea eta Diruzaintza berrorekatzea dutelarik, batere kontutan hartzeke, luzarora, Ustiapen-Kontuak egiten duela erabakia ere.

Zalantzarik gabe zeinu *pasiboko* aintzinako politikaren aurpegi berri bat besterik ez da —baliabideak enpresen Pasiboetan injektatuz, barruko aldagai kualitatiboak —Aktiboaren produktibitatea— ezertarako mugitzeke—, hau da zerbait iraunkorra eta autonahikoa eraiki nahi izanez gero derrigorrez tratatu beharko litatekeen oinarritzko auzi haiei buruz behatz bat ere altxatzeko.

Sekulan amaierarik gabeko berregiturapen faltsu hauek jadanik frogatua dute egiazki tamalgarriak direla enpresentzat, zeren:

— Ez bait dute ezertxo ere aldatu krisian dauden enpresen baitan ondoko puntuotan:

- gestioaren kalitatean (zuzendaritzako ekipoa),
- errentagarritasunean (kostuetan, produktibitatean),
- konkurrentzialtasunerako ezinbesteko diren aldagaietan, adibidez:
 - * banaketan eta exportazioan,
 - * prozesuen automatizazioan,
 - * produktuen sortzapenean,
 - * teknologia berrietan,

ez dute ere birplanteatu berorien etorkizuna, zeren horretarako beharrezkoa bait zen:

- inbertsio-iniziatiba berrreskuratzea,

- jadanik atzeraezinezko moduan aldatua dagoen markoaren arabera, enpresaren ikuspen estrategiko bat planteatzea.
- Zeren, gainera, desegokiak izateaz aparte, berregiturapen-planak halakoxe deskalabroarekin gauzatzen dira, ze laguntzak
- berandu iristen bait dira: haustura sakonak gertatzen dira produkzio-prozesuan (lehengai-falta), galarak disparatu egiten dira;
 - ez dira nahikoak: laguntzen da ala ez da laguntzen: ezin egin daitekeena da ttantaka-ttantaka eman. Laguntzek, finantz planak beharrezko bezala definitzen dituen bezainbatekoak izan behar dute;
 - galerazi egiten dute gestio iraunkor eta metakor bat planifikatu eta aurrera eramatea.

Gisa horretako politika batek *menpekotasuna sortu* besterik ez du egiten, funtsezko arazoak egundaino konpondu gabe. Alderantziz, kanpoko laguntza, gestio-metodoetan, zuzendari-ekipoetan eta, azken batean, enpresen beren konkurrentzialtasunean aldaketarik egin beharra eliminatuz lasaitasuna sortzen duen ohi-tura bihurtu da. Horrela —premiakotasuna eliminatzean—, nahi zituenen kontrako emaitzak lortzen ditu eta laguntza kojunturalak iraunkor bilakatzen —nahiz eta expreski kontrakoa esaten den—, zeren ez bait da ematen enpresaren nazioarteko konkurrentziarako benetako egokitze bat. Guzti horrekin bildur ginateke dagoen produkzio-egituraren nahi-ta-nahiezko aldaketara moldatu beharra atzeratuz, ez ote den nahiko egitura hori fosilizatzeko joera behin betirako irmoki finkatzea.

Egia esateko, ihes egiten zaie berregiturapenezko ekintzei, onartu edo aurpegi eman nahi ez zaion errealitate artegarri baten itzuri *aurrerantz* joanez, zeren beldur bait zaie hartu beharko lirakeen erabaki ezatsegingarrien ondorioei, eta, nola enplegua murrizteko hala alokairuak moderatzeko, arazo laborekin topo egitera eramaten dutenei oso bereziki. Horregatik, lehen ere genioen bezala, politika hau, nolabait deitzeko, indartsuekin (Sndikatuekin) ahul den eta ahulekin (langabetuekin, esate

baterako, baliabideen zarrastelkeriaren kaltea zuzenki jasan dutenekin alegia) indartsu den Administrazio batek onartutako presioen suma besterik ez da. Sindikatuek —justiziazkoa ikusten dutelako edo gainezkatuak izateko beldurraren aurrean beste erremediorik ez daukatelako— *berehalako interes korporatiboen* defentsa asumitzen dute. Administrazioak zeharrralatu egiten dela ematen du eta, burubide industrialen arabera jokatu ordez, ordena publikoaren babesle bilakatzen da, bere benetako bozeramalea Barne-Ministraritza bailitzan.

Deskribatu dugun bezalako eskuhartze pasiboko politika batek ez du etorkizunik: merkatua izorratzen du, aldaketa biziko fase batetan gidari posible bakarra den garaietan, menpekotasuna sortzen du enpresariarengan eta enpresa-egiturak geldierazten ditu finantz kostu handi batekin.

Ikus dezakegunez, egoera berrira moldatzeak bazuen bere alde *ekonomikoa*: eskaintzaren egitura eskearen baldintza berrietara moldatzea hain zuzen; baina badago, eta funtsezkoa da hau onartzea, alde *politiko* bat ere, eta da, gizarte-talde desberdinen arteko akordio batetara iritsi behar dela, petrolioaren prezioen gorakadaren eta oraindik garrantzitsuagoak izan diren geroagoko ondorioen eraginez eratorri diren ondasunezko errentaren galarak banatzeko.

Krisiaren datuak

Dagoeneko espainol ekonomiaren krisiari eman erantzuna baldintzapetu zuten egiturazko eta ekonomi politikazko kondizionanteak explikatzen ditugunez gero, euskal ekonomiaren amilerara ongien deskriba dezaketenez datu objektiboak bakarrik jasoko ditugu. Eta zifren dantzaren aurrean, soberan gelditzen dira irazkin guztiak.

1. — Euskal ekonomiaren martxa, ematen genituen arrazoiengatik, espainol ekonomiarena baino askoz ere negatiboagoa ari da gertatzen, eta haren hazkunde-potentzialtasunaren galera, berriaz, oraindik ere handiagoa da, inbertsio-ihardueraren geldierazpenaren arabera.

BPG ETA INBERTSIOA

. %etan benetako aldaketa

	1976	1977	1978	1979	1980
BPG					
— Espainia	2,9	2,6	3,1	0,6	1,2
— Euskadi	3,4	1,8	1,3	0,8	—2,0
INBERTSIOA					
— Espainia	—2,0	—1,2	—3,2	—0,4	2,3
— Euskadi	—1,8	—2,5	—5,9	—4,5	—2,2

Iturria: Lankide Aurrezkiaren ekonomi txostena, INE.

2.— Eboluzio hau, aipatu ditugun faktore negatibo guztien eta euskal ekonomiari espezifiko zaizkion beste batzuen koinzidentziaren ondorio dira. Faktore espezifikoaren artean ondoko hauek aurkitzen dira:

- a) Gure ekonomiaren barruan industriak duen pisu erlatibo itzela.

SEKTORE EKONOMIKOEN PISUA

Sektorea	Euskadi	Katalunia	Madrid	Espainia
Industria	53,2	46,3	33,0	38,1
Zerbitzuak	41,5	50,1	66,3	53,0
Nekazaritza	5,2	3,6	0,7	8,9

Iturria: Bilboko Bankua.

- b) Mundu guztian krisian aurkitzen diren sektoreen presentzia garrantzitsua, *siderurgiarena* adibidez.

Inportazioa/Itxurazko kontsumoa eta Exportazioa/Produktzioa arteko Erlazioen eboluzio portzentualak, 1970-1979ko urtealdian, Espainian.

(m. Tm.-tan)

Urtea	Produktzioa	Exportazioa	% Export./ Produkt.	Itxuraz. kontsu.	Inportazioa	% Inport./ Itx. Kontsu.
1970	7.394	330	4,5	3.544	2.535	29,7
1971	8.025	1.186	14,8	7.862	1.158	14,7
1972	9.530	1.853	19,4	9.513	1.528	16,1
1973	10.808	2.204	20,4	10.943	1.943	13,4
1974	11.476	1.068	9,3	11.767	1.606	13,7
1975	11.091	2.054	18,5	10.010	2.367	23,6
1976	10.982	3.234	29,4	10.044	3.290	32,8
1977	11.168	3.519	31,5	10.122	1.451	14,3
1978	11.345	5.454	48,1	8.440	1.013	12,0
1979	12.254	5.567	45,4	7.989	1.380	17,3
1980	12.672	5.927	46,8	8.674	1.682	19,4

Iturria: UNESID, LKA.

- c) *Itsasuntzigintza*

EUSKADIKO ITSASUNTZIGINTZA

Urtea	Hasitako tonelaia	Uretaratutako tonelaia	Entregatutako tonelaia	Produktzioa 2+2b+c/4
1975	409	407	336	390
1976	280	280	275	279
1977	265	334	351	321
1978	124	189	247	187
1979	97	72	96	84
1980	171	—	90	—

Iturria: Construnaves, LKA.

d) Ekipamendu-ondasunak eta erreminta makina konkretuki.

ERREMINTA MAKINA ESPAINOL ESTATUAN

Mpta.

Kontzeptua	1975	1976	1977	1978	1979	1980
Produkzioa	16.828	15.756	18.125	20.100	23.800	25.300
Prezio konstantetako produkzioa	16.828	14.194	14.050	13.400	14.028	13.041
Barne-salmentak	11.768	9.762	10.340	8.786	9.653	8.933
Exportazioak	5.060	5.994	7.785	11.314	14.147	16.367
Exportazio-proporzioa	30,1	38,0	43,0	56,3	59,4	64,7
Inportazioak	9.787	8.758	6.939	6.905	6.130	7.399
Barne-kontsumoa	21.555	18.520	17.279	15.691	15.783	16.332
Exportazioaren batezbeste- ko prezioa (pta./kg.)	198	244	290	335	358	581
Inportazioaren batezbeste- ko prezioa (pta./kg.)	358	408	575	749	699	648

Iturria: AFMM.

e) Elektro-etxetresnak

ELEKTRO-ETXETRESNEN PRODUKZIOAREN EBOLUZIOA ESPAINIAN

m. unitatetan

Aparatua	1975	1976	1977	1978	1979	1980	% 80/79
Hozkailuak	1.185	1.080	1.245	1.204	1.144	1.227	+7,25
Ikuzgailuak (automatikoak)	816	954	1.167	1.184	1.044	967	-7,4
Baxera-ikuzgailuak	60	105	107	135	126	160	-15,9
Sukaldeak	732	813	887	925	912	708	-22,4
Labeak	37	45	99	149	160	116	-27,5
Gainekoak	67	96	153	234	288	246	-14,6
Berogailuak	571	851	890	807	797	738	-1,2
Termoak	248	243	221	198	230	—	—

Iturria: ANFEL.

Zerrenda heda liteke beste hainbat sektoretara ere, hala nola, papera, ekipamendu-ondasun elektriko handiak, altzairu bereziak, siderurgia ez-integrala, etab.

3. — Sektore guzti hauek, aldi berean, energi kontsumitzaile handiak dira eta, jakina, paradoxa bat ematen da horrela: ekonomi krisian gauden bitartean, gero eta kantitate handiagoak ari gara kontsumitzen guk ez ditugun eta etengabe garestitzen ari diren baliabideetatik, gure kanpoarekiko menpekotasuna eta konkurrentzia posible batetarako produkzio-zaharkitzapena dramatikoki handiagotuz. Petrolioaren lehenengo shock-a gertatu zenetik hainbeste urte pasa ondoren, ez dirudi ekonomi hazkunderen eta energi kontsumoaren arteko elastikotasun positiboa haustea lortu dugunik.

Bulneragarritasun honen ondorioz, atzerapen nabarmen bat seinalatzen dute indikatzaile guztiek, bai *kontsumoari* dagokionez,

KONTSUMOAREN EBOLUZIOA, 1980

. %ko gebikuntza 1979.ekoaren arabera

Kontzeptua	Euskadi		Espainia	
	1979	1980	1979	1980
Alokairuak	15,0	15,6	15,3	15,0
Aurrezkia	16,4	16,6	18,8	17,5
Ibilgailuen matrikulazioa	-12,4	-13,4	-5,1	-7,2
Gasolina-kontsumoa kotxeko	-4,4	-8,7	-2,4	-7,5
Hozkailu-salmenta	7,4	-4,0	0,6	-7,7
Erosten txosten salmenta	-6,7	-6,0	-6,0	-3,8

Iturria: Lankide Aurrezkiaren ekonomi txostena.

Datu esanguratsu bat: diru-bilketa fiskala Estatu espainol osorako 1980an zehar %21,6 gehitu zen bitartean, %10koa bakarrik izan zen Euskal Komunitate Autonomoan.

bai *industriari* oro har dagokionez,

INBERTSIOAREN INDIKATZAILEAK EUSKADIN

.aldaketak %etan, aurreko urtearen arabera

Kontzeptua	Euskadi		Espainia	
	1979	1980	1979	1980
Zementu-kontsumoa	-24,5	-18,0	-5,7	-5,0
Enplegua eraikuntzan	-10,5	-14,5	-6,3	-9,0
Eraikitako etxebizitzaren kopurua	-20,5	-8,5	-24,0	+2,5
Kamioien matrikulazioa	-9,7	-5,2	+2,1	-1,2
Kontratatutako indar berria	+2,2	+1,1	—	—
Kapital finkoaren moldaketa gordina	-4,5	-2,5	+0,8	+2,3

Iturria: Lankide Aurrezkiaren ekonomi txostena.

bai *inbertsioari* dagokionez,

INDUSTRIAREN EBOLUZIOAREN INDIKATZAILEAK, 1980

Kontzeptua	Euskadi	Estatu espainola
Industri enplegua	-1,7	-4,7
Altzairuaren kontsumoa	-5,0	-8,3
Ahalmenaren infrabaliakuntza	76/78	79/81
Industri elektrizitatearen kontsumoa	-3,2	+4,1
Industri Produktu Gordina	-2,5	-1,1

Iturria: Lankide Aurrezkiaren ekonomi txostena.

Guzti honen ondorioak, aldi bereko bi plano osagarri ditu. Alde batetik, enpresaren geldialdia eta gainbeherakada, bai *erregarritasunari* dagokionez

INDUSTRI BALIO ERANTSI GORDINAREN BANAKETA

Urtea	Mozkin netoa	Amortizazioak	Pertsonalkostuak	Finantz. kargak	Balio erantsi gordina
1974	11,3	14,0	64,5	10,2	100
1975	6,6	13,7	67,0	12,7	100
1976	-1,0	14,7	68,0	16,3	100
1977	-3,9	15,2	69,1	19,6	100
1978	-8,5	15,8	68,6	24,1	100
1979	-10,2	20,4	65,4	24,5	100
1980	-14,6	20,6	66,4	27,5	100


Iturria: Lankide Aurrezkiaren ekonomi txostena.

bai *enpresa itxudurari*, edo *krisi-ageriei* dagokionez

Guzti horren ondorioz euskal ekonomiak ezin eman diezaike enplegurik lan egiteko gai diren guztiei, eta zeragatik hori:


- konkurrentzialtasun-faltagatik eta honen ondorengo
- merkatu espainolaren ordez kanpoko merkatura jotzeko ezintasunarengatik,
- energi kontsumoarengatik,
- produktibitatearen eta alokairuen arteko desegokitasunarengatik,
- industri egituraren fosilizazioarengatik, baliabide erabilgarriak etorkizunik ez duten sektoreen salbazioan inbertitzeko joerarekin.

LANGABEZI TASAK 1972-1980 URTEETAN



Iturria: E.P.A. eta Eurostat.

LANGABEZI TASEN EBOLUZIOA



Iturria: INE. Jendetza Aktiboaren inkesta.

BPGren ENPLEGUAREN URTEARTEKO HAZKUNDE-TASAK

EUSKADI

Urtea	BPG	Enplegua
1976	3,4	-2,4
1977	1,8	-1,8
1978	1,3	-1,9
1979	0,8	-1,9
1980	-2,0	-4,4

Langabeziari dagokionez, Herriaren kezkarik larriena eta problema handi bakarra bilakatu da, batez ere kontutuan hartzen badira munduko ekonomiaren expektatiba zailak eta gure industri ehuna eszenategi berri horretara konkurrentzialki moldatzeko ditugun itxaropen dudagarriak.

Azkena

Euskal ekonomiaren diagnostikoa laburtu nahiko bagenu, esango genuke ze, bat batean, eta petrolioaren krisia dela medio funtsean, arras aldatua ikusi dugula gure erreferentzi markoa, guztiz zaila eta batez ere ohizko merkatu espainol babes-tuaz bestelakoa den nazioarteko merkatu batetan konkurritzera behartuak aurkitzen garelarik.

Hain bat bateko eta halako handitasuneko aldaketa batetara moldatzea —nabarmenki atzerakadan zegoen eskari nazionala kanporako exportazio handiago batekin ordeztzea, edo behintzat osatzea— gauza egiazki zaila zen, baina orain ezinezko egin duena —eta benetan atzeraezinezko kolapso bat suposatu duena, zera da, aldi berean alokairuen gorakada izugarria eman dela —%532ko gorakada zazpi urtetan —eta berdin beste barne-kostu batzuen ere —energiarena eta finantz kostuen— gure lehengo konkurrentzi ahalmena, gure produktuak kanpoko merkatuak konkistatzera irteteko hain beharrezko zitzaion ahalmen hura, areka-zuloan abandonatu dutelarik.

Gure ekonomia, gaur egun, haur mengel bat duzu, krisian dagoen merkatu baten hormaren eta oraindik irensteko prestatu gabe dagoen alokairuen ezpataren artean. Egungoa bezalako krisi batek zerbait galdatzen baldin bazuen, berehalaxe mugitu beharra zegoela zen zerbait hori, erantzun zalu bat eman beharra alegia egoera berriari. Ez da posible izan, ordea, horrelako ezertxo ere.

Euskal industria gaur egun —krisia hasi zenetik zortzi urtetara— hildako ehun bat da, edo behintzat perlesiak jota dago bere zati handi batetan, eta oso gauza grabea da hori egunean baino egunean abiadura biziagoan mugitzen den ekonomi mundu batetan. Herri aurreratuenengandik bereizten gaituen distantzia, gero eta handiagoa gertatzen ari da. Eta bizitza enpresariaren sintoma tipikoak apenas sentitzen diren: ez dira hobetzen ez teknologia ez produktibitatea, ez da ateratzen produktu berriarik eta ez da sartzen merkatu berrietan ere —industri bir-moldaketa sonatu bezain topikoa—, ez da dirurik irabazten —galerak benetan mundialak dira— eta ez da inbertitzen. Guzti honen ondorioz, ez dira lanpostuak sortzen; egia esateko, desegin egiten dira, urteko 30.000 lanpostuko abiadan.

Hirurogeietako hamarkadan eman zen euforiak, gure desarrollismoaren aietasun paregabeak, ia mundu guztia engainatu zuen, eta langileak eta enpresariak berak beste inor baino gehiago eskierki. Hauek ez ziren prestatu; haiek, berriz, gerta zitekeena gerta, alokairuek amaigabeko gorakadan jarraituko zutela uste izan zuten. Egia esateko, espainol «mirakulua» zorioneko inguruabar sail baten kointzidentziaren emaitza izan zen. Ordura arte egundaino eman ez ziren zirkunstantziak —gerraondoko munduko ekonomiaren hazkunde-uhinaren ondorioz turistak bidaltzen, emigranteak hartzen eta kapitalak ekartzen zizkiguten zirkunstantziak—, eta sekulan gehiago emango ez direnak, dudarik gabe. Guzti horrekin jadanik ezin paga daiteke petrolioarengatik 12.000 milioi dolarretako faktura. Exportatu egin behar da eta ez gaude horretarako prestatuta.

Euskal ekonomia oso zaugarria zen eta beraren perspektibak alda litezke errotik, baldin eta gure iragan benturosoari eutsi izan dioten bi suposamenduak aldatuko balira:

=espainol merkatua etengabeko hazkuntzan,
=alokairu bajuak.

Bi suposamenduok desagertu dira jadanik duela denboratxo bat. Gure alokairuak Italia eta Britainia Handia bezalako herrietakoen parekoak dira. Espainol merkatua sinbolikoki bakarrik hazten da —%0 eta 2 artean batez beste azken urteotan— eta merkatu horretako gure presentzia beherabidean doa.

Zerekin kontatzen dugu egoera honi aurpegia emateko? Ezer txorekin ere ez. Zein izan da Herriaren borondate politikoa eta erantzun ekonomikoa? Ezein ere ez. Sindikatuek eta Eusko Gobernuak —zuzeneko erantzukizuna eta benetako zerbait egiteko ahalmena duten bakarrak— itzuri egiten dute arazoa eta bazterreratu egiten problema guztia patata bero bat bailitzan. Sindikatuek, aldi berean enplegu bera eta alokairu gehiago garantizatu beharko lizkieketen alegiazko enpresariak galdatzen dituzte. Eusko Gobernuak, berriz, Madrilen eta Administrazio Zentralean dauka bere koartada. Alabaina, denak batera datoz aldaketarik ez egiteko borondatean, hemen deus ere gertatu ez balitz bezala jarraitzeko asmotan, beren buruei eta besterenei iruzur eginez, eta errealitateari aurpegi eman nahi ez dion Herri baten erantzun sozial bezala beti aurrerantz ihes eginez. Hasierran ohartzen ez zirelako zer gertatzen zen; orain, erremediorik ez duela pentsatzen dutelako, agian.

Lehen, Herria zerbait egiteko beharretik defendatzen baldin bazen, ezertxo ere gertatzen ez zelako aitzakiarekin zen; egun, %20ko langabetu-kopuruak ere ez du mugitzen herri hau. Dena den, ez dago autolarderiatzeko arrazoirik ere. Behin frankismoaren azkenarekin pairatutako triunfalismo leloa iragan ondoren, besteak bezalakoze Herri bat garela ohartzen gara; gurea bezalako kasu batetan, porrot egingo zukeen edozeinek, guk egin dugun bezalaxe, bestalde. Kontsola gaitzean Herri zoragarri bat dugula pentsatuz —gizonaren eskua gehiegi nabaritzen ez den leku haietan, noski— eta munduko sukalderik onena, gainera. Goza gaitzean ahal dugun bitartean.

Euskaratzailea: **Gotzon Nazabal**
A. P. C.

LA CRISIS VASCA LA CRISE BASQUE

El problema económico de Euskadi es el de siempre: el País Vasco es pobre en materias primas, recursos naturales o energéticos. Dos fenómenos han modificado el futuro de la economía vasca: la crisis mundial o crisis del petróleo, y la crisis industrial. Todo ello hace que nuestra industria no sea competitiva, porque padece una gravísima **obsolescencia tecnológica** tanto en los procesos productivos como en los propios productos.

Aún sin la crisis del petróleo la industria vasca se hubiera visto en una difícil situación. Para afrontar la transición económica hubiera sido preciso establecer un **consenso social** entre empresarios y trabajadores, y una Administración que apoyara, que informara sobre lo que estaba en juego. Ninguna de las dos condiciones se ha verificado. La consecuencia es la imposibilidad de luchar contra la crisis.

Es absurdo mantener todavía hoy la política industrial de antaño. En ella, el Estado, teóricamente defensor de la iniciativa privada y de la economía de mercado, en la práctica vulnera esa libertad, con una compleja trama de reglamentaciones y, sobre todo, con una política crediticia muy dirigida. Así resulta que el proyecto de reestructuración industrial de la Administración es una política de sostenimiento y no de transformación.

Los planes de reestructuración han resultado fatales para la empresa, porque son inadecuados al no permitir un cambio real de la situación, y porque se ejecutan desastrosamente. Esta política crea **dependencia** sin resolver los **problemas de fondo**.

Los datos objetivos en que se detecta la crisis de la economía vasca son: 1. La marcha de la economía vasca es más negativa que la de la española. 2. Ello es fruto de factores negativos comunes y de algunos específicos de la situación vasca. 3. Los sectores industriales en crisis son paradójicamente grandes consumidores de energía, de la que se carece y que es cada vez más cara. 4. Hay retroceso tanto en el consumo como en la inversión. En consecuencia las empresas se paralizan y se derrumban, y pierden rentabilidad. El resultado de todo ello es la incapacidad de la economía vasca de dar empleo a todos aquellos en condiciones de trabajar.

Nuestra economía es, pues, una débil criatura inmovilizada entre la *pared de un mercado en crisis* y la *espada de unos salarios demasiado elevados*. La industria en gran parte está paralizada y envejecida. La distancia respecto a los países más adelantados es cada vez mayor.

Las perspectivas de la economía vasca podrían cambiar bajo dos supuestos: que el mercado español fuera creciendo constantemente, y que los salarios fuesen más bajos. Hace tiempo que fallan ambas condiciones. Pese a ello, ni sindicatos, ni empresarios, ni Gobierno Vasco quieren afrontar el problema. Todos escurren el bulto. Por ello, precisamente, nuestra situación es extraordinariamente grave.

Le problème économique d'Euskadi est très ancien: le Pays Basque est pauvre en matières premières et en ressources naturelles ou éner-

gétiques. Le futur de l'économie basque a été modifié par deux phénomènes: la crise mondiale ou crise du pétrole et la crise industrielle. C'est ainsi que notre industrie n'est pas compétitive; et cela parce qu'elle souffre d'une désuétude technologique très grave tant au niveau du processus productif que des produits eux-mêmes.

Même sans la crise du pétrole l'industrie basque se serait trouvée dans une situation difficile. Pour faire face à la transition économique il aurait fallu établir un consensus social entre patronat et travailleurs et disposer d'une Administration qui appuie et qui informe sur l'importance de l'enjeu. Aucune de ces deux conditions n'a été remplie, d'où l'impossibilité de lutter contre la crise.

Il est absurde de maintenir encore la politique industrielle d'antan où l'Etat, théoriquement défenseur de l'initiative privée et de l'économie de marché, empiète, dans la pratique, sur cette liberté, avec sa trame complexe de réglementations et surtout avec sa politique de crédits très dirigée. Il en résulte que le projet de restructuration industrielle de l'Administration est une politique de soutien et non de transformation.

Les plans de restructuration se sont avérés néfastes pour l'entreprise car, d'une part, en ne permettant pas un changement réel de la situation ils sont inadéquats et d'autre part leur exécution est désastreuse. Une telle politique mène à la dépendance au lieu de résoudre les problèmes de fond.

Les données objectives qui permettent de déceler la crise de l'économie basque sont les suivantes: 1) Le processus de l'économie basque est plus négatif que celui de l'économie espagnole. 2) Cela est dû à des facteurs négatifs, certains communs et d'autres spécifiques à la situation basque. 3) Les secteurs industriels en crise sont paradoxalement de grands consommateurs d'énergie qui manque et qui est de plus en plus chère. 4) On assiste à un recul tant au niveau de la consommation que de l'investissement. Par conséquent les entreprises se paralysent, s'écroulent et perdent leur rentabilité. D'où l'incapacité pour l'économie basque de donner un emploi à tous ceux qui sont en mesure de travailler.

Notre économie est donc une faible créature prise entre un marché en crise et des salaires trop élevés. L'industrie est en grande partie paralysée et vieillie. Son écart avec celle des pays les plus avancés se creuse de plus en plus.

Les perspectives de l'économie basque pourraient changer si ces deux conditions étaient remplies, à savoir, la croissance continue du marché espagnol et la baisse des salaires. Or il y a longtemps que ces exigences ne sont pas satisfaites. Malgré cela, ni les syndicats, ni le patronat, ni le Gouvernement Basque ne veulent affronter le problème. Tous ferment les yeux. C'est précisément la raison pour laquelle notre situation est extrêmement grave.

Industri krisia Euskadin

Xabier Olaberri

Eguno euskal ekonomiaren krisialdi hau, munduko ekonomiatik datozkeen aldaketa-beharreri egokiro erantzuteko ezintasunean aurkitzen den industria baten eta gizarte baten adibide garbi bat dugu. Konbentzionalki 73.eko petrolio-krisia hartu izan ohi da krisi mundialaren abiapuntu bezala, nahiz eta argi dagoela ematen duen jadanik aurreko urteetan ere ongi aski ikus zitezkeela bigarren mundu-gerratik sortu zen sistema ekonomikoaren funtsezko zutabeen akatsak: hala nola, urrearen krisia, herri kapitalistetako gizar-te-mugimendu protestariak edo eta hirugarren munduan amerikanoen nagusigoa jasan nahi eza. Nolanahi dela ere, aldatu egin da munduko ekonomia eta, batez ere, bere sektore industrialean egin du aldaketa hori; produkzio-adar osoak hazteko perspektibak erro-errotik aldatuz, teknologi berrikuntza sakonak ezarriz, produkzio-prozesuaren zati bat lanekuaren kostua barregarri gertatzen den areatara desplazatuz, etab. Euskadi ez zegoen prestatua gisa horretako aldaketa zorabigarria asumitzeko, eta gainera, bere ekonomia

industri sektorean oso zentratua zuenez gero, eta oso kanpoaldera irekia, zeharo lur-jota geratu da haren bilbapen ekonomiko guztia.

Ez zait iruditzen Euskadiko krisi hau ulertu eta berari buruzko estrategia bat planteia daitekeenik, baldin eta ez bada oso kontutan hartzen mundu-mailan gertatzen ari denaren zentzua. Kapitalismoaren baitan sakoneko krisi bat ematen denean, munduko sistemak bere produkzio-sistema osoa birrantolatuz erreazionatzen du, hasi kontsumo-eredutik eta enpresen produkzio-erretarainoxe, fabrikazio-prozesuak baldintza konkretu batzuk betetzen direneko area berrietara desplazatuz. Aski litzaiguke kapitalismoak 29.eko krisiaren ostean, eta II. Mundu-gerra ere barne, jasan zituen eraldakuntza sakonak oroitzea, 1990.eko mundua, 1970.ekoaren aldean, oso bestelakoa izango dela ulertzeko.

Eta Euskadin dugun problemarik larriena da, Euskadi ez dagoela teknologiaren aldetik, ez finantzen aldetik eta, okerrago dena, ezta politikoki ere, gertatzen ari den iraultza ekonomikora positiboki moldatzeko kondiziotan. Gure produkzio-egitura oso aukera edo aniztasun gutxikoa da eta beren gailurra oraindik ere duela oso hamarkada gutxi jo zuten sektore tradizionaletan finkatua gainera; eta, aldiz, teknologia modernozko sektoreen eta, bidezko denez, etorkizun hobea izan dezaketen industri sektoreen trenea galduz ibili da, adibidez elektronikaren eta informatikaren mundu konplexu osoa, aeronautika eta prezisio-industria, bioindustriak etab. Ekonomi apogeoaren urteetan, 60ko hamarkadaren azkenetaraino, saia zitekeen euskal ekonomiaren hazteko ahalmenaren parte bat horren arlo etorkizuntsu horietan oinak ipintzen hasteko aukera eman zezaketen teknologi eta industri azpiegiturak sortzen. Hauxe izan zen, hain zuzen, urte haietan Euskadin eman zen polemiketako bat, bigarren hazaldiko industriatik hirugarrenekora pasa behar zela esaten zenean. Tamalez, ordea, gure zuzendari- eta enpresari-klaseak nahiago izan zuen, inolako abenturatan sartu gabe, ezagutzen zuen industri ereduari iraunerazten saiatzea.

Euskal krisiaren larritasunean intzidituko duten zirkunstantzietan bigarrena, betiko konkurrentzi falta izan da. Euskal industria iragan mendearen azken hondarretan jaio zen, bere meatz-

-ondasunei eta euskal produktuen kontsumoa bermatzen zuen babespen estatalari esker. Orduetik hona, ordea, asko baino gehiago aldatu dira gauzak lehengaien aberastasunari dagokionez, baina babespena etengabeko konstante bat izan da, beti ere. Babespen horrekin, kanpoko teknologiaren eta Espainiako merkatu atzetatuaren arteko artekari bikain bezala agertzen zen euskal industria, batez ere tarteko industri produktuei zegokien guztian eta ekipamendu-ondasunei zegokienaren parte on batetan.

Babespen-egoera etengabe honek, bere gorabeherak eta gutti, etekin handiak ematen zituen, berriztapen-eginahal handirik gabe. Euskal teknologia, nazioartekoa baino atzerago ibili da beti, eta, jakina, guzti horrek produktuen konkurrentzi falta suposatzen zuen. Gero, merkatu espainola 60. urteetatik hona irekiz joan bait da, halako teknika-berrikuntza batzuk egin behar izan zituzten euskal enpresek; baina, oro har, nahiago izan zen epe laburreko errentagarritasunarekin jarraitu eta ez Europakoaren antzeko produktibitate bat lortzeko lanbide gogorrari ekin

Eta horrelakoxe egoeran gaudela jausten zaigu 73.eko krisia. Petrolioaren prezioak gero eta gorago doaz etengabeko lehiari, eta herri guztiak gero eta gehiago exportatzera behartuak aurkitzen dira, baldin eta beren pagu-balantza nolabait orekatuko badute. Euskadin, gainera, oraindik areagotu egiten da kinka, zeren Estatuko ohizko merkatua —munduko krisiaren ondorioz hau ere— dinamismo eskasekoa azaltzen bait da, eta horrela izugarri indartu behar da exportatzeko ahalmena. Exportatzeko ere, ordea, konkurrentea izan behar da eta Euskadi ez zen hala orduan, eta ez da gaur egun ere oraindik. Guzti honi, dolarren aldean gehiegi kotizatu izan den pezeta baten azken urteotako moneta-politikarekiko problemak eta euskal produktuen ohizko merkatuen zati handi bat babesteko joera eranstean baldin badizkiogu, uler daiteke zein zaila den arazo honen soluziobidea, enpresa askok beren kostuen azpitik exportatu behar izaten dutelarik, produkzio-kotari arrazoizko maila batetan eusteko lehiari.

Gero, ikerketa zehatz gutxi egiten da produktu bakoitzak mundu-mailan duen jokabideari buruz, nahiz eta, bestalde, nahikoa datu badagoen beren eskea geldituta daukaten produktuak

ekoiztera dedikaturiko gurea bezalako ekonomien drama bere headadura osoan ulertzeko. EEEda dateke, agian, industriak birlekutzeko eta nazioarteko ekonomiaren banaketa berri bat antolatzeko fenomeno hau gehien estudiatzen ari dena, biktima gertatu delako, alde batetik, eta egoera berri honetatik mesedetua irtengo delako, bestetik. Horrela, 47 azpisektoreren munduko eskearen portaera aztertzen duen estudio kaleratu-berri batek, balio diezaguke problemaren gida bezala.

- Bakarrik 8 azpisektorek irabazi dute beren hazkunde-tasan 70eko hamarkadan: horietako 4 laborantz elikadura edo hirugarren munduko premia biziko produktuekin erlazionatuak daude; eta beste 4ak industri sektoreekin erlazionatuak (telekomunikazioak, jendetza zabaleko elektronika, laborantzako materiala eta prezisio-materiala). Orain, euskal ekonomia ez dago sektore hauetako ezeinetan, eta ez bide dirudi aurrerantzean ere sartuko denik, zeren gisa horretako fabrikazioaren parte handi batek bederen (pentsa, adibidez, jendetza zabaleko elektronika edo konfekzioa), Asiako hego-ekialdeko laneku men eta merkeko herrialdeetarantz jotzen bait du gero eta gehiago.
- Beren hazkunde-tasan geldirik edo zertxobait beheranzko joerarekin aurkitzen diren 18 azpisektoreren artean, 4 bakarrik ditu Euskadik halako presentzia esanguratsuzkoak: haltzariak eta zurezko artikulatuak, kontserbak, etxerako elektragailuak eta automobilaren industria. Haatik, nola etxelektragailuen sektorea hala automobilaren auxiliarrarena, bere produkzioa mundu-mailan birrantolatzeko prozesuan aurkitzen dira, planta gutxi batzutan kontzentratu eta espezialtzeko xedearekin; eta, gero, badago hirugarren mundua adar hauetan gero eta autosufizientea bilakarazi nahi lukeen joera bat ere. Beraz, bi azpisektore hauek nazioz gairikiko enpresa zabalagoetan integratzeko prozesuan aurkitzen dira inongo ezpairik gabe, eta oso zail gertatzen zaie euskal enpresei beren produktuentzat nazioarteko merkatu eskurakor bat aurkitzea.

Alderantziz, lehen sektorearekin loturiko beste bi ada-

rretan, haltzari eta zurarenean eta kontserbenean alegia, panorama baikorrago batekin aurkitzen gara, herria horretarako antolatzen baldin bada behintzat; zeren, Nafarroak laborantzan eta herri osoak abelazkuntzan dituzten ahalmenekin, eta euskal baso eta oihanek ematen dutenarekin, oraindik ere askoz gehiago egin bait daiteke berorien ustiapenari dagokionez. Industriara muga nadila eskatu zaidanez gero, ezin hasiko gara euskal lehen sektorea aztertzen; baina, hala ere, bihoa aurretik ezinbesteko gauzatat ematen dudala gure herriko laborantzaren ahalmen guztiak aprobetxatu beharra: hasi Nafarroan lor daitezkeen 200.000tik gorako hektarea irrigagarri horietatik eta gure ohianak arrazionalki ustiatuz zure papergintzaz aparteko sektoretan tratatzerainoxe, gaizki aprobetxatutako dozenaka mila hektarea horiek abelazkuntzako prozesu bati erantzuteko bazka-produkzioarako birreskuratzeaz ahaztu gabe. Azpisektore primario hau behar bezala berrindartuz gero, aztertu nahi ditugun transformazioko sektore industrialen hazkuntza bat lortuko litzateke, agian, mundu-mailan halako joritasun bat dutenez sektore horiek.

- Tamalez, ordea, hirugarren azpisektore-taldean aurkitzen ditugu euskal enpresak samaldan. Beren hazkunde-tasa bortizki erori den 21 azpisektoretako 13 intentsitate biziarekin aurkitzen dira Euskadin. Papera, siderurgia, erreminta-makinak, tubogintza, turbina- eta bomba-motoreak, makineria elektrikoa, mekanika orokorra, kimika organikoa, pneumatikoak, etab. gure industriaren bihotza dira, hain zuzen ere, eta sektore hauetxek aurkitzen dira borroka bikoitza egin beharrean: alde batetik, mundu-mailan erabat geldirik dagoen eskearen kontra eta, bestetik, teknologia eta produktibitate altuko herrialdeen gero eta eskaintza berritzailearen kontra, edota laneku merkeko herrialdeen kontra.

Ez da beraz batere harrizkoa, krisia beste inon baino gehiago sektore hauetan bazkatzea, eta plantilak murrizteko arazoari dagokionez oso bereziki. Salmentak, arras geldirik dagoen merkatu batetan, herri batek bere pro-

duktibitatea ugaltzeko duen ahalmenaren pentzudan geratzen dira funtsean; eta produktibitate-ugaltze orok plan-tilak murriztu beharra suposatzen du beste ezer baino lehen. Horregatik, barne-merkatu handia duten herriak merkatu hori babesten ahalegintzen dira, medio gutxi-asko klasikoekin, eta pertsonala murriztu beharrari no- labait eustearren, esate baterako, altzairuaren eta auto- mobilaren sektoreetan EEBBen eta Japonen arteko istiu- luan, EEEn eta Japonen arteko automobilaren sektorean, edota oraindik berrikitan EEBBen eta EEEn artean altzairua dela eta deklaratu dena, etab. Euskadik ez du pisu politikorik ez barne-merkaturik gisa horretako ga- tazka batetan eragin ahal izateko, eta horregatik eraba- kiak txintik ere esan gabe jasan beharrean aurkitzen da; eta zer esanik ez mundu guztia jakinaren gainean denean produktu horietako askotan, sistema fiskal homologatu baten faltaz, *dumping*-erako aukera ematen dela.

Egungo egoera

73.az geroztik Espaini eta Euskal Herri mailan jarraitu den politika ez da gauza izan krisiaren ondorioei aurre eman eta funtzionamendu-eredu alternatibo bat prestatzeko. Ez da ahaztu behar, bestalde, Francoren gobernu-garaiko ekonomi politika pe- trolioaren krisia gauza iragankorra zen ideiak zuzendu zuela eta, beraz, oparotasunak, urte-pare baten edo hiruren ondoren, berriro itzuli beharko zuela uste zela. Eta urte hauetantxe eki- ten zaio, esate baterako, gehienbat Euskadin kokatua dagoen altzairu ez-integralaren sektoreko 2. Ekintza Kontzertatuari, beti ere altzairuaren kontsumoa asko gehituko zen «aurrikuspenare- kin». Antzeko beste zenbait erabakik, papergintzan edo ener- gian adibidez, kapital handiak inbertitzera bultzatzen du planta berrietan eta, horrela, krisia bi bider areagotu besterik ez da egin urte hauetan; zeren alde batetik kontsumo-falta dagoen bi- tartean, bestetik lehendik zeuden instalazioak hobetzeko edo adar eta produktu berriak sartzeko behar ziren kapitalen zati handi bat alfer-alferrik xahutua geratu bait da.

Krisia luzarorako doala ohartu denean, ordea, eskuinak nahia-go izan du teoria nabarmenki neoliberalen alde edo, are, monetaristen alde jokatu; eta merkatuaren esku utzi du soluzioaren hautabidea. Ez dut uste ondorio okerragotara irits zitekeenik. Petrolio-krisia eman eta zortzi urtetara, oraindik ere martxan jartzeko dago Estatuan eta Euskadin energia aurreztearen aldeko politika bat; eta, horrela, EEEko herrialdeetan gaur egun energi kontsumoari eutsiz edo nabarmenki gutxituz BPG (Barne Produktu Gordina) gehitzea lortu den bitartean, Euskadin energi kontsumoa gehitu egin behar dela aldarrikatuz jarraitzen da, BPGa geldirik edo are beherakadan doan bitartean.

Zalantza-balantza honetan murgildurik, gerora zer gertatuko den susmorik gabe eta mozkin-perspektiba eskas baino eskasagoekin, industriet zeharo frenatzen dituzte dutena zabaltzeko edo arlo berrietan sartzeko inbertsioak, duten produktibitatean hobakuntzak egitera mugatuz. Beste aldetik, finantz boterearen kontzentrazio-gradua hainbestekoxea da, non bankuen interesekin loturarik duten enpresek bakarrik lor bait dezakete krediturik eta, jakina, gauzak horrela, enpresa txiki eta erdi-mailakoen sektore osoa indarge sentitzen da bere finantz arazoei eta teknikoei aurpegi emateko, eta itxi egin behar izaten dute.

Horregatik, ez da batere harriztekoa euskal industriak 75.etik hona, eraikuntzako 30.000 enpleguez gainera, 60.000 galdu baldin baditu, hau da, gaur egun daudenen %18 hain zuzen. Oraindik ezagutzeke daude Bilboko Bankuak bi urtez behin egin ohi duen errenta nazionalaren banaketari buruzko estudioaren zifra ofizialak; baina ezagun daitezkeen berrien arabera, gauza jakina da jadanik 77. eta 79. urteen artean Bizkaiko industri produktzioa %30 batetan gutxitu zela, eta %13 batez Gipuzkoakoa, Arabakoak eutsi egiten zion bitartean. Nolanahi dela ere, krisiaren larriak ordutik hona berdintsu iraun bait du, eta Araban berriz areagotu egin bait da, pentsa daiteke zein nolakoa izango den euskal industriaren egungo egoera estatistikoa.

Gure Herriari aplikatu nahi zaizkion indikatzaile kuantitatibo eta kualitatibo guztiak aplikatuta ere, denek argi aski frogatzen dute Euskadi ekonomi beherakadan doan herri bat dela; eta hori, ez bakarrik egoera bera oso grabea delako, baita horren

kausei buelta hartzeko ahalbideak oso mugatuak direlako ere. Gure herriko garapen ekonomikoa bi metatze-iturri handitan oinarritu da: industriaren mozkinetan, alde batetik, eta finantz sektore indartsu batetan, bestetik. Horietako lehena, ordea, jadanik zeharo suntsitua dago, zeren apenas suposatuko bait du balio erantsiaren %6 bat, 75.ean %20 suposatzen zuen bitartean. Bigarrenari dagokionez, berriz, Bankari alegia, bere filosofi aldaketarekin, bere industriak sustatzeko eginkizun oro abandonatzen saiatuz eta merkatal artekari soil eta lasai bat izatera mugatuz, baliabide-iturri oparo baten galera suposatzen dio herriari.

Gogoeta asko baino gehiago egin beharko litzateke problema honetaz, zeren hertsiki lotua bait dago krisiaren desarroiloarekin. Banka espainola izan da, eta da, ekonomia eta politika espainolaren gure zuzendaria, eta iraganean oso protagonismo garrantzitsua izan zuen eta presente zegoen halako zabalgo bat zuten projektu guztietan. Egun, behiak hezur-huts direnean, merkatal sektorean abarotu da banka, eta duen monopolio-graduarekin, izugarriko mozkinak lortzen ditu dirua ikaragarri garestituz. Nazioarteko konparaketa guztiek frogatzen dutenez, banka espainola da, hain prezeski, transformazio-kostu —egitur gastuak gehi mozkinak— altuenak dituen, eta horrek oihartzun negatiboa du eskierki industriaren sektorean. Hain zuzen ere, euskal industriaren industri mozkinen galeraren zati handi bat, finantz kostu itzel horiegatik da; eta enpresa txikiak dituen problema asko eta asko, behar hainbateko kredituak lortu ezinetik datoz.

Banku-sektorearen birmoldapena dugu, inondik ere —dauden nazionalizazio-formula ugarietan oinarrituriko kontrola erdetsiz—, krisialditik irteteko aldatu behar handia dutenetako bat. Finantziario-iturriak lortu behar dira industria txikiarentzat eta erdi-mailakoarentzat, Industria Txiki eta Erdi-mailakoaren Institutu (ITEMI/IPYME) baten bidez, gestio-, teknologi eta plan-gintza-arloetan ere lagun diezaien. Horixe litzateke beharrik premiazkoenetako bat.

Zeren, ematen diren bezalako kondizioetan, Euskadi bere krisi sakonetik merkatuak aterako duela sinisten jarraitzea, suizidio soil eta ximple bat besterik ez bait da. Ez dut ezagutzen

inon funtzionatzen duenik edo funtzionatu izan duenik merkatuak, multinazional eta monopolio erraldoi hauekin txiste bat ematen duen egunotan; baina esperientziaren aurrean begien bistan daukaguna behintzat zera da: merkatuak ez diola egiazko irtenbiderik ematen krisiari eta enpleguak suntsitzera eta premiazko egitur eraldakuntzak atzeratzera mugatzen dela. Funtsean merkatuan oinarritzen den edozein irtenbidek, etorkizunaren presentearen eraberrikuntza soil bat bezala antolatu nahi lukeen edozein soluziok, suntsimendu sozial nabarirako bidean jarriko du herri hau.

Soilik exportazioa desarroilatuz —eta horretarako alokairuak jaitsi behar dira eta plantilak murriztu— herri honen ekonomiak etorkizunik baduela pentsatze hutsak, praktikan bere jendetza-ren parte handi bat emigraziora kondentatzea suposatzen du. Jandak egun, azken zentsuaren zifren arabera, 50.000 tik gora dira Bizkaitik eta Gipuzkoatik emigratu behar izan duten pertsonak; eta jaiotza-tasa etorkizun-faltaren ondorioz halako azantzarekin amildu da, non jaiotzen zenbakia ugaldu ordez gutxitu egin bait da, 75. urteko 47.000tatik 80ko 38.000taraino.

Merkatura jokatzek, funtsean exportazioan oinarrituriko ekonomi hazkundeko politika batekin Euskadiko problemak konpon daitezkeela uste izateak, ez dio inola ere eusten errealitatearen kolpeari. 60ko hamarkadako urte oparoetan Komunitate Autonomoak 13.000 enplegu bakarrik sortu ahal izan zituen urteko; eta gaur, soilik arrazoi demografikoengatik, 20.000ren bat enplegu berri behar dira urtean, baldin eta langabeziari egungo 200.000 langabetuko kota horretan eustea lortuko bada. Euskadik ez du teknologiarik ez beharrezko lehengairik, mundu-mailan itxura hartzen ari den nazioarteko ordena berri horretan berriro airoso jartzeko bidea eman diezaiokeenik. Horregatik, ahaztu beharra dago Japon bezalako herriei konkurrentzia egiteaz (BPGa %5etik 6rako hazkundearekin gaur egun, krisi eta gutti); eta gogora dezagun, hazkunde hain ikusgarri horiekin ere, ez litzatekeela aski izango Euskadiko langabezia geldiarazi ahal izateko, zeren kalkulek %8an ipintzen bait dute BPGaren urteko hazkundera, soluziobiderik ematen hasi ahal izateko beharrezko kota bezala.

Krisiaren aurrean erresistentzia

Edungo kapitalismoaren krisia ez da soluzionatuko besterik gabe, ezta herri askoren onerako ere. BPGaren hazkundeak, gizarte-problema soluzionatzeko eta herrien ongizatea neurtzeko funtsezko erabide bat bezala, ez du jadanik benetako eragin-kortasunik. Munduko aurrikuspen guztiek oso hazkunde-tasa txikitara jotzen dute datozen bi hamarkadetakako eta hazkunde eskas hori ez da gauza izango enplegua sortzeko, produktibitatean behar den teknologi berrikuntza bortitzarengatik, hain zuzen.

Euskadik oso baza gutxi dauzka bere arrakasta industrialeko eta, gainera, bere industria hori astunegi zaio bere ekonomiaren multzoan. Hobe daiteke industri egoera, eta horretan saiatu behar da; baina begien bistatik galdu gabe, ez diola herriari hobakuntza horretan oinarrituriko ezein estrategiak ez oparotasunik ez ongizaterik itzuliko. Soilik 77/78ko denboraldian, bi milioi enplegu galdu ditu EEeko industriak eta Alemaniak berak, honen ahalmen teknologikoa eta exportatzailea denok eza-gutzen eta inbidiatzen dugun arren, milioi enplegutik gora galdu ditu berak bakarrik sektore horretan.

Herri hauek halako itxaropenik jar badezakete etorkizunari begira, beren barruko merkatuari eta teknologiarri zor diote hori, hasieran zituzten, eta langabezia halako lasaitasun batekin jasateko aukera ematen zieten errenta-maila altuak ahaztu gabe. Baina ez da ahaztu behar, ezta, Euskadik ez duela horrelako kondiziorik eta Euskadin ez dagoela, batzuek hala nahi dutela ematen duen arren, alemanen soluziobide bera hartzerik, hots, atzerritarak iraitzerik, bere industri sektorearen hazkunde ahula nolabait konpentsatzeko erabide bezala (Alemaniako industria apenas hazi den %1 70eko hamarkadan).

Horregatik, bada, beste klabe batzuz baliatu behar da krisiaren aurrean. Industria oso garrantzi handikoa da, baina zein gutxi eman dezakeen ezaguturik, eta oso kontutan hartuz gurea bezalako herri batetan gizarte-ehuna ez dadin urra, desberdintasun sozialak ez daitezten areagotu eta azelera, eta emigrazioa ez dadin irtenbide bakarra izan, gizarte-egituraren aldaketa osoa

galdatzen duela: gure kontsumo-ereduetatik hasi eta gure hiri-gintzaraino, garraio-eratatik hasi eta produkzio-egituretarainoko erabateko aldaketak noski. Lanaren banaketa, kontsumo kolektiboak, baliabide propioen ahalik eta aprobetxamendurik handiena, energi aurrezpena, gauzak kontsumitzeko joeraren ordez, kultura, informazioa, sormena, ingurugiroa, etab., bezalako baloreak kontsumitzeko joera... horiek dira krisiaren ondorioei eusteko behar dugun erresistentziaren giltzarriak.

Gure herria pobrea da, baina badugu duintasunez bizitzeko behar hainbat baliabide, beroriez baliatzen baldin badakigu behintzat. Gertatzen dena ordea da, merkatuaren dinamikak, enpresa-interes indibidualean dinamikak, ez dutela eramaten gisa horretako gizarte baten antolamendura, produktibismoa eta kontsumismoa eta, azken batean, harreman sozialetako fetitxismoa areagotzera baizik. Hospital-zerbitzuak kontsumitzen dira, eta ez osasuna; titulu akademikoak, eta ez kultura; modan dauden kontsumoko gauzak, autorrealizatzeko ahalbideen ordez. Gauzak produzitzen dituen ekonomia bat muntatu digute, aspaldi honetan gauza horietako askok jadanik ongizaterik ez emateaz gainera, kendu egiten digunean; eta gaintetik orain gertatzen da, produziokera hori krisian sartzen dela eta muntatu dutenek ez dakitela nola soluzionatu; edo, hobeto esateko, soluzionatzen ari direla, baina gurea bezalako herriak bertan behera uzten dituztela.

Horregatik ez zait gustatzen krisiari irtenbidea emateaz hitzegitea; aitzitik, krisiari kontraeustez dago hitzegin beharra. Nik ez dut uste Euskadi egiaz irten daitekeenik krisialditik, baina egoki dezakeela bere izatea koordenada berrietara ahalik eta kostu sozialik txikienarekin. Zeren, azken finean, benetan absurdo gertatzen bait da egiten den inbentua bakoitzarekin langile gehiago bota behar izatea eta urduritasun fisiko eta psikiko gehiago sortzea, normalena lan-kondizioak hobetzeak edo denbora libre gehiago lortzeak izan beharko lukeen bitartean.

Baina, nola zer egin behar den ulertzeko irakurleari balio diezaioketen gauza konketuak azaldu behar diren, nire ustez industri sektoreari komeni zaion politikaren lerro nagusienei errepaso bat ematen saiatuko naiz.

1. — *Planifikatzea.*

Herriak ezin dezake luzaroago jarrai, problemak merkatuak soluzionatuko dizkiola pentsatuz, edota klabea Madrilan eskue-tan dagoela sinestuz. Eusko Gobernuak da hemen erantzukizun handia duena; zeren, alde batetik, berak bait du erantzukizun exekutiboak eta, bestetik, bere pisu sozialak ideia hau herritar guztien buruetan sartzeko indarra ematen bait dio.

Gaur artekoan, ordea, EAJak uko egin dio ekonomi arloan zuzenki eskuhartzeari eta muzin egiten dio edozein plangintza-saioari. Nire ustez, plangintza hori gabe, kontzertu-sistemaren bidez birreskuratzen diren baliabide guztiak efikazia eskasarekin erabiliko dira, eta horietzek dira, hain prezieski, herriak gaur egun dituen finantz baliabideei dagokien baza positibo bakarra. Birratolamendu enpresarialaren, espezializazioaren, finantz laguntzaren eta abarren politika bat finkatu behar da, eta horretarako bi dimentsiotan bururatu beharra dago: alde batetik, Madrili estatutuan babesten diren kompetentziak eskatuz, kreditu ofizialaren banaketa-kriterioetan partehartuz, hemen finkatuak dauden edo bertan diharduten euskal enpresa publikoen transferentziak lortuz, etab.; eta, bestetik, kompetentzia eta baliabide guzti horiek ikerkuntza eta logika gidari lirakeeneko erabide arteztu eta planifikatu batez erabiliz.

Gisa horretako planifikazio batek konfidantza emango lieke enpresariei; horrela jakingo bait lukete konkretuki zein eremutan mugitu beharko luketen, zein laguntzaz baliatu ahalko diren, etab., inbertsiorako bideak erraztuz. Nolanahi ere, argi dagoen gauza da Aurrezki Kutxen eta kreditu ofizialaren baliabideak zuzen litezkeela enpresarien ihardukizuna Planak erabakitako arloetan sustatzera. Finantz baliabide hauek eta fiskoaren birratolamendutik eta hobakuntzatik letozkeenak dira ekonomiaren etorkizunerako kontatzen duten bakarrak.

2. — *Ekonomiaren instituzionalizazioa.*

Plangintza honetan babes berezi bat behar dute enpresa txikiak eta erdi-mailakoak, beren enpleguak sortzeko ahalmenagatik eta beren teknologi aldatetara eta fabrikazio berrietara moldatzeko gaitasunagatik. Hitzegin dugu lehen ere enpresa horiek

birrantomolatuکو lituzkeen eta exportatzeko laguntza, teknologia eta ikerkuntza aplikatu batetarako medioak emango lizkiekeen ETEMI/IPYME bat eraikitzearen garrantziaz.

Euskal industriak, duenetik abiatuz, arlo eta produktu berrietan sartu beharra dauka derrigorrez. Ezinbesteko betebeharra du hori. Alabaina, alde batera utzi beharrak daude gure herria bata zurizko tailer bihurtuko zuketan industri iraultza berri bat Euskadin lortzeko amets haiek: zeren petrokimika eta elektronika bezalako sektoreak zeharo dominatuak bait daude eta ezinezko gauza bait litzateke gure herria arlo horietan masiboki sartzea. Hala ere, horrek ez du esan nahi, gure herrian egungo produktuei aplikatu dakiekeen eta horiek hirugarren munduko herrien konkurrentziaren eskumenetik at utziko lituzkeen teknologia partzialki bederen sartzeko ahalmenik ez dagoenik. Erreminta-makinari aplikaturiko elektronika izan liteke, esate baterako, gisa horretako adibide bat, eta sustapen-politika egoki batek gauza izan behar luke goi teknologiazko eranskin horiek produzitzen jar daitezkeen enpresak sortzeko.

Berregokitze eta industri arlo berrietara irekitze hori lortzeko, zuzenki eskuhartu beharra daukate botere publikoek. Oraindik berrikitan Eusko Parlamentuak onetsi duen Industri Sustapenerako Elkartek eginkizun honetan espezialdu eta bidea urratuko duten enpresa publiko eraginkorrak sortzen ahalegindu behar luke, krisian aurkitzen diren enpresei subentzioak emateko eta adabakiak eransteko elkarte soil bat izatera zokoratu ordez. Era berean, antolamendu on bat eta teknologi ikerkuntzako egitura on bat duten industri sektoreei (kooperatiben taldean ari naiz pentsatzen) emango litzaiekeen laguntzak, balio lezake Euskadin produkzio berriak sartzeko, kolektibo honen enpresa-arloko jakitarea dinamika planifikatzaile batetan integratuz, Komunitate Autonomoaren aldetiko ohizko finantz laguntzak jaso litzaketan epe luzerako akordioen bidez. Egun Sozietate Anonimo Laboraletan bilduriko enpresa-talde zabalaren birrantomamendu eta birregiturapen batek, bestela erremediorik gabe galdutzat eman beharko liratekeen enplegu-sail on bat salbatzeko ahalbideak emango lituzke, eta beren ihardueran Planaren jomugen funtziotan zuzenduak izateko abantailarekin gainera.

Botere publikoen aldetik ekonomian zuzenean edo erdizuzenean jokatzeko honek, segurtasun-giro bat sortuko luke jomugetan, inbertsio pribatua ere mesedetua gertatuko litzatekeelarik. Gainera, jomuga garbi batzuekin eta tresneria ere martxan jarrita, herria ere prestatua egongo litzateke teknologia egoki bat erakar diezaiokeen atzerriko inbertsioa hartzeko. Pertsonalki ez dut uste multinazional erraldoi horiek direnik hain zuzen Euskadira etorri behar eta nahi luketenak; Europa eta Ameriketako erdimailako enpresetan pentsatzen dut: arlo espezifikoeetan teknologi gaitasun handiaren jabe izanik, egungo textuinguru mundialaren aurrean internazionaldu beharrean aurkitzen diren enpresa horietan.

Alde batetik planifikatzeko eta bestetik teknologia berriak hartzeko jokabide konbinatu batek sor litzake merkatu berriak herrian bertan eta gero, bigarren fase batetan, munduko merkatura irtetea lortu. Energi aurrezpenak edo kutsaduraren kontrako teknikak, adibidez, abagadune ona eskaintzen dute enplegua sortzeko eta pagu-balantzari kalterik egin gabe ongizatea handitzeko. Pertsona bakoitzeko amerikanoek egun egiten diharduten inbertsioaren antzeko batekin (guk baino energia gehiago badute ere), Euskadik 10.000 milioi pezetako merkatu bat eskaini behar luke gaur egun eta 50.000 milioikoa 1990.ean; esan nahi bait da, sorreraz dezakeela erreminta-tresnarena bezalako sektore inportante bat, eta auzoko barrutietara esportatzeko ahalbide handiekin gainera.

3. — *Teknologi azpiegitura desarroilatzea.*

Birmoldaketa itzel guzti honek galdetzen du, baita, euskal botereengandik irakaskuntza profesionalaren, birtziklapenaren eta ikerkuntzaren plangintza egoki bat ere: horietxek bait dira teknologia asimilatzeke eta gerora desarroilatzeke benetako euskarri nagusiak eta euskal industriaren garapenari halako jite autostostegatu bat eman diezaioketen erabide bakarra.

Eraldaketa politikoak

Industriaren plangintza eta birmoldapen-lan itzel guzti hori

burutuko balitz ere, enpleguaren arloan jasoko genituzkeen emaitzak urriak eta benetan dezeptzionagarriak izango lirateke. Egin-kizun horri ekin behar baldin bazaio, soilki bera gabe ondorioak oraindik okerragoak izango liratekeelako da, eta euskal ekonomia bere gainbeheratik ezin irtengo litzatekeelako.

Guzti honek trantsizioko kostu sozialen arazoa planteiatzen du: jadanik desenpleguaren itxuran jasanezin-alako gertatzen zaizkigun kostuena, hain zuzen, eta oraindik ere astunago gertatuko zaiguna, gainera, zeren gazteriaren sektorea bait da egoe-rak gehien erasotzen duena. Gazte bat bizi daiteke urte batzuz familiaren kontura, baina bistan dago egoera hori azkenean leher-tzeko zorian jartzen dela urte batzuren buruan. Orduan, nola heldu adarretatik erronka politiko fantastiko honi?

Hasieran ere esan dut, arazo honen irtenbide bakarra gizartearen eraldakuntza globalean datzala, gizartearen helburu eta funtzionamoduen eraldakuntzan noski; eta horrek esan nahi du, emigrazio politikoaz eta gainbeheradaz aparteko edozein irtenbidetik egitura sozial eta politikoen birdoikuntza gotor bat galdatzen duela Euskadin. Langile-klasea pairatzen ari den kostu ekonomiko astuna nolabait konpentsatzeko, eskuinak bere botere politikoaren parte bat utzi egin behar du orohar gizarte osoaren alde eta partikulariki enpresen alde. Zentzugabea da eta ezinezkoa gainera, euskal gizarte osoari gizon bat bera bezala lanegin erazi nahi izatea, bere kontsumo-arauak eta ohiturak aldaraztea, alokairuak beheratzea, krisian dauden enpresentzako subentzio publikoak erdiestea, plantila osoak botatzea etab., gero senperren kolektibo horretatik jalgiko litzatekeen Euskadik betiko pertsona ber-beren eskuetan jarraitzeko izan beharko badu.

Aldiz, iruditzen zait, eginahal horrek inolako zentzurik izango badu, duintasunezko gizarte bat lortzeko izan beharko lukeela soilik; eta horrek esan nahi du lan-eta kreatibitate-leku baten antza hartzen hasi behar duela Euskadik, eta ez lan bor-txatuen zelai batena; hiriek komunikazio-eta kultur barruti bilakatu behar dutela; ekonomiak, ahal den neurrian, hiritarren benetako beharrei erantzuteko antolatuta behar duela, eta ez haiek kontsumatzaile soil bilakartzeko, etab. Textuinguru honetan gure ekonomia berrabiarazteko egin beharko diren dudagabeko sakrifizio guztiak badute beren zentzua eta izan litezke gainera

onartuak herriaren aldetik; bestela, sakrifizio kolektiborako edozein dei, krisia besteei leporatzeko saio bat besterik ez litzateke izango, eta seguraski ez luke inork sinetsiko eta ez luke inolatan ere herri hau aurkitzen deneko egoera kaotikotik aterako. Ezparririk gabe, denok gara zertxobait erresponsible gure herriari gertatzen zaionaren; baina iraganean erabakitzeke botere ekonomikoa eta politikoa izan duena, eta gaur egun ere duena, hori da, hori, irtenbiderik bilatzeko benetako erantzukizuna duena. Eta ez baldin badu soluziorik ematen, gaur arte bezalako norabide beretik jarraitzeko setan badirau, askoz hobere luke bide berriak bilatzen lehiatuko liratekeen beste indar politiko eta sozialei bidea libre utziko balie.

Euskaratzailea: **Gotzon Nazabal**
X. O.

LA CRISIS INDUSTRIAL EN EUSKADI **LA CRISE INDUSTRIELLE EN EUSKADI**

Euskadi no está preparada para hacer frente a la crisis económica mundial desatada, especialmente, después de la crisis del petróleo del 73. Ni tecnológica ni financiera ni políticamente está preparada para adaptarse a la revolución económica mundial, sobre todo en el sector industrial. Por una parte se carece de una tecnología moderna. Por otra, la industria vasca no es competitiva, como para desenvolverse sin una política proteccionista.

De un estudio de la CEE se deduce que de 8 subsectores industriales en fase de crecimiento ninguno está presente en Euskadi. De 18 con cierta estabilidad, sólo 4 son significativas en Euskadi, y de ellas 2 tienen graves dificultades para encontrar mercado. Pero de 21 subsectores en decadencia, 13 se ubican en Euskadi. Es ahí precisamente donde la crisis es más espectacular.

La situación actual.

La política económica seguida desde el 73, tanto a nivel español como vasco, ha sido incapaz de frenar los efectos de la crisis y preparar un modelo alternativo. La solución neoliberal de abandonarse al régimen de mercado ha agravado la crisis, sobre todo en la pequeña y mediana empresa.

Euskadi es hoy un país en declive económico. Le fallan sus dos grandes fuentes de acumulación: a) los beneficios industriales casi han desapa-

recido; b) la banca se ha refugiado en el sector comercial, obteniendo gigantescos y cómodos beneficios.

Para salir de la crisis es necesario establecer un control del sector bancario que permita financiar la pequeña y mediana empresa. Abandonarse al régimen de mercado es un suicidio para Euskadi.

Resistencia frente a la crisis

Euskadi tiene poca posibilidad de éxito industrial. Pero ni siquiera éste sería una solución para la economía del país. Hay que usar otras claves para resistir a la crisis, no para salir de ella. Se precisa un cambio total de la estructura social: modificar el productivismo y consumismo actuales.

Las líneas maestras de una política adecuada serían:

- 1.—Una planificación pública que incluya una política de reorganización empresarial, de especialización y de apoyo financiero.
- 2.—Una institucionalización de la economía, que proteja a la pequeña y mediana empresa. Ello atraería la inversión privada y extranjera.
- 3.—Transformación de la infraestructura tecnológica. La reconversión industrial requiere cambios en la Formación Profesional, así como en la investigación de la tecnología.

Transformaciones políticas

Esta transformación global de la sociedad para hacer frente a la crisis no es posible sin un reajuste de las estructuras sociales y políticas. La derecha deber ceder poder político en la sociedad en general y en las empresas en particular. Con más razón, si como hasta ahora es incapaz de hallar una salida a la crisis.

Euskadi n'est pas préparée pour faire face à la crise économique mondiale déclanchée surtout après la crise du pétrole en 1973. Elle n'est préparée ni technologiquement, ni financièrement, ni politiquement pour s'adapter à la révolution économique mondiale, surtout dans le secteur industriel. L'industrie basque, d'une part elle manque de technologie moderne et d'autre part elle n'est pas assez compétitive pour se développer sans l'aide d'une politique protectionniste.

D'une étude de la CEE on a déduit que de 8 subsecteurs industriels en stade de croissance, Euskadi n'en compte aucun; de 18 subsecteurs ayant une certaine stabilité, 4 seulement sont significatifs en Euskadi et 2 d'entre eux ont de graves difficultés pour trouver un marché; par contre, de 21 subsecteurs en faillite, 13 se situent en Euskadi. C'est là précisément que la crise est plus spectaculaire.

La situation actuelle

La politique économique suivie depuis 1973, tant au niveau espagnol que basque, a été incapable de freiner les effets de la crise et de préparer un modèle alternatif. La solution néolibérale de s'abandonner au régime de marché a aggravé la crise surtout au niveau de la petite et moyenne entreprise.

Euskadi est aujourd'hui un pays en régression économique. Il lui man-

que ses deux grandes ressources d'accumulation: a) les bénéfices industriels qui ont presque disparu; b) la banque qui s'est réfugiée dans le secteur commercial obtenant ainsi des bénéfices gigantesques et faciles.

Pour sortir de la crise il est nécessaire d'établir un contrôle dans le secteur bancaire qui permette de financer la petite et moyenne entreprise. S'abandonner au régime de marché mène Euskadi au suicide.

Résistance face à la crise

Euskadi a peu de chances d'atteindre un succès industriel. Mais même un tel succès ne serait pas une solution pour l'économie du pays. Il faut utiliser d'autres ressorts pour résister à la crise et non pour en sortir. Un changement total de la structure sociale est nécessaire de façon à modifier le désordre actuel dans la production et la consommation.

Voici les lignes maîtresses d'une politique appropriée: 1) Une planification publique qui tienne compte d'une politique de réorganisation dans l'entreprise, de spécialisation et d'appui financier. 2) Une économie qui protège la petite et moyenne entreprise; ce qui attirerait l'investissement privé et étranger. 3) La transformation de l'infrastructure technologique. La reconversion industrielle exige des changements dans la Formation Professionnelle ainsi que dans la recherche technologique.

Les transformations politiques

Cette transformation globale de la société pour faire face à la crise n'est pas possible sans un réajustement des structures sociales et politiques. La droite doit céder de son pouvoir politique dans la société en général et dans les entreprises en particulier. Et cela d'autant plus si, comme jusqu'à présent, elle est incapable de trouver une issue à la crise.

Euskal ekonomiaren egoera eta irteera ahalgarriak

Baleren Bakaikoa

I. — SARRERA GISA

Gaur egun Euskal Ekonomia jasaten ari den egoera larria, ez genuen pentsatzen orain dela hamar bat urte, horrela gertatuko zenik, ezta gutxiago ere. Duela hogeitabost bat urte hasi zen garaperi ekonomikoak, gogor eta tinko jarraitu zuen hirurogeietako bigarren hamarkadaren erdira arte, baina 1975etik aurrera etena sortzen da, aldi berri bat hasten delarik.

Ekonomiaren larritasun hauek sortu aurretik, bazirudien euskaldunok geure memoria historikoa galdua genuela, Lehen Mundu-Gerra amaituta gero igaro genituen urte gogorrek inoiz gertatu ez balira bezala. Orduan ere, urte on batzuk igarota —batipat irabaziak jaso zituztenek, ez hainbeste langileek—, gorriak etorri ziren gure herriarentzat: lan-eskasia, industriaren birmoldaketa, soldaten beherakada, etab.¹. Baina, guzti hau ahaztuta zegoen.

Azken bi hamarkadetan ohituta geunden Gipuzkoako eta Bizkaiko «per capita» errentak es-

tatu guztiko gorenak izaten, bizimaila on baten azalgarrietako bat zelarik². Errenta edo Barne-Produktu Gordinaren (BPG) hazkunde-tasa handienetakoak ere hemen ematen ziren, probintzia aberatsenen eta behartsuenen arteko tartea hedatuz joan zelarik urte horietan. Orain berriz, alderantzizko gauza bat gertatzen hasi da, alegia, hazkunde-tasa beherenak Euskal Herriko probintzietan ematen direla, atzerakada ekonomikoaren adierazgarri bezala, batipat aipatutako bi probintzietan; egoera hau 1975etik aurrera hasten da.

Kapital-metaketa handia ematen da 1955etik 1975era, baina sistema kapitalista berez irrazionala bada ere, Euskal Herrikoa beste toki gehienetakoa baino irrazionalagoa izan da, Estatu barneko sisteman baldintza politiko bereziak zer ikusia izan dutelarik irrazionalkeria horri eusteko. Urte guzti horietan egin ziren inbertsioak, beharrezkoa ez zen sektore eta adar produktiboetan egiteaz kanpo, behar ziren aldaketa teknologikoak ez ziren egiten, produktibitatea oso baxua izanez, atzerriko industriarekin lehiakatzeko. Bestalde, prozesu hau normala da, kontutan edukirik hemengo enpresariak epe laburrera espainiar merkatutan eta ez kanpokoan pentsatzen zutela. Produkzioaren hazkundera lana gehiago erabiliz lortzen zen, ez produktibitatea goratuz. Era honetan, hemengo industria kanpoko merkatuetara irekitzen hasten denean, txarki lehiakatzen da eta merkatu horiek murrizten diren eran gehiegizko produkzioak azaltzen dira zenbait sektoretan, batipat euskal sektore nagusienetan: siderurgia, untzigintza, etab. Egoera horrek mozkin-tasa eror arazi egiten du eta ondorioa inbertsioak desagertzea da.

Euskal Herriko industriak izan duen kapital-metaketa kapitalaren eta lanaren arteko erlazioa handitzeko erabili izan balitz, eta ez zegoen erlazio bera hedatzeko, neurri batetan egin zen bezala, egun jasaten ari garen trauma eramangarriagoa izango litzateke. Baina gauzak horrela egiteak, Euskal Herrirantz gertatu ziren migrazio-mugimenduak txikiagoak eta, beraz, soldatak handiagoak izatea suposatzen zuen, baina hauxe garai hartako kapitalismoaren logikan ezinezkoa zen, hau da, kapitalaren eta lanaren arteko erlazioa goratzea produktibitatea hobetzeko asmoarekin. Gure ustez, metaketa egiten ari zen eran, emeki-emeki industriaren berregiturapenak eginez joan behar zen, atze-

rriko integrazio ekonomikoa kontutan harturik. Baina gauzak beste era batean egiten dira eta munduko merkatuan gehiegizko produkzioa agertu bezain laster, hemengo merkantziak lehiakatu ezinean geratuz joan dira, produkzio-kostuak oso gorak zirelako.

Euskal Ekonomia irrazional honen beste ezaugarri bat zera da, alegia, altzairua produzitzeko ahalmena 5.540 mila toneladakoa dela eta erabiltzen dena %70-75 besterik ez dela, azken urte hauetan behintzat, joera honek jarraituko duela dirudielarik. Produkzio-ahaldmen horretara iristeko erabakia 1974. urte inguruan hartu zen, 1980an estatu barruko kontsumoa 16,5 milioi toneladakoa izango zela aurikusiz; baina plangile haiek oso oker zebiltzan³. Gainera, Euskal Herrian produzitzen zen altzairu gehiena indar elektrikoaren bidez egin behar zen eta oso gutxi «continuous casting» sistemarekin; beraz elektrizitatea generatzeko era berriak aplikatu beharra zegoen: hortik dator kigu zentral nuklearren premia, gainera, kontsumo-lekuetatik gertu. Orduan, Lemoizko zentrala eta garai hartan planifikatu ziren beste batzuk zer ikusirik bazuten altzairuaren produkzio-maila berriekin, eta proiektu hauek aurrera eramateko aurrezkiak era hauetako inbertsioak egiteko zuzendu beharra zegoen, beste adar askotan erabili eta industriaren birmoldaketa hasi ordez.

Oso orokorki esanda, Euskal Herriko produkzio-prozesuan ez dira sartu behar ziren aldaketa teknologikoak, batzutan aurrikuspen motza egon delako, bestetan inbertsio irrazionalak egin direlako. Ondorioz txit nekeza gertatu da kapitalaren balorazioa, adar batzutan behintzat. Behin prozesu zail honetan murgildurik, kapital-metaketa ahuldu egin da eta sektoreek planteatuta daukaten problematika konpontzea ezinezkoa da, zeren eta, nahiz metaketa adar mailan eman, soluziobidea sektore mailan eman behar bait litzateke. Hortik Euskal Ekonomiaren egiturak aldaketa sakonak eduki beharra, munduko sistema ekonomikoak dakarren egoera berrian behar den eran kokatuta egoteko. Aldaketa hauek egin ondoren irabazi-tasa, berrito ere, igo egingo da, inbertsioak erakargarri bihurtuz.

Une guztietan kontuan izan behar dugu, bai orain eta aurrera begira ere berdin, beti, Mendebaleko estatuak baino gutxiago garatuak dauden estatuetan: ohizko sektore ekonomiko batzuk desarrolatzen ariko direla, eta produktu horiekin munduko mer-

katuetan lehiakatuko direla, herri garatuetako teknologia berdintsua erabiliz eta produkzio-kostu txikiagoekin. Sektore hauetan produzitzen diren merkantziek, bereziki, estatu aurreratuetan izaten dituzte beren merkatuak, edozein pagamendu-balantzan ikus daitekeen bezala, eta kanpo-merkataritzarako kontingenteak ez bazaizkie ezartzen saltzeko kopurua mugatuz, merkatuko partaidetza aldatu egiten da, estatu garatuak «galtzen» irteten direlarik, merkantzia horietan behintzat. Joko internazional honen ondorioa ere Euskal Ekonomiaik nozitu du eta hortik zenbait industriak beren merkatuak murriztuta ikustea, batipat siderurgiari lotuta dauden adarretakoak.

Zalantzarik gabe, munduko ekonomia berregiturapen sakon batean murgilduta dago; izan ere, produkzio-prozesu berriak ari dira hedatzen Mendebaleko estatuetan, aurretik hauetan zeudena estatu atzeratuagoetan ezartzen diren bitartean. Eta merkaturen aldaketak produkzioarenak ere ekartzen ditu. Prozesu horretan, Euskal Ekonomia ere bere tokitxoa egiten ari da, baina posizio hobea edo txarragoa egun horren barruan egiten ari diren aldaketen funtzioan egongo da. Aldaketa hauek nahi gabeko ondorioak ekartzen dituzte eta egun pairatzen ari garen krisialdia, bai munduan zeharrekoa, bai Euskal Herrikoa, kapitalismoak bere baitan daukana da eta berriz ere ezagutuko da, kapitalismoa bera ez bada desagertzen behintzat. Halaz ere, beti egokiagoa da gertaerei aurrea hartzea alderantziz izatea baino, eta Euskal Ekonomia azkeneko hau ezagutzen ari da.

Langilearen egoera

Behin baino gehiagotan entzunak eta irakurriak gara krisi ekonomiko honen zio nagusia soldaten igoketan dagoela. Ekonomilari neoliberalek diotenez, langileak eta langileen sindikatuak izan omen dira, petrolioaren krisialdiarekin batera, Mendebaleko ekonomia desorekatu dutenak⁴. Beraz, krisiaren zio eta butzatzailer badira, konpontzeko zama guztia beraien gain jarri beharko da. Eta horrelako zerbait gertatzen ari da momentu honetan, inflazioaren bidez bizimailak erortzen ari bait dira, asko lanpostuetatik at geratzen ari diren bitartean. Bestalde, alokairuen gorakada aztertu bada ere, nolako hazkundera izan duten finantz kostuek

ez da aipatzen; egun enpresen irabaziak diruetxeek irensten dituzte, interes- edo korritu-tasak %20 inguruan bait daude, eta hauek, zuzenki, irabaziak murrizten dituzte.

Krisialdiaren zioak langileengan aurkitzea oso zaila da, baina erraza, ondorioak beraiek pairatzen dituztela baieztatzea. Estatistiketan oinarritzen bagara krisiaren zioak beste era batekoak direla ohartuko gara^o. Egoera hau M. Etxezarretaren ildotik arakutzen badugu, langilearen partaidetza estatuko errenta nazionalan ez dela apenas igo konturatuko gara; bienbitartean, kapitalaren partaidetza erori egiten da 1965etik 1978ra bitartean eta beherakada honen arrazoia Aseguru Soziala eta zenbait zerga igo direla da, lehenaren partaidetza, errenta nazionalan noski, %3,5 zelarik 1965ean eta %11,2 1978an. Eta zerga guztiak kontutan hartzen baditugu, langileen partaidetza erori egiten da eta estatuarena bakarrik goratzen da.

Ildo berari jarraituz, I. Garaialde^o frogatu duena zera da, alegia, langileen bizimailetan beherakada egon dela 1976tik aurrera. Langabezi tasa handitzen den eran, logikoa da, bestalde, lan-eskaintza ugartzea eta horren prezioa erortzea. Era honetan, produkzio-kostuak beheratu egiten dira eta mozkin-tasa zuzpertz, kapitalarentzat inbertsioak erakargarri bihurtuz. Garaialde^o azken hamarkada bitan banatzen du: Francoren azken urteak eta erreforma politikoa hasi aurreko garaia batetik eta gerokoa bestetik. Lehen aldian langileen mugimenduak indar handia dauka eta sistemari ez zaio posible gertatzen irabazi-tasa zuzpertzzea; bai, ordea, bigarren etapan: soldaten hazkunde erreala erori egiten da, irabazi-tasa goratzen hasiz. Joera hau, bestalde, nahikoa logikoa da kontutan edukitzen badugu «erreserbako industri armada» handitu egiten dela aipatutako aldi horretan guztian. Euskal Ekonomiari dagokionez, 1977aren amaieran, ofizialki, %5,2 langile zeuden lanik gabe, eta 1981ean 150 mila inguru aurkitzen dira lanetik at, %15 bat suposatzen duelarik, langile adoregabeak kanpoan utzita gainera. Beraz, Euskal Ekonomian bertan «erreserbako industri armada» hiru bat bider handitzen da, nahitaez, soldatak zapaltzeko indarra delarik. Era honetan joango da irabazi-tasa goratzen eta prozesu honek, badirudi, oraingo hamarkadan ere jarraituko duela.

Irabazi-tasaren gorakuntza horretan zer ikusi handia daukate langileen sindikatuek jokatzeko duten paperagatik. Denontzat eza-gunak dira Moncloako akordioak edo hitzarmenak eta hauen ondorioak aski nabariak izan dira. Geroago egin direnak ere ildo beretik doaz. Paktu horiek sinatuz gero, langileak galduz joan dira bizimailako arlo gehienetan. Alde batetik, inflazioari erasotzeko asmoz soldaten igoerak murriztu egin dira inflazio-tasapetik; gainera, produktibitatearen hazkundera kontutan edukitzeke. Hitz batez, azken bolada honetan langileen erosteko ahalmena eroriz joan da eta beste muturrean mozkin-tasa zuzperduz.

Lanaren merkatuaz mintzatzen ari garelarik, zenbait ohar egin beharra dagoela uste dut merkatu honek ahal den hobekien funtziona dezan:

a) Krisialdia hasiz gero populazio aktiboak beherakada gogor bat izan du Euskal Ekonomian eta ondorio bezala langabezi tasak, itxuraz, errealitatean direnak baino txikiagoak azaltzen dira. Ekonomi politika markatzerakoan, kontutan eduki beharra dago Mendebaleko estatuetako iharduera-tasa; tasa hau, adibidez, Britainia Handian %47 zen 1978an, Frantzia eta Alemanian %42 eta Euskal Herrian %37. Bi urte geroago Euskal Herriko aktibitate-tasa hori %35,9ra erortzen da⁷. Beraz, eginahalak egin behar dira aktibitate-tasa hori Europakoaren parekoa, hots, %42 edo 43koa izan dadin; bestela ekonomi baliabideak desegoki erabilia egongo bait dira, gizarte guztiaren kaltetan. Dirudienez, Estatu Batuetako Eskuin Nagusiaren⁸ helburuetako bat emakumeak etxean uztea da, gizonezkoekin lehian ez daitezen lan-merkatuan. Metodo honen bidez, langabeziaren tasak beheratu egingo lirake, aitzinako bizimoduetara itzuliz, zentzu askotan behintzat. Azkenik, aktibitate-tasak eror ez daitezen (eta gainera lana uzteagatik trauma psikologikorik sor ez dadin), erretiroko adinak malgua izan behar luke. 60 urtekin erretiroa ematea populazio aktiboa kolpe batez murriztea izango litzateke eta ez dirudi horrek oso bidezkoa.

b) Langileen sindikatu eta mugimenduetatik gertu dauden erakunde guztien xedeetako batek lanaren merkatua ahal den garbiena izan dadin saiatzea izan beharko luke eta gogorki jokatzeko arlo honetan. Horretan gobernuak zeregin handia dauka, lantokiak arakatu eta erregelak betetzen ez dituztenak gogor

zigortuz. Lanorduen kontrola serioски eramatea ere beharrezkoa litzateke.

d) Lanorduak gutxitu beharra dago hamarkada honetan, asteen 33-35 bat orduko lana egin behar litzateke. Joera hau zenbait estatutan hor dago, Frantzian adibidez, eta Alemanian ere bai. Ideia hau kutsakorra izan dadin saiatu beharko litzateke; gainera, egin diren estimazioak kontutan hartuta, nahiz lanorduak %10ean gutxitu, produkzioa ez litzateke hainbeste eroriko, produkzioa igotzeko posibilitate guztiak bait daude^o; lanegunak zatituak izan beharrean jarraituak izanik, erraza izango litzateke produktibitatea goratzea, denbora galdu asko suntsituko bait litzateke.

II. — ETORKIZUNARI SO

Errealistak baldin bagara, ez dago ukatzerik, ezta zalantzan jartzerik ere, botere ekonomikoa dutenek interesatzen zaien irteera ekonomikoa ezarriko digutela. Gure gainean zuzenki dauden gobernuek, bestalde, zenbait neurri aplikatu dezakete, baina gehienbat, interes nagusiei atxekita, hau da, multinazionalen onerako. Hala ere, pentsatzen dugu, langileriak alde askotatik presiona dezakeela, abantail batzuk lortuz.

Egunetik egunera errealagoa da industriaren birmoldaketa, bai Euskal Herrian, bai Mendebaleko estatuetan. Birmoldaketaren bidez produkzio-prozesu berriak ezartzen ari dira; merkantzia berrien hedapena ere badago. Joera honen aitzindarritza enpresa multinazionalen daramate, neurri handi batean behintzat. Teknologia eta kapitala hauen esku daude eta beraz, beraiek dira ahalmen handiena daukatenak industriaren birmoldaketa hori egiteko. Enpresa txikiak edo erdi-mailakoak baliabide urriak daukate aldaketa sakonak egiteko, eta egiten badituzte ere, diruetxeen menpean etortzeko arrisku guztiak daukate azken finen. Euskal Herrian ere, salbuespen batzuk kenduz gero, atzerriko kapital industrialek eta finantzarioek daramate birmoldaketaren aitzindarritza, horretarako kapital handiak eta teknologia aurreratuak behar bait dira, muturreko enpresak jartzeko. Euskal Ekonomian egin den kapital-metaketa ez da nahikoa izan al-

daketa sakon horiek egiteko; gainera, oso gaizki erabili izan da orain arte. Beraz, hemengo ahalmen ekonomikoa oso txikia izanik hemendik urte batzuetara atzerriarekiko gure menpetasuna sakonagoa izango da; gainera, enpresa txiki eta erdi-mailako asko desagertuz joango da, kapitala gehiago kontzentratuz.

Behar adina kapital-metaketarik ez dela izan esatean zera ere adierazi nahi da, alegia, teknologia egokirik ez dela garatu eta atzerritik ekarri behar dela. Kapital-metaketa ugariak teknologia berriak garatzen ditu eta hori ez da eman gure herrian, hutsune hori bete nahi bada kanpora joan behar delarik. Siderurgian, papergintzan, autogintzan, etab., kanpoko teknologia erabiltzen da, oraindik erabilgarriak izanik. Baina beste sektore edo adarretako produktibitatea igotzea nahi bada, kanpotik ekarri beharko dira kapital-ondasunak, eta hau kanpoko ekonomiaren mende jartzea izango litzateke.

Halaber, enpresa multinazional hauen ondoan enpresa nazionalak bizitzen jarraituko dute, bai lehendik daudenek bai sortuko diren berriek; baina berriak sortzea egunetik egunera zailagoa gertatuko da. Nazionalak izango direnen artean siderurgia integrala(k) azpimarra daite(z)ke, azkenaldiko joera hortik bait doa; enpresa hauek, produkzio-sistemarentzat oinarritzko diren eta kapitalak ahalik merkeen saldu nahi lituzkeen produktuak egiten dituzte; eta hala ere, nolabaiteko birmoldaketa egingo da lanpostuak urrituz. Mini-siderurgiako enpresek eta kooperatibek (hauek Gipuzkoa aldean puntako teknologia ikertzen eta erabiltzen dute) nazional kutsua izaten jarraituko dute; hala ere, gehiago berezitu beharko dituzte beren produktuak, eta mozkinak gehitu nahi badituzte, langile askok beren lanpostuak galduko dituzte, epe laburrera gainera.

Hau dena horrela izanik, hamarkada hau amaitu baino lehenago, Euskal Ekonomiak urrats handi bat emana izango du internazionalizatzeko prozesuan. Alde batetik, espezializazioak eta eskala-ekonomiak ekartzen dituen neurrian, estatuko merkatuak garrantzi erlatiboa galduko du, kanpokoek gehiagotuko duten bezala. Krisialdi kapitalistatik irteteko, behar-beharrezkoa zaio ekonomiari haztea, eta produkzio-hazkundeak, errealizatzeko, kanpoko merkatuak behar ditu hedatu, lehiakatzeko ahalmena industri birmoldaketak emango diolarik.

Bestalde, kanpoko kapitalak ugaritu egingo dira¹⁰ datorren hamarkadan hemengo botere politikoa gehiago makurtuko delarik atzerritik etorriko diren erabakietara, autonomia ekonomikoa eta politikoa galduz, neurri handi batean behintzat. Kapitalarekin batera kanpoko teknologia ere gehituko da, euskal enpresen konkurrentzialtasuna irmotuz noski; azken finean, eskaintza birkonponduko da, eguneratutako teknologia ezarriaz noski. Kapital hauek erakartzeko gobernuek —erdikoak eta autonomoak— zerikusi handia izango dute, helburu horiek lortzeko erraztasun fiskalak eta beste zenbait laguntza emanez, gaur saiatzan ari diren era berebean.

Eta hirugarren ondorio bezala, produkzioa bera internazionalizatuko zaigu hamarkada honetan. Hau da, produkzio-sistema sare bat bezala hartzen badugu, lerroak goitik behera eta ezker-eskuin doazelarik, sektore ekonomikoak lerroak izanez, eta sektore batetik joan-etorrian dabiltzan produktuak bigarrenak. Kapitalismo helduaren garaia adierazgarri bezala, segmentu produktiboak estatu desberdinetan kokatzeko joera dago eta ildo horretatik jarraituko du hamarkada honetan. Joan zen mendean eta oraingoaren lehen aldian ere bai, siderurgian, adibidez, mea Euskal Herrian jasotzen zen, gero aurrera jarraitzen zuen produkzio-prozesuan azken merkantziara iritsi arte; merkantzia hau, kasu gehienetan gainera, estatu barruko merkaturak kontsumitzen zen. Orain berriz, horrelako barne-prozesuak suntsitzen ari dira eta eskualde edo estatu bakoitzean, prozesu horren zati edo segmentu bat besterik ez da ematen, hurrengo kanpoan egiten delarik. Sare hau munduan zehar hedatzen ari da, estatu gehienak interdependentek izanez, sozialistak ere bai noski.

Euskal Ekonomia ere sare horretan sartuta dago eta bere segmentu ekonomikoak dauzka. Orain, sare hori dinamikoa delarik, lehen zeukan egitura zahartuta geratu zaio eta hortik ekonomia berrikuntzen beharra. Beraz, hierarkia ekonomikoan zeukan postu erlatiboari eustea da garrantzitsua eta industri birmoldaketaren bidez egin daiteke; ondoriorik adierazgarrienetakoa langabezia paregabea izango dela uste dugu, beste zenbait neurri ahalgarri ez bada hartzen behintzat.

Dinamika ekonomiko honek horrela badihardu, hots, Euskal Ekonomia aldi berri honetako dinamika kapitalistari jarraitzen

bazaio, teknologiagatiko langabezia gehitu egingo da, lan-eskaintza ugarituz eta alokairuak behean mantenduz. Beraz, hamarkada honetan «erreserbako industri armada» normalari teknologiagatiko erantsi behar zaio, jende asko produkzio-prozesutik marginatuta geratuz. Hau da, azken finean, ekonomia desarroilista honen ondorioz garrantzitsua¹¹.

Langabeziaren aurkako ekonomi politika

Orain arte eskaintza hobetzeko neurriez aritu gara, eta ez ez dugu ia ezer esan eskariaz. Ez da pentsatu behar, Reagan-en ekonomi politikan sinesten dutenek bezala, eskaintza aldetik jo behar dela bakarrik gaurko problemak konpontzeko, era horretan salmenta-prezioak apalagoak izango direlako balioa errealizatzeko bidea arinduz. Azken finean, ekonomilari hauen pentsamenduak ez dio ezer berririk ekartzen ekonomia politikoari, gauza berbera esaten bait zuen Say-k, duela ia berrehun urte¹². Hemendik aurrera eskaintza-egokitze honen ondorioak ekarriko duen langabezia nola konpon daitekeen ikusten saiatuko gara, kapitalismoaren barruan noski.

Gaur egun Keynes-en ekonomi politika garbia erabiltzea ez da oso bidezkoa. Gobernuaren helburuetako bat inflazioa kontrolpean edukitzea izanik, orain ezagutzen ditugun aurrekontu defizitarioei defizit handiagoa eransten bazaie, gastu publiko handiagoak egiteko eskari globala igotzeko asmoz, inflazio-tasek gorago joko lukete. Bestalde, produkzio-sistemak ez du hobekuntza handirik izango era honetako politika gordin bat erabilita. Agintarien buruetan produkzio-sistemaren efizientzia ere badago, lehenago aipatu den bezala.

Keynesiar ekonomi politikak, azken finean, BPG hazi behar du lanpostuetatik at dauden langileak beren tokietara itzultzeko. Baina, BPGren hazkunderaio so bagaude, berebiziko mirakulu batek gertatu beharko luke, zeren eta lan-merkatuko langabezia gehiena irentsi nahi bada behintzat hazkunde-tasa handiak behar bait dira. Era honetan, oso interesanteak dira I. Garaialdek egin dituen estimazioak¹³, bai Euskal Herrirako, bai estatu mailarako. Estadio hauetan ikusten denez, epe laburrera langabezia

irentsi nahi bada, BPGren hazkunde-tasak urtean %8-10 ingurukoak izan behar dute; eta azken urteotan %1 ingurukoak izan dira, negatiboak izan ez direnean. Beraz, BPGren hazkunderari so egotea langabezia desagertzeko utopikoa litzateke, gauzak daudden bezala ikusita.

Hala ere, Euskal Herrian badaude zenbait arlo Keynes-en politika aplikatzeko, sektore publikoan noski. Aski jakina da zer-nolako ekonomi azpiegitura dagoen eta hori konpontzeko egin behar diren inbertsio publikoak, batipat Bizkaian eta Gipuzkoan; bostehun bat mila milioi pezeta behar omen dira konponketak egiteko arlo honetan. Beraz, arrazoizko epe batean, lanpostu ugari sor daitekeela uste dugu, eta gainera eskari globala handituko denez, posible izango litzateke produkzioari tirada gogor bat ematea. Pentsatu beharra dago, errealistak izanik, Eusko Jaurlaritzaren 1982ko aurrekontua 67 mila milioikoa dela eta beraz, gorago aipatutako defizita betetzeko urte-pilo bat beharko litzatekeela; baina defizit honen erruduna gobernu zentrala da eta berari ere tokatzen zaio inbertsio horietaz jabetzea. Udalek ere asko lagun dezakete horrelako lanetan, lanpostu ugari sortuz, nahiz epe laburrerako izan, gehienetan behintzat, lan hauek.

Deprimituta dagoen beste sektore bat etxagintzarena da. Kri-sialdiak gehientxoena jipoitutako sektorea da momentu honetan eta langabe-pilo bat dago bere lanpostuetatik kanpo. Era honetako eraikuntza bultzatuz siderurgiak ere bere eskaria handituta ikusiko luke, berdin beste gremio askotako produkzioak ere. Eusko Gobernuaren politikak, sektore honetan, bi frontetakoak izan beharko luke: zama fiskalak gutxitu etxagileari, gero prezioen beherakuntza kontrolatuz; bigarrenez, berriz, etxeak erosteko erabiltzen diren maileguei baldintza ekonomiko erosoagoak ezarri, epeen eta korritu-tasen aldetik. Ez litzateke oso egokia izango etxe berriak egiten jarraitzea, urbanismo irrazionalaren ondorioak, bestela ere, nahikoa ordaintzen ari garelako. Orduan, herri bakoitzeko udaletxeak botatzeko eran daudden etxe guztien inbentarioa egin beharko luke eta premia handiena daukatenak bota, berriak eraikitzerakoan arkitektura egokiena gordez. Etxeen barne-erreformak ere oso bidezkoak izan daitezke, kontutan harturik estatu kapitalista modernoetako gazteriaren joera apartamentuetan bakarrik edo ahal den independenteen bizitzea dela;

egun gure herri eta hirietan dauden etxebizitzak handiegiak dira bizi independentea egiteko eta egokitze horretan langile askok parte har dezakete, langabezia zertxobait irentsiz. Neurri hauek Keynes-en ekonomi politikaren barruan egongo lirateke eta sektore pribatuari atxekita gainera.

Ikerkuntzan¹⁴ oso inbertsio urriak egiten dira Euskal Herrian. Gaur egun, Komunitate Autonomoan estatu osoan egiten denaren %0,45 bakarrik egiten da, bertako BPGren zatia estatu osokoaren %6,5 bat izanez. Estatuko BPGren %0,33 besterik ez da gastatzen eginkizun honetan, jende edo tekniko gutxiri lana emanez, merkantzia eta produkzio-prozesu berriak asmatzeko, tekniko jendea «erreserbako industri armadan» sartzen delarik goi mailako ikasketak amaituta gero. Frantzia Mitterrandekin lortu nahi den kopurura iritsi beharko genuke, estatu kapitalista batentzat xede horiek eskuratzea ez bait da inongo utopia. Frantziako gobernu berriaren asmoa BPGren %2,5 inbertitzea da, lanpostu ugariak sortuz; eta ideia berriak erraz aterako direla uste dugu.

Sektore publikoak langabe asko irentsi beharko luke Euskal Herrian. Garaikoetxeak zioenez, 1982ko Eusko Jaurlaritzaren inbertsio publikoen hidez 2.500 bat lanpostu berri sortuko omen dira, baina gobernu honen borondatea ona izan arren, oso zenbaki txikia da, nolako premiak dauden ikusita. Euskaldunok daukagun bizimailarako Aseguru Soziala oso urria da; beraz, Euskal Herriko premiak aztertu ondoren, erakunde hori egokitu egin beharko litzateke, bai egoitzen aldetik, bai bertan lan egiten duten langileen kopuruaren aldetik; ez dago ukatzerik, helburu horiek betetzeko dirua badagoela. Hezkuntzaren arloan irakasle-defizita dago; epe erdira, gaur dagoen ikasle/irakasle erlazioa bikoitz daiteke, 30-35 mila¹⁵ irakasle berriren beharra egongo litzateke, eta langabeziak beherakada ederra izan dezake era honetan. Administrazio publiko guztia ere asko egokitu beharko litzateke, efizientea izatea nahi bada behintzat.

Xede ahalgarri hauek lortzen badira hamarkada honetan, Euskal Industriatik kanpora doazen langile askok, nahiz hauetako zenbait birtziklatu beharrean egon, hirugarren sektore publikoan lanpostuak aurki ditzakete. Industriaren hazkundera ere ahalgarria dela ematen du, nahiz horretarako birmoldaketa eta

laguntza publikoa beharrezkoak izan. Baina beldur naiz helburu hauek betetzea ez dela erraza izanen, zeren eta estatu garatuak azken joera, batipat Reagan eta Thatcher-en aroan sartuta gero, aurrekontu estatalak murriztea bait da, «Welfare state» (ongizatezko gizartea) ospatsua pikutara joateko arriskuan jarriz. Beraz, ez litzateke harriztekoa izango, langileriak alderantzizkoa behartuko ez balu behintzat; defentsarako saila bere aurrekontua goratzen ari da azkenaldi honetan beste guztiak beherantz doazen bitartean, eta honi uko egin behar zaio. Dena dela, azken finean, gizarteko klase desberdinen indarren funtzioan egingo dira aurrekontuen banaketak eta, epe laburrera, badirudi ez dela langileriaren aldekoa izango erlazio hau.

Berrikuntza

Schumpeter-en ustetan Kondratiev-en ziklo ekonomikoarekin zerikusi handia dauka berrikuntza teknologikoak. Zikloaren gorakadak berrikuntzak garatzen direnean ematen dira eta beherakadak, aldiz, berrikuntza hedatuta geratzen denean. Zentzu honetan, Ekonomi Historia aztertzen du eta zenbait lotura aurkitzen. Lehenbiziko gorakadak badu zerikusirik oihalgintzaren garapenarekin eta berrikuntzarekin. Bigarren gorakada trenbideen desarroiloari lotuta dago¹⁶. Hirugarrena, elektrizitateari eta lehertzerapen-motoreei. Laugarrena, egun ezagutzen ditugun berrikuntza guztiei, hedapen-prozesu hau amaitutzat jotzen delarik. Nahiz azaleko lotura hauek egon, ezin dugu onartu teknologi aldakuntza aldagai independente bezala kontsideratzea, zeren eta ziklo ekonomikoak kapital-metaketari lotuta aurkitzen bait dira eta ez bait da nahikoa produkzio-teknika berriak asmatzea; berarek erabiltzea erabaki behar da, irabazien usaina harturik.

Plastikoen eta elektronikaren garapena nahikoa garrantzitsua izan da azken hamarkadan¹⁷, baina produktu honen erabilerak ez dio ekonomiari behar adinako bultzadarik eman, lehenagokoekin konparatzen badugu behintzat. Guztientzat jakina da plastikoak burdina eta altzairua baztertu dituela, arlo askotan; aparatu gehienek ez dituzte balbulak erabiltzen eta hauen ordez erdieroaleak zabaldu dira, aitzinako sistemak irauliz. Jendetza-

ren kontsumorako aparatuak egin dira eta horrek zerikusi handia izan du Mendebaleko estatuen azken aldiko garapenarekin; aparatu hauek plastikoz eta sistema elektronikoz hornituta daudenez, oso nekeza ikusten da horien hedapen berria. Beraz, epe laburrerako aurrikuspenek, alde honetatik behintzat, nahikoa motelak dirudite eta oso zailak Euskal Herrian aplikatzeko.

Ez da nire asmoa inola ere zein produktutan espezializatu behar dugun ikustea, horretarako sortu bait zen IKEI adibidez, eta nik baino argibide gehiago izango duela uste dut. Hala ere, zenbait intuizio azaltzen saiatuko naiz. Ekipo-ondasunak, kontrol numerikoarekin, hobetzen jarraitu behar litzateke, barieta-teak gutxituz eta ahalmen erreala dagoen adarretan espezializatuz. Ekipamendu hauentzat goren kalitateko materialak erabili behar lirateke, bertan egindakoak erabiltzen saiatuz eta sistema elektronikoko sofistikatuak ezarri; era horretan, elektronika industrialak garatzeko posibilitateak sortuko lirateke hemen, Euskal Herrian. Altzairu bereziak ere egiten saiatu behar litzateke, horretarako oinarri egokiak bait dauzkagu.

Komunikabide-sistemak asko gara daitezke nire ustez Europa mailan eta horretarako teknologia aurreratua behar da. Adibidez, telefono-gailuak hobe daitezke ikusteko pantaila ezarri, albisteak hartzekoekin batera; idazkailuei informazioa jasotzeko zintetatik paperean idatzita; telebista kable-sistemaz funtzionatzen duena, etab. Nahiz Euskal Herrirako horrelako ondasunak produzitzea, oraingoz behintzat, utopikoa izan. Baina, une bakoitzean zer produzitu behar den jakiteko, teknologia egokitzeko, etab., ikerkuntzan inbertitu behar da. Hori egiten ez den bitartean atzeratuta jarraituko dugu.

Nekazal sektoreari bultzada bat eman behar zaio, bai baserriez baliatuz, bai kooperatiba gisako enpresak sortuz. Produktu asko lan daiteke Euskal Herrian, gero izozkailuetan gordetzeko, behar diren moldaketak eginda. Era honetan, bertako zenbait ondasun sortu eta hedatzeari ahalgarri deritzagu, elikadura-industria sendo bat garatuz.

Bestalde, ohizko industriek —papergintzak, zurgintzak, untzi-gintzak eta abarrek— tratamendu berezia eduki behar lukete, lanpostu asko jokoan daudenez. Kimika-sektoreak, berriz, gehien-

bat enpresa multinazionalei lotuta dagoenez, ez dut uste inongo arriskurik daukanik atzerritarrekin txarki lehiakatzeko, epe la-burrera behintzat.

B. B.

¹ Garai honetako berri ugari aurki dezakegu honako liburu hauetan: FUSI, J.: *Política obrera en el País Vasco. 1880-1923*, Madrid, Ediciones Turner, 1975; BELTZA: *El nacionalismo vasco, 1876-1936*, Donostia, Txertoa, 1976; LEQUERICA: *La actividad económica de Vizcaya en la vida nacional*, Madrid, Real Academia de Ciencias Morales y Políticas, 1956; OSSA ECHABURU: *Riqueza y poder en la Ría de Bilbao, 1900-1923*, I. eta d. g.

² BANCO DE BILBAO: *Renta Nacional de España y su distribución provincial*, 1971, 1973 eta 1975ekoak. Konparaketak egiteko 1979koa falta zaigu, baina 1977koarekin beharadadak nabarituko ditugu.

³ IKEI: *Reestructuración de la Economía Vasca. Estrategia Industrial. Fase II. Octubre, Noviembre y Diciembre de 1980*, 3. zenbakia siderurgia integralza da eta zenbait argibide ematen saiatzen da etorkizunerako, pro-dukzio-sistema razional dadin.

⁴ SANCHEZ AYUSO eta ANTIÑANO MARURI: *Crisis económica: hechos, política e ideas*, Madrid, Pirámide, 1981. Ikus José Iglesias-en artikulua ere, «La inflación capitalista. En busca de una interpretación», in *Transición*, Abril-Mayo, 1981.

⁵ ETXEZARRETA, M.: *La economía española, 1970-1979*, Barcelona, El Viejo Topo editorial, 1979, 63-72 orr.

⁶ GARAIALDE, I.: «El desempleo como mecanismo de salida de la crisis», in *Información Comercial Española*, 558. zenb. 1980ko Otsailekoa.

⁷ CAJA LABORAL POPULAR: *Informe 1980*, 80. or.

⁸ HUNTER, Allen: «América: la nueva derecha», in *Viejo Topo*, 1981eko Azarokoa, 62. zenb. Artikulu honetan garbi azaltzen da nolako mugimendua sortzen ari den Iparramerikan aintzinako eredu patriarkalera itzultzeko. Bertan, familiaren batasuna eta emakumearen fideltasuna behar-beharrezko balio moralak dira. Espainiako estatuan ere antzeko mugimendua sortu nahi lukete Fraga-k eta honen inguruko zenbait politikok.

⁹ ZUFIAUR, J. M.ª: «Reducción de jornada y empleo», in *Papeles de Economía Española*, 8. zenb., 1981. Ale osoa langabeziaz idatzia dago eta ugetista honen artikulua interesantea dela deritzat, kontutan hartuta, gainera, UGTk horrelako zerbait proposatzen badu, ez dela oso ezker muturrekoa izango lan-denbora gutxitzeko eskaera.

¹⁰ EEEen sartu bezain pronto, europar kapitalak askoz ere bizkorrago etorriko dira Euskal Herrian kokatzera. Egoera berri honek, gehiago lotu araziko gaitu Merkatu Batuko politikari.

¹¹ Ideia honen irrazionalkeria nahikoa ondo agertzen da *El mito del Desarrollo*-n. Liburu honetan zenbait idazle heterodoxok hartu du parte, hala nola: J. Attali-k, Edgar Morin-ek, etab. Pertsonentzat desarrolloak badu helburu bat, gizon/emakume heldua izatea; baina sistema kapitalistarentzat, hazi hazteagatik, besterik ez.

¹² SWEEZY, P.: «Economía de Oferta», in: *Revista Mensual*, Mayo, 1981.

¹³ GARAIALDE, I.: «Langabezia Euskal Herrian», in: JAKIN, 16. zenb. Urria-Abendua, 1980 eta Ignacio Pérez Infante-rekin batera «El paro y la reestructuración de la economía española», in: *Revista Mensual*, 5/6, Diciembre (1978)/Enero (1979).

¹⁴ Xehetasunak Goio Monrealek, GAKen aretoan, 1982ko Urtarrilaren 28an eman zuen hitzalditik jasoak daude.

¹⁵ CAJA LABORAL POPULAR: *Informe 1980*. Estimazioak nireak dira.

¹⁶ Iritzi honen aurkakoak ere badira Iparramerikan eta, bereziki, Estatu Batuei aplikatuz. Adibidez, FOGELEK, *Railroads and American Economic Growth*-en kontrako tesia desarroilatzen du.

¹⁷ Ikus *The Economist* aldizkaria, 1979 (Abendua) / 1980 (Urtarrila), «Into the 1980's», urte-amaierako ale berezia.

SITUACION ACTUAL Y SALIDAS POSIBLES DE LA ECONOMIA VASCA SITUATION ACTUELLE ET POSSIBLES ISSUES DE L'ECONOMIE BASQUE

Los vascos estábamos convencidos, en cierta manera, de que nuestra economía funcionaba de modo excelente y de que no iba a experimentar muchos altibajos. No teníamos memoria histórica suficiente para recordar que después de la Primera Guerra Mundial hubo una fuerte crisis estructural y de adaptación, ni tampoco de las consecuencias de la misma.

Si por propia naturaleza el sistema capitalista es irracional, la especial situación política vivida durante el franquismo en el País Vasco, hizo que la irracionalidad fuera más patente. El capitalismo vasco, protegido por las autoridades del régimen franquista, aun obteniendo beneficios no equiparables a los de otros países occidentales, no fue capaz de prevenir el futuro. Consecuencia de ello ha sido que hasta bien entrado en el período de la crisis económica, nuestro sistema productivo no ha comenzado a adaptarse a las nuevas exigencias que le vienen impuestas desde una perspectiva mundial. En el momento que han querido realizar las mismas, las empresas en su gran mayoría se han visto con excesos de mano de obra, por lo que el paro ha alcanzado y está alcanzando tasas muy peligrosas.

En la economía vasca hay que distinguir dos tipos de empresa: las multinacionales y las que tienen un carácter marcadamente nacional y que son la mayoría de las medianas y pequeñas empresas. Las primeras no han tenido problemas de adaptación, como es lógico. Las segundas, con débil capacidad de autofinanciamiento, son las que tienen que realizar cambios productivos para adaptarse a las nuevas exigencias internacionales; éstas son las que requieren ayudas por parte de los gobiernos central y autonómico para llevar a cabo lo que se conoce por reestructuración industrial.

La tasa de desempleo no parece que vaya a ser reducida de manera ostensible por medio de políticas keynesianas, aunque éstas, al ser apli-

cadras en el País Vasco donde la infraestructura económica es deficitaria, pueden tener relativo éxito, aliviando el paro. También el tercer sector puede absorber elevado número de desocupados.

En cuanto a los productos que se pueden fabricar en el futuro están los derivados del hierro y acero; hay que desarrollar los aceros especiales, obtenidos con tecnología sofisticada y productos de acero como son los tubos sin soldadura, etc.; máquina-herramienta con memorias computarizadas; sistemas de comunicación; productos industriales alimenticios derivados de los obtenidos en la huerta del País Vasco.

Hay que dar prioridad a la investigación, tanto para desarrollar nuevas tecnologías como para estudiar los mercados y productos del futuro. En este campo el gobierno puede impulsar la Economía Vasca, al mismo tiempo que crea nuevos puestos de trabajo para los técnicos que se forman en nuestras universidades.

Les basques, nous étions convaincus, en quelque sorte, que notre économie marchait à la perfection et qu'elle n'allait pas subir beaucoup de hauts et de bas. Nous n'avions pas assez de mémoire historique pour nous souvenir de la crise structurelle et d'adaptation qui a suivi la Première Guerre Mondiale, ni de ses conséquences.

Si de part sa nature le système capitaliste est irrationnel, la situation politique spéciale vécue pendant le franquisme au Pays Basque a fait que l'irrationalité ait été encore plus voyante. Le capitalisme basque, protégé par les autorités du régime franquiste, même en obtenant des bénéfices non comparables à ceux des autres pays occidentaux, n'a pas été capable de prévenir le futur. De ce fait, notre système de production n'a commencé à s'adapter aux nouvelles exigences imposées à partir d'une perspective mondiale qu'une fois la période de crise économique bien avancée. Au moment où les entreprises ont voulu réaliser ces exigences, la plupart d'entre elles se sont retrouvées avec un excédent de main d'oeuvre, ce qui a accru et accroît encore dangereusement le taux de chômage.

Il faut distinguer deux types d'entreprises: les multinationales et celles qui ont un caractère nettement national et qui constituent la grande majorité des moyennes et petites entreprises. Les premières, bien entendu, n'ont pas de problèmes d'adaptation. Les secondes, à faible capacité d'auto-financement sont celles qui doivent réaliser des changements productifs pour s'adapter aux nouvelles exigences internationales; ces dernières sont celles qui requièrent de l'aide de la part du gouvernement central et autonome afin de mener à bien ce que l'on entend par restructuration industrielle.

Il ne semble pas que le taux de chômage puisse décroître ostensiblement en appliquant des mesures keynésiennes, bien que celles-ci puissent avoir un succès relatif en allégeant le chômage au Pays Basque où l'infrastructure économique est déficitaire. D'autre part, le secteur tertiaire peut aussi absorber un nombre élevé de chômeurs.

Quant aux produits qui peuvent être fabriqués dans le futur, on trouve les dérivés du fer et de l'acier; il faut développer la fabrication d'aciers spéciaux obtenus à partir d'une technologie sophistiquée et de produits d'acier comme par exemple les tuyaux sans soudure etc.; des machines-

-outils à tête programmée; des systèmes de communication; des produits industriels alimentaires dérivés de ceux obtenus de la culture maraichère du Pays Basque.

Il faut donner la priorité à la recherche, à la fois pour développer de nouvelles technologies et pour étudier les marchés et les produits du futur. Dans ce domaine le gouvernement peut stimuler l'Economie Basque tout en créant de nouveaux postes de travail pour les techniciens qui sortent de nos universités.

ORAIN ETA HEMEN

GAIK

...HAINBAT ABURU

LIBURUAK



Bat, Bi, Hiru, Lau, Bost-Sei-Zazpi... REAL

Aurten ere, irrintzi eta oihu, pozez lehertu zen Euskadi osoa, Realeko mutilek Liga irabazteagatik. Poz hori zaratatsuagoa izan da, agian, Bartzelonari azken mementoan sartu zion ziriagatik. Zoramen kolektibo horretan nolabait parte hartu ondoren, gogeta pare bat egin gabe ezin gera naiteke.

1. Zein mekanismo arraio da, greziarren olinpiadetatik gaurdaino, ikuslea kirolariekin identifikatzera daraman hori? Areago oraindik, herri oso baten ohorea eta izen ona atleta, jokalaria edo edozein kirolarirekin identifikatzera daraman eragin eta grina hori?

Zenbat eta pobreago, ahulago, azpiratuago eta problema sozial eta politikoz beteago egon herria, orduan eta beroagoa, orokorragoa, bortitzagoa omen identifikapen hori. Seguruenik baieztapen borobilegi horretatik kanpo gelditzen den gertakari ugari bilatzeko ere ez dago urrutira joan beharrik. Baina bestetik ezin esan gezurra denik ere.

Politizazioak egiten duela hori esateak ez du gehiegi laguntzen fenomenoaren ulerpenerako. Eta zenbaitek egiten duen bezala gizarteko gutxiengo dominatzaileak herria distraitu eta loarazteko erabiltzen duen trukoa dela esateak ere ez. Adierazpen arinegi horiek ez dute esplikatzen zergatik kirol zaletasuna erabilgarri eta manciagarri den. Honetarako eta hartarako erabilkearen azpian identifikapen mekanismo bera dago.

Mekanismo horren katramila argitzen diguten bitartean, guk «Aupa Real, aupa Donosti; gora Gipuzkoa, gora Euskadi!» abestuz jarraituko dugu.

2. Ormaetxearen mutil bizkor hauek benetan txalogarriak zaizkigu egin dituzten azio bikainengatik. Baina txalo gehiago joko genizkieke, eta bizikiago mirestuko genituzke, gaurko joko trebetasunarekin batera ikuskizun merkeagoa emango baliot

herriari. Eta merkatzeko, jokalaria merkeagoak behar. Merezimendu askokoak izango dira eta abilak ematen dituzten ostikadak. Baina kobratzen dituzten milioiak ere haundi samarrak iruditzen zaizkigu. Proporziorik gabekoak. Merezimenduak eta jokalarien hanken balioa kontsiderazio guztiz hartuta ere itxuragabeakoak eta neurritz kanpokoak dirudite 90 minutuko ikuskizuna ordaintzeko kobratzen diren dirutzak.

Real Sociedad-en bertako jokalarien harrobia indartzeko politikari ezin zuzenagoa deritzogu. Baina jokalariei buruzko jokabide jator hori bezain politika ekonomiko herritar, apal eta zuzena ikustea gustatuko litzaiguke. Bartzelona eta Madril en urratsak jarraitzen hasi behar al zaizkigu, ba, Real eta beronen jokalariek?

Bertako jokalariei buruzko politikagatik irabazi duten izena eta fama diru kiratsez zikintzea litzateke hori.

Futbol munduko negozio itsusi eta zoroak bere tamainara eramatea ezinbestekoa da. Eta hori aitortzeagatik ez al gaituzte, inozo edo inñuxentetzat, edo biak batera, joko. Gutxiagorekin konformatuko diren jokalariek, klubak eta futbol estrukturalak berriro ere sortuko al dira. Amets egiteko eskubidea behintzat ez digu inork kenduko. Orduan bai; aiseago identifikatuko gara Realarekin. Eta ahots indartsuagoz oihu egingo dugu: Aupa Real!!! ■ *Manolo Pagola*.

Aspaldiko Soljenitsyne berraurkitu dut

Duela doenerdi bat urte modan zegoen Soljenitsyne. A zer arrakasta!: telebistan, egunkarietan, irratieta, mahai-ingurutan, mintzalditan... toki guztietan ageri zen, eta denetan protagonista.

Eta gero, bapatean, desagertu egin zen, erretiratu, arrunt isiltzeraino. Gutxitan dugu gaur haren berririk. (*Mass-media*-en lege gogorra!).

Aurrekoan, Frantziako *L'Express* astekaria erosi nuen. Eta hantxe aurkitu nuen berriz gure Soljenitsyne. Urtean lau artikulu idazteko konpromezua harturik du aldizkari honekin. Irakurri dudana hau, «Ici et maintenant», bigarrena da.

Ikusten dudanez, salakuntzan zapuzki jarraitzen du Alexandre Soljenitsynek. Soviet Batasuneko zapalkuntza, komunismoaren eta totalitarismoaren munstrokeria, eta berauen hedakuntza, eta honen aurrean Mendebalaren inkonzientea, «irribarrea». «Le monde roule à découvert dans l'abîme, mais l'Occident reste tout sourires».

Mendebaleko sistemaren akatsak Soljenitsynek ez ditu orain

ukatzen. Dena den, sistema honi gauza bat ez dio barkatzen, bere «irribarrea», hots, komunismoaren totalismoari ez jazartzea, aurrez aurre ez egitea. Honela hasten du bere artikulua:

«À chaque instant que nous vivons, un pays pour le moins (si se n'est deux ou trois d'un coup) se laisse mordre par les crocs du totalitarisme. Il est ainsi, sans discontinuer, depuis quelques quarante ans. Mais allumez, en Occident, un poste de télévision, feuillotez n'importe quel magazine, n'importe quel journal, et vous ne verrez que sourires florissants, depuis les chefs de gouvernement jusqu'à l'homme de la rue».

(...) Le féroce désir de paraître toujours gai humilie et mine l'humanité».

Bi sistemen aurka dagoenez, hirugarren bide bat proposatzen du Soljenitsynek. «Consolider, loin de grossières combines économiques, les fondements spirituels de la société». Bai, baina kasu! Hori gerora. Hirugarren bidearen bilaketarako ez dugu orain astirik, hain handiak bait dira egungo arriskuak! Bigarren bideari, komunismoari, egin behar zaio gaur fronte. Hona gaurko eginkizuna!

Reagantzox beteriko Mendebala nahiko luke Soljensitynek. ■

Joan Alzibar.

RTVEko 180en gutuna

RTVEko 180 langilek idazki bat izenpetu du, Administrazio Kontseiluko eta kontrole parlamentarioarako batzordearen presidenteei zuzendua. Eta bertan salakuntza gogorrak egin dira. Hona puntu nagusienak:

1. Pluralismorik ezagatik TVEko berriematea ez da objektiboa. Gobernuko jendea eta Administrazioako piztitzarrak gehiegi eta gehiegitan agertzen dira. Alderdiei uzten zaien minututan ez da indar politikoez parlamentuan duten proportziorik errespetatzen.

2. Berriemate horien azken erantzukizuna ez omen da redaktatzaileena. Goitik hitzez hitz idatzita ekartzen omen zaizkie berri asko.

3. Berriemateleei buruzko politikan menpetasuna, esaneko izatea dira bertute nagusiak, ez lanerako gaitasuna eta profesionaltasuna.

4. Berriemate horietan ez da gizarteko giroa isladatzen. Hari eta honi kasu egiten zaie, inolako trabarik gabe. Kezkagarri gerta daitezkeen berriak laburtu, disimulatu eta ezkutatu egiten dira,

erabat ezkututzen ez direnean. Alderantziz, Gobernuaren aldeko berriak puztu eta nabarmendu egiten dira. Teleikuslearen zentzu kritikoa amostu egin nahi da.

5. Estatuko eskualde eta elkarte autonomoen errealitatea ez da batere ezagutzen; eta sarri haien eskabide eta beharren arria bezala erabili ohi da.

Salatu diren puntu hauek ez zaizkigu oso harrigarri gertatzen. Beharbada hain egunerokoak, hain aspaldikoak izanik, ohitu eta jarri egin gara. RTVEN gobernuak daraman manipulazio sistematikoa nabarmenegia da frogara bila hasteko.

Zentralismoaz, berriz, zer esan? Madrilgo gertaera politikoa, hango kirolak, musikak, antzerkiak eta elurrak dira notizia. Beste tokietakoak ez dira jakingarri. Bestetik Madrilgo begiek Espainiara zabaltzen duten Euskal Herriaren irudian ezin dugu geure aurpegia bera ezagutu.

Salaketak ez dira beraz harrigarri. Askotan eta era askotan egin izan dira salakuntzak. PNVk agertu du berriki bere protesta, Robles Piquer-en dimisioa eskatuz. TVERen erantzuna espero zitekeena izan da. Eta jokabide horrek zipozkeria, lotsagabekeria eta bengantza beste izenik ez du merezi.

180 hauen ekintzan harritzekoa, niretzat behintzat, beste hau da: langileek beraiek barrutik salakuntza hori egitea; eta hain era zaratatsuan egin ere. Lehen aldiz gertatu da horrelakorik.

180en protestaren antzeko ekintzarik espero zitekeenik ezin esan. Adibidez, hilabete asko ez dela TVERen urteak zirela eta, TVEko tekniko, artista eta berriemileek antolatuta zuten autobonbo triste, merke, lotsagarri, soportaezin, luzea ikusita gero.

180 izenpetzaileen artean informatiboak lantzen dituzten redaktatzaile eta tekniko asko dago. Azpimarkatzekoa da, batez ere, 60 redaktatzaileen kopuruaren haundia. Informazio lanetan TVEN une honetan diharduten ehuneko oso inportantea bait da. Gainera sona haundiko jendea dago tartean. Beharbada horregatik piztu da TVERen baitan halako eztabaida. Jakina zegoen, Robles Piquer-ek ukatu besterik ezin zezakeen egin. Eta 180en idazkiaren kontra 182 firma bildu ditu.

«Informazio gidatua eta manipulatu» salatzeak ez du esan nahi informazio neutral hipotetiko ametsezko baten sareetan erori behar denik. Gauza jakina da: informazioa beti da gidatua. Gizon korbatadun serio edo sinpatiko, eta emakume lirain bezain apain horien irudi eta ahots atsegina tranpa ezin abilagoa da edozein agintedunentzat, ikusleen konfiantza irabazi eta sinestartazi nahi dena irentsi arazteko. Baina gidatze honek gradu eta era asko ametitzen du. Eta esan beharrik ez dago TVEk neurri ikaragarrian manipulatu duela notizia, eta modurik itsusi eta traketsenean egin ere.

180en gutuna txalogarria da. Eta RTVEko giro ustel eta kirastuan haize garbi pittin bat sartzen utziko duen leiho txiki bat ireki dutela uste dut. Ez al du inork leiho hori ixten asmatuko... ■ *Manolo Pagola.*

Ongi etorri, Tribuna Vasca

Tribuna Vasca jaio da. Zorionez. Zorionak.

Ongietorririk ematea «ofizialki» eskatu ez bazait ere, beste batzuekin batera kalera atera nahi nuke nere ongietorririk abegitsuena emateko.

Biziki poztu nau *Tribuna Vasca*-ren jaiotzak. Eta pozteko arrazoï ugari ditugu.

Ez al da ba poztekoa Euskal Herriko kazetaritzaren lur idor eta elkor honetan kazeta berri baten jaiotza? Haur berri bat sortu zaigu. Itsusia da? Polita da? Bost axola! Gainera, geroak esango du polita ala itsusia den!

Pozten gara, bai, gizarte pluralista baten aldeko garelako. Eta indar sozial jakin baten arazoketa asumi dezakeelako TVK.

Edozein egunkariren jaiotzak pozten bagaitu, are gehiago egunkari hori «independiente, liberal y progresista» denean.

Halere, ohar pare bat pozaren bestaldean.

Bat. Egunkari berri bat sortu da bai, baina, azken JAKINEN tamalgarritzat jotzen den bide beretik: alderdi politiko baten eskutik alegia, kasu honetan PSOErekiko hurbiltasun handiegarekin.

Eta bi. Ikusi dut lehen zenbakia, eta arreta bereziz «edición especial» delakoa. Eta? PSOEk ez du euskal kulturarik aintzat hartzen. Ez artikulu bat euskaraz, ez eta euskal kultur langile baten lankidetzarik. Ez genuen inon euskaltzetasunaren arrastorik ikusi ahal izan. ■ *Joan Altzibar.*

Torturaren kultura

Amaitu berria da Zorroagako Filosofi Fakultateak torturari buruz eraturiko astealdia.

Ez dakit bertan emaniko hitzaldiak argitaratuko diren ala ez. Egunkariren artean EGINek egunero aipamen zabala eman die; hala ere, guztiak batean kaleratzea baliozko izango litzatekeela uste dut.

Dena dela, areto batetan egin den azterketak luzapena behar du; gizarteratu egin behar du. Luzatu eta hedatu egin behar da gure Herrian jasaten den torturaren fenomenoari buruzko gogoeta. Horren inguruan eraiki nahi den —eraiki den— isiltasun-hesia salatu izan da, hain zuzen ere, gehienbat astealdi horretan.

Gogarte horixe luzatzera datoz ondoko lerro hauek...

Alfonso Sastre-k bere hitzaldian jaulkiriko bi hitzok —«*torturaren kultura*», alegia— oso egoki biltzen dutela uste dut astealdian egin den gogartearen funtsa.

Gertakari bat da tortura gure Herrian. Egunerokoa. Behin eta berriro, ia etengabe, astintzen gaituzte horren zipriztinek eta asaldatzen horren garraieiek. Gure inguruan, gure artean, gure aurrean gertatzen ari den fenomeno samina da tortura.

Baina gaitzerdi, azken aldiko edo lehenagoko fenomeno zirkunstantzial hutsa balitz tortura. Torturazaileak baztertuz, Gobernu edo erregimen jakin hori aldatuz, lege batzu ezereztatuz, tortura amaitu eta ezkutatuko balitz, gaitzerdi!

Baina sistema baten barruko metodoa denean tortura, sistemari berari osorik itsatsia, orduan larriagoa eta etsigarriagoa gertatzen da fenomenoak. Mende askotako Mendebaleko zibilizazioari loturik dago tortura. Kultur sistemaren barruko zera sistematikoa bihurtu da historian zehar. Kultura horrek barneratua dauka torturaren elementua. Eta ez da aski horren kontrako legeren bat aldarrikatzea, gizarteko tortura-aztura luzea erazuteko.

Torturaren sustrai historiko eta kultural horiek kontutan hartuz bakarrik antola daiteke horren kontrako burruka egunerokoa eta historikoa: kultur sistema bat aldatzeko burruka. Torturaren kultura!

Kulturazkoa denez, tortura ez dario berez giza naturari. Biolentzia eta tortura ez dira berdindu ez nahasi behar. Indarkeri modu eta metodo bat da tortura, ingurune, asmo eta helburu jakin batzuetarako ezarria. Biolentzia landua da tortura; kultur sistema osoak eskaintzen dituen tresnen bidez landua.

Zibilizazioan eta kultur sisteman (ekonomikoan, sozialean, ideologikoan, politikoan) tortura instituzionaldurik dagoenean, ez da aski instituzio jakin hori erazuten saiatzea; sistema bera aldatu eta irauli beharra dago. Horregatik, torturaren kontrako burrukak berez darama —eraman behar du— hori babesten eta oinarritzen duen sistemaren aurkakoa, benetan orokorra eta koherentea izango bada hura.

Azken mendeotan legez tortura baztertzea lortu baldin bada, lorpen eta garaipen horretaz baliatu beharra dago noski. Aurrenik gure gizartearen barruko kontraizanak salatzeke; izan ere, horrelako legeak ematen baldin baditu ere, sistemaren barruan

bertan aurkitzen dira bestelako elementu legal eta instituzionalak, torturaren kontrako legeak nolabait ezereztatzen dituztenak eta sistemaren zaintzaileek eta eusleek torturaren kontra egiten dituzten gaitzespenak baliogabetzen dituztenak.

Biolentzi mota bat da tortura: biolentzia oso berezia eta landua. Biolentziaren historiaren eta kulturaren barnean ikusi behar da, beraz, torturaren kultura. Zalantzarik gabe, biolentzia osoaren eta mota guztien sustraiak eta elkarrekiko loturak aztertzeraz eramango gintuzke torturaren azterketak. Hala ere, eta Fernando Savater-ek aitortzen zuenez, ez dago biolentzi modu guztiak berdintzerik eta nahasterik. Horixe izango litzateke, hain zuzen, torturaren kulturaren kontrako burrukari bere oinarri sakonenak kentzea. Horretxek ematen dio torturaren kulturari eta sistemari bere barruko kontraizanak estaltzeko bidea. ■
P. Kortabarria.

Karlista eta sozialista

Maiatzaren 9an PSOEk bere *Tribuna Vasca* estreinatu zuen, eta EKak bere «Montejurra 82» ospatu zuen. Eta EKako Zufia jaunak deklarazio batzuk egin zituen *Tribuna Vasca* horretan.

Zufiak zioenez, abertzaletasunetik geroz eta urrutiago daude beraiek. Zeren eta, zer da abertzaletasuna? Zufiaren erantzuna: «fanatismo, intolerancia, egoísmo e insolidaridad».

Nazionalismotik, beraz, geroz eta urrunago. Geroz eta hurbilago, alderantziz, PSOEngandik, zeren eta «ambos partidos propugnamos el socialismo como forma de concebir la sociedad».

Hurbiltze eta urruntze askotxo, ezta? EKArekin lehen harritu ginenok, egia esan, orain ez hainbeste. Zufiarekin gizarte-alternatibak aginte-aulkia behar du inondik ere. ■ Joan Larrinaga.

València: ortografiaren katramila politikoak

Euskal Herrian, eta gure aldizkari honetan bertan, oso gutxi aipatu izan da València-ko kultur eta hizkuntz egoera. Barne-gatazka sinestezina duen hizkuntz egoera. Alderdi-politika egiteko, inon gutxitan bezala darabiltzate han hizkuntza baten (=katalana) barneko nabardura dialektal txikiak. Egia esan, gure batasun-borrorak berak ere txiki gelditzen dira han gertatzen ari denaren ondoan.

Apirilaren 25ean (Almansa-ko guduaren ospaketa) berriz ka-
leratu da arazoa: katalana ala balentziera da hangoen hizkuntza?
Orain ospatzen dira berrogeitamar urte (1932), Castelló-n Fa-
braren ortografi-arauak València-rako onartu zirela. Hori zela
eta, Herrialde Katalan guztietako hizkuntza bat-bera dela eta
batasun hori ezinbestekoa eta kultur- eta nazio-batasunaren adie-
razpena dela aitortzeko bildu dira Herrialde Katalan guztietatik
abertzaleak.

Eztabaida nola erabili eta zenbateraino pozoindu den ikus-
teko, aski da Estatutugaiarekin gertatu dena gogoratzea: Kon-
gresura Gobernu-jendeak berak eramana izanik ere, ez zen onar-
tua gertatu. Orain berriro ere aurrera doa, ez noski politikari-
en bilera, lan eta komeriarik gabe. Estatutugaiaren inguruko hase-
rre-rik latzenak eta eten politikorik nabarmenenak banderaren,
Herrialdearen eta hizkuntzaren izendapen-kontuan sortu dira.
Kafkak deskribatutako izpirituak, inon libre ibiltzekotan, Va-
lència-n dabilta solte.

UCDk eta beronen buruzagia den Abril Martorell-ek gidari-
tza beren eskuan hartu zutenetik, hizkuntzaren arazoa korapilatu
baizik ez da egiten ari. Ezkertiarren demagogia hain sarritan sa-
latzen duten hauek, maisuak, ongi maisuak, suertatu dira de-
magogia horixe egiten. Alderdira botuak erakartzeko tresna apro-
posa da UCDrentzat antikatalanismo linguistikoa: Kataluniaren
kolonialismoa salatzen da, hark València-ren nortasuna itotzeko
duen indarra; baina inoiz gutxitan aipatzen dira nortasun hori
hiltzeko Madriletik eman diren ahaleginak. València-ko Filologi
Fakultateko Dekanoak aitortu duena da abertzaleen buruetan
dagoena: «Gure hizkuntza hau, berea duen textuinguru katala-
netik urrunduta, mende-laurden baten buruan heriotzera emana
egongo litzateke, hartara bere hiztunen eta literaturaren barru-
titik banatua gertatuko bait litzateke. (Joan Oleza).

València-ko linguista eta hizkuntz abertzaleek aurpegi eman
behar diete orain eskuineko alderdiei, haien eskumakila diren
egunkariei, eta boterea eskutan gorde nahi dutenei. València-ko
iciazlego abertzaleari bere herria lapurtu nahi diote: politiko
horiek «Unibertsitatearen, eta oro har intelektualeen eta Valèn-
cia-ko Herrialdeko kulturaren deskreditua bilatzen dute, gure
gizartearen faxistapena lortzeko lehen urrats bezala». Intelektua-
len eta herriaren artean haustura hori gerta ez dadin antolatu
dira Castelló-ko Arauen ospaketak.

València-n sinbolikoa bilakatu da ortografia: Hezkuntz Kon-
tseilaritzaren proiektu kulturala, ala hezkuntzaren letra-gizonek
eskaintzen duten mendez mendeko tradizio heldua? ■ *Joseba
Intxausti.*

Kazetari txartela adierazpen askatasunaren aurka

Gure lurralde bedeinkatu honetan kazetari gisa lan egiteko ere karneta behar da. Unibertsitate titulu eta guzti, gainera. Eta askori ebidente iruditzen zaio, eta horiek harritu egiten dira kazetaritzaren eta tituluaren lotura hori auzitan jarriz gero.

Luis María Ansón jaunari ere ebidente iruditzen zaio karnetaren premia. Bestela, enpresen edo, okerrago dena, sindikatuen pentzura geldituko omen litzateke kazetaritza. Ansón dixit.

(Ansón hau, gure zoritxarrerako, ez da edozein. Espainiako «Federación de Asociaciones de Prensa» delakoaren lehendakari da, eta EFE berri-agentziaren Administrazio-Kontseilukoa).

Ansón, ordea, bakarrik gelditu da eritzi honetan IPIk (Nazioarteko Prentsa Institutuak) Madrilen, maiatzaren 10ean hasita ospatu duen 31. Biltzarrean. Ondoko eritzi honetan bat etorri bait da Biltzar osoa (Ansón salbu, noski): Estatuari zein bestelako instantzia bati kazetal lanbidearen egikaritzea errekonozitzeak zera esan nahi du, alegia, kontrol interesatuaren posibilitatea beraien eskutan uztea eta hori adierazpen librearen aurka joan daiteke. Erizkera berbera agertu zuen *El País* egunkariko zuzendariak, Juan Luis Cebrián-ek. Karnet ofizialaren esigentzia aurreko erregimenak prentsaren gain izan zuen kontrol-bide bat da. Orain, demokrazian bagaude, ez da posible era berean jarraitzea. Ildo berekoa da atzerriko zenbait hizlariaren eritzia, Estatuak edota profesionalek beraiek, karnetaren bidez edo tituluaren bidez kazetari-lanerako baimena ematearen desegokitasuna azpimarratu bait dute.

Gutziz bat nator neu ere eritzi hauekin. Zentzugabekeria iruditzen zait, prentsan lan egiteko, kazetal tituluaren behar hori, eta ez gutxiago titulu unibertsitarioaren planteoa. Karnetaren esigentzia hori kontrola besterik ez da, Estatuarena bate-tik (lehen eta orain), eta, batez ere gaur egun, kazetari-elkar-teen talde-interesena. Aitortu nahi ez den izen ezagun bat du horrek: korporatibismoa. Horixe.

Enpresen eta sindikatuen beldur da Ansón. Bego. Baina ez diot nik beldur gutxiago Estatuaren interbentzioari eta kazeta-rien Elkartearen korporazio-izpirituari.

Euskal kazetak, 1976an oraingo egitura berri normalizatu hau hartu zutenetik, kazetaritzaren egoeraren biktimia dira. Euskal tituludunen eskasia nabarmena izan da, besteak beste. Egiazko orduan hil-ala-biziko arazo larririk ez sortu izanak ez du adierazten problemarik ez dagoenik egon. Zenbait kazetariren titulu-prestamoak «salbatu» du egoera. Baina hona kontradikzioa:

zuzendari horietako batzuk jakin ere ez dakite euskaraz, eta kasurik onenean, jakinda ere, alegia, ez dute kazetari bezala organo horretan lanik egiten. Sasisoluzioa, beraz. Kasu horretan-txe daude, gaur bertan, *Argia*, *Anaitasuna* eta *JAKIN* bera.

Zer egin egoera atipiko honetatik ganoraz irteteko? Bietako bat: tituluaren beharra kendu, edota, bestela, aldizkarietako langile zenbaiti (behar diren kontrol eta garantiekin, noski) karneta eman.

Ni neu, egia esan, IPIren 31. Biltzar honetan nagusitu den kritziaren aldekoa naiz osoki: karnetaren esigentzia kendu. Baina, lurralde autonomiko honetan horraino iristerik ez badugu, besterik ezean, bigarren bide hori proposatuko nuke, hots, euskal kazetaritza tertzioz eramateko behar diren adina karnet eman. Aginteak aintzat hartuko ahal du idarokizun hau! ■ *Joan Mari Torrealdai.*

UZEI auzitan edo normalizazio bideak auzitan

Joxe Azurmendi

Muga, 21-12-1981, Mitxelenaren artikulu sonatu bat agertu zen, eztabaida luze bati hasiera emanaz. Hona hemen zenbait ohar.

1. — Literatura, kritika

1.1. Hemendik urte batzuetara, sortu dituen istiluengatik batik-bat, baina trajektoria batetan kokatzen delako ere, Mitxelenaren beste batzuekin batera aztertuko da artikulu hau.

Hamar urtetik hamar urtera, izan ere, Mitxelenak baditu saio batzuk, nahikoa inportanteak izan direnak euskal literaturaren gerra ondoko desarroiloan:

- 1951, *Euskal literaturaren etorkizuna*, «euskara kaltetatu» eslogan famatua oinarrituko zuena; seinala-garriagoa, nire ustez, gerra ondoko literaturak barnean —erbestearekin kontrastean— eramango dituen linea nagusiak markatzen zituelako.
- 1960, *Asaba zaharren baratza*, bizkunde literario berria aztertuz: gazteen izpiritu kritikoa, etab., garbi/mordoilo arazoa bereziki. Hein batetan, gerra aurreko «garbikeria» bidearen azkena signifika dezake, bide berriaren finkapena behintzat.

- 1970, *Pro Domo*: euskararen batasunaz. Hirurok lan kritikoak dira, aportazio arras positiboak halere, gerra ondoko desarroiaren hiru momentu nagusiak markatzen dituzte. Laguntza eta gida onak izan dira be-lunaldi gazteentzat.
- 1981: kritikoa, nik aportazio positiborik batere gabe aurkitzen dudana, ez gida eta ez lagungarri, bai nahaskarri, *Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia* izan da (*Muga*, 21-12-1981): mila gauzari buruz eta euskararen normalizazioaz.

Artikulu honek hobe zuen ez irten argitara. Mesederik ba-tere ez diote egin, ez argitara dionak eta ez argitaratzera ani-matu duenak. Adiskideak horretarako edukitzen dira.

1.2. Uste dudanez, Mitxelena, ez informazio-mailan eta ez reflexio-mailan egiaz menderatzen zituen arazoetan sartu da, — nahastu, hobe.

Lehenengo, gaian sartu ez nahita edo ezinda bezala inguru-minguru ibili ondoren han eta hemen, eta UZEI erasotzera bi-dean, egoera literarioari ematen zaio erre-paso bat. Pobrea, txarra baino gehiago. Gogorra. Topikoak, betegarriak. Mila tokitan errepikatu izan diren leku komunak, mila aldiz zuzendu izan diren okerrak berriro (CAPEko hitzaldian esan zuenez, prosa baino poesia *gehiago* ere idazten omen da oraino!). Edo Mitxe-lenari lehendik beste leku askotan irakurrita dauzkagun gauzak: Mokoroaren anekdota, «ostia» esanez gero literatura egin uste omen duten gaxteen kontuak (hitzaldikoa), irakurleen axolaga-bekeria, etab. Azkeneko hau, esate baterako, korrientea Mitxe-lenaren rezensioetan, 50. urteetan hasita. Entzun izan dituenetatik bakarrik ari balitz bezala. Urrutiko kanpaien oihartzun ma-ketsak. Ezer berri gutxi, mingarri asko.

Ze, bestela, Mitxelena zorrotza izan da, inor ez bezala. Obser-bazio benetan originalak eta harrigarriak egiten daki, gaiari berak dakien bezala heldu dionean. Zorroztasuna du, hain zuzen, bere dohain partikularrenetako bat. Zorroztasun intelektuala, alegia, ez tenperamental (lehenengoa gabe bigarrena ikusten bait da hemen). Urteetan horixe miretsi diogu eta horrexek eraman gaitu —ni behintzat— nolabait haren ikasle sentitzera eta haren etengabeko irakurle izatera. Horrela da eta ez daukat zergatik ezkutatu. Orain ez dut esango kamuts agertu denik: bere egiaz-ko aizkora eta egurra hartu ere ez dituela egin, esango nuke. Porra batekin egin du lana. Bere egiazko gaira bidean, han eta

hemen porrazo batzuk eman ditu, literaturari, kritikari, eta bere egiazko Navas de Tolosa UZEIn aurkitu du.

1.2.1. *Kritikari* ematen dion tratamendua penagarria da.

Badabilta hemen batzuk, ez dakit Mitxelena kritikatzeko dituen adulataileetakoak ala zer, garai bateko kritikaren bikaina, ugaria, etab. goratuz (*Egan*), oraingoaren eskasari alderatuz; problema faltseatuz, egia esateko.

Kantitateak oso erraz konpara litezke: aski da numeroak atez atez. Orain, kritikan, orduan baino firma gehiago, artikuluko gehiago eta letra-masa gehiago daukagu (zer kritikatu gehiago ere). Gezur hutsa da, beraz, kritikarik *ez dagoela*. Egon ere agian ez dago, egon behar lukeenaren aldean; baina beste edonoz eduki dugunaren aldean bai, badago, eta ez gutxiago, esaten denaren kontra. Egon, inoiz baino dextente gehiago dago.

Kalitatea beste gauza bat da. Baina nire inpresioa da, hor ere faltseatu egiten dela, «iragan denborak» loriatzeagatik. Lehenengo, Mitxelena (kritiko literarioa) bat da eta lehen ere bat zen. 1960 aldera Mitxelena geneukan, *kritiko* bat; baina *kritika*, zer *kritika* geneukan (Mitxelena aparte)? Suerte piska batekin beti da posible Matxinbentatik munduko biolinista hoberena ateratzea, Yehudi Menuhim bera baino askoz hobe: horregatik ez daukagu esaterik, Euskal Herria musikan eta bereziki biolin musikaren kultiboan oso ondo dabilenik. Nik ez dut uste 1960 edo aldera euskal *kritika* hobe zebilenik orain baino.

Gero, Mitxelena ere denetik zeukan: *kritika* onak, ez hain onak, oso konbentzionalak, orain ere mila egiten diren modukoak (eta halaxe izan behar, edozein huskeriatxo reseinatu beharra bait zegoen: klasiko bat, eta gero bederatzirenen bat) eta batzuk monumentalak, historikoak. Ez diot nik Mitxelena kritikari ezer kendu nahi (are gutxiago, nik neuk zenbat zor diodan ondo dakidala). Baina, hirugarren, bereizi beharra dago: orduan beste fase batetan zebilen euskal literatura. Kritikak ere beste funtzio bat zeukan, egin ere beste modu batetan egiten zen (aldera, esaterako, *Leturiaren egunkari ezkutua*-ri kritikak orduan ematen zion trataera eta oraingo kritikak ematen diona). Ez zen kasualitatea izan, justu gure hizkuntzalari hoberena izateagatik kritikari hoberena.

Orain, ordea, produkzio literarioan bertan beste problematika bat dabil: beste modu batetan planteatzen da *kritika* ere. Orduko *kritika*-modua ondo zegoen orduan: nik ez dakit orain asko balioko ote lukeen.

Bere historia du horrek. Textu gehiagoren bila joan gabe, Ibon Sarasolak (1971) berak esaten zuen, ordura artean obra literarioen «estudio literarioa, estudio linguistikoa egiten zuten hizkuntzalari eta euskalzale berberak egiten zute[la], berez ez zegokien eginkizun batetan sartzen zirelarik. Honen ondorioz ez du euskal literaturak gaurdeino sail autonomo bat osatu eta estudio literarioetan neurritz gaineko garrantzi bat eman zaie faktore linguistikoei. Bestalde, literaturaz kanpoko aurreritzi eta ikuspegiek areagotu egin dute euskal literaturak pairatu izan duen desitxuratzea».

Nik ez dakit kritika espezifikoki literarioaren arazoa inoiz lehenago planteatu eta landu izan ote den gaur bezala. Ez dut uste. Eta bai bait dira bide horretatik ahaleginak egiten ari direnak, ez beti gaizki, eta beren izen eta deitura propioak bait dituzte, Mitxelenaren artikuluan oraingo kritikari buruz orokorki esaten eta isiltzen direnek, eta besteren batzuei haren aurretik zein ondotik entzun behar izaten dizkiegun gauza berberen errepikapen topikoek, ez diote inola ere justizia egiten momentu honetako kritika-munduari. Kritika-alorrean orain dagoen interresgarrienari, kasurik ere ez dio egin. Egiatzko arazoan eta egiaz interesatzen diren kritika-saioen arras kanpotik geratzen dira Mitxelenaren obserbazioak.

1.2.2. Beste hainbeste esan liteke *prosa/poesia* arazoaz. Poesia hobea izango da beharbada prosa baino. Ez dakit. Momentu honetan saio eta ahalegin interesgarririk inon egiten bada, halere, prosan da, ez poesian. Merezki zuen atentzio —kritiko, noski— piska bat gehiago. Eta hain zuzen badakigulako Mitxelenak hori egin dezakeela, oso ondo egin ere, horretara jartzen bada, artikulua bedekatu honek haren lanaren barruan arras desmerezitzen duela, salatu behar. Eta, oro har, gauden momentu literarioaren balantze ezin pobregoa eman digula.

2. — UZEI

Ez dakit zergatik muntatu nahi izan den apropos eskandalo hau.

Dena dela, tontakeria bat da, orain UZEI kritikatzetik ez dagoela, problemak agerian eta kritikoki planteatzetik ez dagoela herri honetan, eta horrelakoekin etortzea. Eraso bat egin da, itxuragabeko eraso: Mitxelenaren hitzaldia CAPen, irratiko interbentzioa gero, berriro irratian Mitxelena, geroxeago Sarasola

berriro irratian, egun gutxiren barruan akumulaturik dena, eta *Muga*-ko artikulua segituan, *Deia*-k eraman duen jokabidea azkenik. Erreakzioa gogorra izan bada, ez da izan espero zitekeena besterik. Utz ditzagun hipokresiak: zertarako probokatu nahi zen eskandalo hori?

Eztabaida honek ondorio latzak izango ditu bat baino gehiagoren bizitzetan. Gauzak ez dira berriz lehen zirenak izango gure artean. Egongo ziren arrazoiak, horrelaxe jokatzeko. Ezin esango dugu, halere, arrazoi horiek inon oso garbi eman zaizkigunik.

Aitortzen dut, ez dela helburu edo asmo horiei buruz bakarrik, gauza haundirik argitzen ez naizela. Konkreтуago: azkenean ez dakit eta ezin dut ikusi zein den UZEIri buruz Mitxelenaren posizioa zehatz eta mehatz. Erakunde gisa: ez dakit lan-talde txalogarri eta laguntza merezigarritzat ote daukan, oro har, ala presio-talde beldurgarritzat, botere-grinaz beteriko mafiatzat, zerbaitek edo norbaitek lehenbailehen geldiarazi eta lotu beharra daukana. Haren lanak: ez dakit «un gran acierto de conjunto, como basados en un buen conocimiento de la lengua» cpaitzen ote dituen, ala «chapuza apresurada» modukotzat daukan, kapritxoa eta gustu subjektiboa beste oinarri gabe. UZEIren natura eta helburuez: ni ez naiz argitzen, eta ez dut uste UZEI artikulua honen bidez ezagun dezan inor hobeto argituko zenik (artikuluaren irakurleak ez dauka euskara jakin beharrik, UZEIko lanak irakurtzeko beharko duen bezala), negozio bat ote den, euskal kulturaren sartuta, propio dirua (eta boterea) irabazteko asmoz, ala kultur elkarte bat lehen-lehenik, nahiz dirua ere behar izan gero, biziko bada. Azken finean ez dakit Mitxelenak zehazki zer proposatuko ligukeen bere alternatiba gisa: UZEIren aktibitate oro geldiaraz dadila derrefente, ala lehenbailehen sor daitezela beste bi, hiru UZEI gehiago. Aukenaren denetarako adina testu eta sujerentzia dago textuetan. Textuetan, alegia, ez bait dut ezer egiten «artikuluaren izpiritua» esplikatua nahirik datorkidan hirugarren baten explikazioekin, batez ere «izpiritu» hori berak asmatua denean, textutik oso urruti. Textuaren izpiritua textuan bertan egoten da. Eta ni behintzat ez nintzateke ausartuko pentsatzen, Mitxelenak ez dakiela esan nahi duena esaten, hark «esan nahi zuena» nik hobeto esango dudala.

Beharrezkotzat jotzen ote diren ere ez dakit UZEIko lanak: Sarasolari ez zaizkio hain premiazkoak iruditzen oraingo; Mi-

txelena, oker ez banago, agudo erantzun beharrezko eske haundi eta larriaz mintzo da.

UZEIn, zer duda, ez da beste munduko gauzarik egiten (ezagutzen ditugu geure eskasiak horko lankideok: baina umezeria da, UZEIko hiztegiak orain munduan ez dakit nongo beste lan teknikoekin konparatzen eta ibiltzea: zer dira, ba, beste mundukorik, euskal Gobernu eta Gobernu horretako Ministrariak, banan-banan, Euskaltzaindia eta euskaltzainak, euskal nobela eta nobelistak, poesia, prentsa, periodistak, Filologia Fakultatea? Norako egin dira, ba, UZEIko hiztegiak?). Kritikak ondo daude, gutxienez kritika direnean. Kritikarik ez direnean, fantasiak baino, ez ondo eta ez gaizki daude kritika gisa; beste zerbait bezala egongo dira ondo ala gaizki.

Natorren Mitxelenarenera. Zer elkarrizketa- edo informazio-modu egon da erasoaren aurretik?

Aurrena textuak egin behar omen dira, gero hiztegiak. Ados erabat. Baina textugintza-experientziak eginez hain zuzen erabaki zen UZEIko «textu hiztegien» tankera, textugintzan aurkitzen ziren problemen soluziobide bezala. Orain bertan horixe bait da hiztegi bat egiteko prozesuan lehen-lehenengoa: artikulua nagusiak edo textua. Inpresioa daukat Mitxelenak eta Sarasolak hiztegien aurretik egin ziren experientzien, erabili ziren eztabaiden, eta azkenean formula honetara jotzeko arrazoien oso berri gutxi ote duten, tarteren makina bat jende ibili bazen ere. Aurretik urteetako eskarmentua dago, ordea, nolabaiteko textugintzan hain zuzen: *Jakin*-en (eta konplexu oso sinplea da), *Elhuyar*-en, UEUn, EKTetan, itzulpenetan (Xalbador Garmendiaren *Lurraren kondaira* bakarrik aipatuko dut), tesi saioan (Ramon Garateren *Lanaren antropologia* bakarrik aipatuko dut), ikastoletan, eliz ikastetxeetan (*Natur Zientziak* hiztegiaren aurretik, adibidez, Donostiako Seminarioan eta Jesus Altunaren ardurapean, biologiako apunteak euskaraz egiten ziren), etab., etab. Hiztegietan ez da inor hasi textugintzan aurretik makina bat saiatu gabe. Eta textuaren aurretik joan beharra ezagutu delakoxe hartu da Hiztegien tankera horixe, artikulua nagusien inguruan hiztegi guztia artikulatuz.

Berdin, lehenengo Autore zaharretatik eta textu idatzietatik hitzak bildu behar omen direla. Jakina, ba! Ba al dakite, Mitxelenak eta Sarasolak, eta Knör-ek, «kultur hitz» horien bilketa 1957an hasi zela, Donostiako Seminarioan hori ere (hogeita bost urte duela, hortakotz), Euskal Herriko Seminario guz-

tiak elkartu zitzaizkiela gero, fitxategia Arantzazun gordetzen zela? *Elhuyar*-ekoek beren aldetik zenbat bildu zituzten, UZEIk berak zenbat gehiago bildu dituen gero, etab., ikus bedi otsailaren 21eko *Deia*-n eta *Egin*-en. 160 mila fitxatetik gora bildu badira, konforme, ez da aski izango, baina gizalege oso gutxi da, salaketak ezer bildu ez balitz bezala egitea publikoan.

Mitxelena besterik uste badu ere, errua neurea izan zitekeela, hainbeste gauza ezin ulertzeko, ez nintzen geratu pentsatu gabe, ez. Egia da, neure apaltasun guztiarekin ere arrazoa ez nuela hainbeste neure ignorantzia edo inteligentzi faltan suposatzen, Ibarzabalek nonbait hobeto ikusi duen bezala. Informazio-faltan suposatzen nuen. Neurean eta Mitxelena baitan ere (orduak eta orain) suposatzen nuen informazio-faltan. Larritu ninduen, beraz, pentsatzeak, euskal mundua hain txikia izanik ere, elkarren berri baino susmo txar gehiago ez ote genuen. Inpresio hori gero eta areagotu egin zait eztabaida luzatu ala. Mitxelenaren konbinazioetan UEU eta UZEI eta *Jakin* eta *Elhuyar* eta, nola nahasten diren, esaterako, nahiko kezagarria da niretzat. Edo Knöer-ek, UZEIko lankidea izanik, nola esan dezakeen lasai-lasai, «hiztegien husketa eta hitzen bilketa» egin gabe ari dela UZEI, etab. Edo nola esan litekeen, behin erabilitako hitzen zuzenketarik ez dagoela.

Objekzio orokor askori («presaka» egiten omen dira gauzak, etab.) modu desberdinetan erantzun zaie: objekzio horrek berdin balioko zukeela euskararen batasuna ez egiteko, etab. Nik neuk hor ere ez dakit horrelako objekzio-moduei erantzuterik ba ote dagoen eta merezi ote duen erantzuten saiatzeak. Hain erlatiboak dira —hain subjektiboak azkenean— horrelako eragozpenak. Batek baino gehiagok gogoratuko zuen harako Mitxelenaren beste ateraldi hura: «Declaraciones como las del Padre Larzabal, diciendo que el euskera unificado es una cosa que se hará con el tiempo... son deplorables. *Si ellos no tienen prisa, nosotros sí la tenemos*». (Orain, ordea, oso Larzabalen moduko proposapena egiten du Sarasolak!). Askok uste du, ordea, batasuna ez zela normalizazioaren lehen urratsa besterik izan. Eta lehen urratsak presa bazuen, hurrengoek ere presa dutela. Eta hurrengo horiek ez direla emango (68ko Arantzazuren aurretik 64eko Baiona dagoen moduan), zerbaitek edo norbaitek bidea urratzen ez badu.

Horregatik dira hain harrigarriak Mitxelenaren oraingo arrazoiak asko: objekzio horiei erantzunak, Mitxelena estudiatu dugun zenbaiten ustez, haren izkribuetan daudelako ederki asko

emanda. Presaren arazoari, adibidez. Edo «garantiak» abstraktuki eskatzeak zentzurik ez duela, eskatzen dituenak berak aurretik garantiaren bere ustezko neurriak azaltzen ez baditu: bestela garantiaren kontua arras erlatiboa bait da, eskatzen dituenetik eta dituenaren exigentzietatik dagoelako. Horiek, aldiz, exigentzi modu desberdinak ezezik, kontrarioak ere izan litezke. Maiz halaxe dira Euskal Herrian.

3. — Erdakeria, espainolkeria

Berriro aitortzen dut, Mitxelenaren artikuluan nik zailtasun haundiak aurkitu ditudala. Beharbada nik neukan Mitxelenaren ideia goitik behera zetorkidalako. Eta, edozeinek bezala, nik ere ez nituelako nere eskemak bestegabe abandonatu nahi.

Nekeak ez ziren subjektibo hutsak halere. Zailtasunak, textukoak dira batzuk (eta ni textuari nagokio, ez «izpirituei»), textuingurukoak zenbait, eta artikulua hau Mitxelenaren lehenagoko produkzioarekin uztartu nahi izatetik sortzen direnak ez gutxi. Mitxelenaren behialako zenbait testu aipatzeak ez dauka beste arrazoirik.

Bestetik Mitxelenaren artikuluko arrazoipideetan bereizi beharra dago diskurtsuaren maila desberdinak: politikoa, ekonomiko-finantzaria, pertsonal edo pertsonalizatua, sozio-linguistikoa eta propoki linguistikoa. Linguistikora mugatuko naiz orain. Besteez hobe dugu ixildu.

Linguistikoan ere, ordea, ohar orokorrak daude alde batetik (presa, orga idien aitzinean, etab.), adibide konkretuak bestetik. Ohar orokorren zentzu exaktoa jakin nahi bada, izpirituetan aditua ez denak behintzat, adibideetan orientatu beste erremediorik ez dauka. Nik ez dut beste hermeneutikarik ezagutzen. Hau da, alde batetik «llevamos camino de convertir al euskera en lengua *exonormativa*», etab. bezalakoak daude, guztiz orokorrak (euskararen alorrean edonolako «garbizaleek» mila aldiz esanak, modu batetan ala bestetan; eta alemanari buruz ere, esate baterako, berdín-berdín Schopenhauer-ek eta esanak). Gogoan hartu beharrezko abisuak dira zalantza gabe. Zein neurritan diren kritika zinezko bat, halere, ez da erraza jakitea (ea non daukan euskarak arrisku gabeko desarroilo eta normalizazio biderik!). Dena dela, horrelakoak euskarari buruz hain ikuspide desberdinetatik esan ahal badaitezke, eta alemanaz ere esan ahal izan badira halaber, zehaztu beharra egongo da kasu konkretu hone-

tako zentzu konkretua: eta horretarako adibide konkretuak dau-
de. Bestetik, abisuok, abisu bezala eta bere orokortasunean,
UZEIri bezalaxe egin ahal izango genizkioko, adibide bat jar-
tzeko, prosa literario berriari esate baterako. Oker ez banago,
egina bait du Mitxelenak. Edo euskal prentsari, etab., edozer-
tsuri. Hain zuzen Mitxelenaren kritika propioki linguistikoa (eta
autoritate moral eta zientifikoaren arabera hauxe luke bere pro-
pioena) nola ez den egiaz UZEIren kritikarik, baina *de facto* ia
euskal kultur mundu osoarena, kritikaturiko adibide konkretue-
tan ageri da nabar-nabarmen. Eta ez dut hori esaten, UEUko
bileraren batetan gertatu omen zitzaionak Fernandoren gramati-
kak, etab., UZEIrekin oso zerikusi gutxi duelako berez. Gehiago
dago.

Hona hemen hitzez-hitz Mitxelenak bere interbentzio desber-
dinetan kritikatu dituen adibideak: *bide ebakia* (1), *zentzu* (2),
energia (3), *hegal/hegatx* (4/5), *klitxe* (6) *aparkaleku* (7).

- *zentzu*: Euskaltzaindiarena omen da, UZEIrena baino
lehenago (ik. F. Mendizabal, «Mitxelenari ohar bat», in:
Deia, 1982-1-27).
- *hegal/hegats* bereizketa, alde batetik, eta
- *energia*, bestetik, arruntak dira ikastoletan: ikastoletan,
ordea, Euskaltzaindiak, eta UZEIrik egon baino dextente
lehenago, onartu zituelako, sartuak bide dira: ik. *Zortzi
urte arteko ikastola hiztegia*, 1975. Hiztegi hau Euskal-
tzaindiak finkatua da eta, hitzaurrean espreski adierazten
denez, dudazko puntuetan Mitxelenari uzten zitzaion era-
bakia. (Beraz, harrigarriak dira orain Mitxelenaren bur-
lak UZEIri, edo Fernando Mendizabali, Mitxelenari berari
eta Euskaltzaindiari kasu egiteagatixe hain zuzen!).
- *klitxe* (*klixe* ordez): arrunt erabilia modu horretan hegoal-
deko prentsan nahiz liburuetan. Zer esanik ez mintzaira
arruntean. Horrelaxe, orobat, Kintanaren, L. M. Muxika-
ren hiztegietan ere. Bestalde Euskaltzaindiak *chocolate/
txokolate*, etc. onartuak ditu.
- *aparkaleku* (*aparkatu*, etab.): arrunt erabilia orobat, eta
Euskaltzaindiak onartua orobat: ik. «Merkatalgo Izen-
degia», in: *Eusker*a, XVIII, 1973, 223. Ikastoletan ere
jeneraldia, ik. Irakasle Elkartearen *Idazketa Hiztegia*,
1974. Ikus, halaber, Kintana, etc.

Beraz, UZEIren bekatu propio bezala *bide ebakia/camino*

cortado bakarrik geratzen zaigula, ematen du: Euskaltzaindiak berak ontzat emana du hori ere ordea (ik. Mendizabalen aip. lana). Nire konklusioa: Hau ez da UZEIren kritika bat, Euskaltzaindiaren kritika da, izatekotan.

Zer gertatzen da: Mitxelenak gaur ez dituela onartzen Euskaltzaindiak lehenago hartutako eta guri autoritatez ezarritako erabakiak (Mitxelenaren autoritateaz bermatuak)? Edo ahaztu egin zaiola, berak lehenago zer erabaki zuen, h. d., berak eta Euskaltzaindiak erabakita lehenago ondo zegoena, gaizki dagoe-la gaur beste batzuek erabilita? Nahi adina hipotesi egin liteke hemen. Dena dela, ez dirudi erraza ulertzea, letrari, ez izpiritu-tuei, gagozkion artean.

Bietan bat: edo Mitxelena oso zabar ibili da bere adibideak aukeratzean, eta zabar ibiltzeaz gainera oso suerte txarra ere izan du (zazpi adibide eman eta zazpirak horrelakoxeak ateratzeko), edo apropos aukeratu ditu horrelaxe. Apropos aukeratu badiu, berriz, ondorioa zera da: Mitxelenak kritikatu nahi zuena ez zela UZEI. Zer orduan? Normalizazio-prozesu guztia nonbait: ikastolak, «hiztegi modernu»gileak, administrazioa (udal askatako «aparkaleku» letreroak), Euskaltzaindia bera, prozesu horretan parte hartu duen neurrian; horien artean, artean bakarrik, UZEI ere bai noski. Baina seinagarria da: zergatik zazpi adibidetatik sei Euskaltzaindiak ontzat emanak, are bost Euskaltzaindiarenak berarenak eta horietatik lau UZEIrik egon baino ere dexente lehenagokoak? Zergatik bat bakarra ez UZEIko berezia? Askotxo da kasualitaterik izateko. Eta edozein interpretazio eman nahi zaiola ere, datua bera sintomatikoa da. Euskaltzaindiak, ikus beza berak hortik zein ondorio atera behar duen (ez du aterako). Besteok Euskaltzaindiari buruz atera beharko genituzkeenak, hari jarraitzea hain desastrosoa bada, aisa asma daitezke.

Ikus dezagun orain adibide kritikatuetatik Mitxelenak behin eta berrito ateratzen dituen ondorioek nora jotzen duten. Adibide-pare bat gehiagoren artean:

— *Bide ebakia, norabide/zentzu*: «Tanto en las formas introducidas como creadas, se nota, creo yo, una clara dependencia de normas, tanto en la grafía que se supone habrá de influir sobre la pronunciación, como en los procedimientos de formación, como sobre todo en lo referente al significado de las palabras».

«...Tengo que subrayar, porque es indispensable, que el *erdara* a que se ha hecho repetidamente alusión es, en la in-

mensa mayoría de los casos, castellano mondo y lirondo, tirando a coloquial o a jerga pedante (...). Llevamos camino de convertir al euskera en lengua *exonormativa*, que va a recibir o está ya recibiendo sus reglas de una instancia exterior y evidentemente superior, con lo que nos convertimos en dialecto de una lengua completamente otra» (*Mugō*).

— *klitxe/klixe*: «Y dentro ya de la grafía y de la fonología, ¿por qué, si no es porque el castellano se ha introducido como el *erdara* universal, escriben y dicen *klitxe*, cuando todos [bai?] aquí pronunciábamos *cliché* a la francesa (*klixe*) y yo lo sigo haciendo así hasta en castellano? O ¿es que vamos a seguir al pie de la letra las normas ortográficas que ni siquiera son de la Real Academia Española? Cualquiera día, si es que esto no se ha producido ya, nos vamos a encontrar con frases como *guiski eta koina* (¿o *koña*, por expresivo?) *pixka bat*» (*Deia*).

— *Potence/Puissance*: «En el *Pórtico* ya citado de NZ [Natur Zientziak], p. XXIII, el prologuista nos descubre cómo, mientras nuestro vulgar *indar* corresponde a *energía*, *fuera* y *potencia*, francés *énergie*, *force*, *potence* (bis), en lenguaje científico necesitamos el trío *energía/indarra/potentzia* (...) — En francés, por lo que veo, *potencia* se dice *puissance*, en el uso ordinario, en el religioso, en el matemático y en el físico: Leizarraga el viejo escribía *puissança*. Nuestro españolismo de rebote es, al parecer, tan invencible en este terreno que no podemos sino pensar que «en toda tierra que garbanzos cría», y aun en las otras, *potencia* tiene que sonar como *potencia* y no, por ejemplo, como inglés *power*, que sería *abal* o, si se quiere, *botere*» (*Deia*).

Zer komentatu asko legoke. *Natur Zientziak* UZEI baino lehenagokoa dela gogoratzetik hasi; nik, Lekuona Zaharrari esate baterako, Errenteriatik ez urrutikoa bera eta gaztetxo espainolizaturik ere ematen ez duena, beti *klitxe* irakurtzen diodala aspaldian eta entzun ere beti garbi-garbi «tx» entzuten diodala jarraitu, eta argumentatze estilo honen azterketa batetaraino. Ahaztu gabe, *Natur Zientziak* hiztegiari buruz, zergatik lehen ez eta orain bai, eta hain gogor, kritikatzten ote duen, 1976an argitara emana izanik (lan-taldeak eta metodoak harrez gero frango hobetu direla) eta dirudienez lehenago Mitxelena berak hain lan positiboa aurkitu izanik, «auténtico avance» bezala, ez behin, pare bat aldiz gutxienez. Hiztegia bera ez bait da aldatu, norbait edo zerbait majo aldatu da bitartean. Zirkunstantziak,

noski, asko aldatu dira, besteak ere poliki aldatu dira eta gure inguruko gauzak. Muga nadin zirkunstantzia politikotara.

Ez omen dira politikoak Mitxelenaren kritikarako arrazoiak. Horrenbestean konforme. Baina intentzioak eta asmoak aparte, horiek ez zaizkit axola, inplikazio politikoak ez ikustea, ez ikusten asko ineinatzea da.

«Garbi mordoilo» arazoan badakigu gutxi-gorabehera Mitxelenak (hizkuntzalariak) nola pentsatzen duen, lehen nola pentsatzen zuen behintzat. Gerra ondoan «mordoilo bidea» hartu bada («antiaranista!»), berak zerikusirik izan duela, gogoratu ezezik, nik neuk eskertu egingo nuke. Kultur arazoetan «erdararen menpeko» garela, eta ez daukagula ez egoterik, esan samarra dago haren izkribuetan eta ongi samar, nire ustez, arrazonatua. *Gero*-ren erreseina aipa nezake; edo *Asaba zaharren baratza*, etab., etab., Orixe eta Olabideri egindako kritikak ez azkenik. *Iliasenari* egindakoa. Hainbat eta hainbat. Mitxelenak argi eta garbi irakasten ziguna da, «norbaitek oker edo zuzen, trakets edo dotore, garbi edo mordoilo lantzen ez badu, lantzeke geldituko dela alorra. Egungo trakeskeriatik bakarrik jaioko da biharko edo etziko apaintasuna». Beraz, trakeskeria-*tik*, eta *oker* edo zuzen lehiatuz.

Hori dena ulertzen genuen. Askoz gutxiago ulertu ahal izan dut, orain norbaitek Mitxelena «garbizaleen» banderatzat edo presentatu nahi izatea. Eta, egia esan, Mitxelenaren ondorioak ateratzeko moldea ere (hortixe doa *de facto*) ezin izan dut ongi ulertu, auzi zahar hori biztera bait dator zuzen-zuzenean (berak, asko ez duela, gauditutzat ematen zuen auzia, gainera) eta «nuestro españolismo de rebote», «esta forma monstruosa de disglusia», «la más abyecta dependencia lingüística» bezalako termino goxoekin, arrazoiren bati erantzungo bait dio gauzak horrelaxe formulatzeak. Esaten hasi eta, «españolismo» esan behar zen beraz?

Eta gauza hauek *Muga*-n esaten ziren, eta gaztelaniaz esaten ziren: euskarak zein garbi-garbia izan behar duen, doktrina guttiz irmeak edukitzeko, euskara fitsik jakin beharrik ez daukan edozein «abertzalek» ongi ulertzeko moduan eta lekuan. Eta justu aldi hartan zurrumurru haundiak zebiltzan, Gobernuak mila buruhauste omen zerabilela Alderdiarekin euskararengatik. Eta, suertea ere batzuetan abagadune egokienaren zain egoten delako edo, artikulua PNVko ponentziarekin, egun haietakoxe bizkaieraren aldeko protestekin, Gobernuaren Aholku Batzordea

izendatzearekin, etab., bateratsu suertatu zen, gurean ere batzuetan suerte piska bat izaten dela zalantzarik gera ez dadin. Eta Batzokiren batzuetan, artikuluaen textua publikatu aurretik ezagutzen omen zen...

Ez jarri eta ez kendu egingo dut erregerik, nire interpreta-zioekin, baina errege horrek hortxe dagoen itxura guzti-guztia dauka.

Utz dezagun politika, terreno beti labaina. Ez nuke bukatu nahi zati hau, halere, beste alderditxo bat aipatu gabe: joko ez beti oso garbiarena. Forma soila ezezik, tenperamentuak edukina ukitzen du hemen.

Denok ezagutzen dugu Mitxelenaren luma bizia. Badakigu halaber bizitasunak batzuetan traizio egiten duela eta lumak ihes egiten diola idazleari. Nolanahi ere, etsaien arteko polemika batetan konpreni litekeena, beharbada gutxiago konprenitzen da zientifikoa eta arrazionala, are «patriotikoa», izan nahi duen eztabaida batetan. Eta Mitxelenak *potence* delako horrekin, edo *energia*-rekin egiten duena, esaterako, irristadatxo asko iruditzen zait neuri. Ez bait dut uste hemen kontua «etsaia» edonola eta medio guztiekin txikitzea denik: beraz, ridikuloaz eta burlaz eta nolanahiko trukoez balia gaitzkeenik. Arrazonatzeko bada, arrazoiak hobeto daude arrazoi hutsetan. Xenpelarren textuan Mitxelenak *energia* hitzarekin egiten duen jokoak [«Así, el Xenpelar de hoy, ya no preguntaría ik nundik dauzkak (?) kemenak?, sino ik non dauzkak energiak, y que se chinchén la rima y la lengua»], joko hori beste edozeinek aditzarekin egiten badu, *Deia*-n poliki sakrifikatu den Xenpelarren aditzarekin, ba, euskara batuaren kaltegarritasuna eta absurdua demostratuta gertzen da. Fuera UZEIko Hiztegiak. Eta fuera euskara batua ere. Begira zein erraz demostratzen diren orain gauzak.

Potence malapartatu hori, ordea, hankasartze solemne bat besterik ez da. Hankasartzea bai, baina besterik ez. Eta ez dago zergatik gehiagotarako aprobetxatu. Mitxelenari aukera ederra eman dio bere ezagutza zabalak erakusteko eta handik eta hemendik dibagatzeko, «nuestro españolismo de rebote» salatuz eta UZEI ridikulizatuz bukatzeko. Gainera, egitamu formalari gagozkiola, oso abilki muntaturik dago artikuluan. Beraz, idazle abilarri hamar. UZEIren kritikoa zientifikoari zerbait gutxiago. Hiztegi hori, izan ere (*Natur Zientziak*), ez da UZEIrena; gainera hankasartze hori, problema orokor baten azalpena egiteko adibide gisa dago; hitzaurrean dago, ez du hiztegiaren gorputza egi-

ten (beraz, ilustrazio txar bat da, bere txarrean ere, oker ez banago, bere egitekoa ongi betetzen duena; ez da behintzat hiztegitzinta txarra); Autorearen sinadura bere lekuan darama; eta, batez ere, UZEIko hiztegiatan, hiztegien gorputzean, askotan erabili behar izan da *potencia/puissance* hori, eta, nahiz behin erabilitako hitza gehiago aldatzen ez omen den, sekula, sekula santa ez da *potence* erabili, baina beti *puissance* (beraz, balio gutxiko erakusgarria, UZEIko hiztegiak zer diren erakusteko). Kritiko zorrotz bati ezin eskapa dakioken detailtxoa eta agian zergatik isildu ere ez zegoena, segun eta zer den behintzat egiaz bilatzen duguna.

Kasualitateak halaxe nahi izan du, gainera, «españolismo» hain gaitzeko *potence* horren kometatzailea hemengo gehientsuok baino espainolismoaren askoz biktimago ez izatea, itxura duenez, ingelesaren ezagutzaile ez eskasa izatea gainera eta, xelebrea da, aspaldian erbestean bizi izatea, hori idazten zuenean, bere eguneroko bizitzan eta bere irakasle- nahiz idazle-lanetan italianoa zerabilela, ez espainola. Hankasartze horrek zerbait frogatu behar baldin bazigun, *potenza*-tik *potence*-ra ez dirudi zailagoa bideak *potencia*-tik baino.

Total, anekdotatxoak. Baina, froga bezala, egin dezaketen baino gehiago frogatzeko erabiliak, eta gehiegixto aprobetxatuak gero, konklusio-modu jakin horretara jotzeko: oraingo Xenpelar batek ezin *kemen* esango luke, hezurretaraino sartua daukagu «espainolismoa».

Ni gehien-gehiena deskontzertatu nauena, nolana ere, zera da: hiztegien arazoa (linguistikoa) globalki horrela planteatzea, alderdi sinple horretatik eta horretatik bakarrik funtsean, problema beldurgarri zabala eta konplexua izaki. Jende askorentzat halaxe da: euskarazko zerbait ikusten dutenean, beren kezka guztia zein garbi edo zein mordoilo dagoen jakitea da, h-rik duen ala ez duen. Baina nik neuk ezin sinestu dut, UZEIko Hiztegiak bezalako obra baten aurrean Mitxelena-ren lehenengo kezka eta interesa hori denik. Ez dut sinesten. Ikusi, ordea, artikulu osoa eta arrazoipide guztiak hortik orientatuta daudela, ikusten dut. Zer determinatu du orientazio hau? Euskaltzalearen eta linguistaren interesak izan dira orientazio honen determinanteak, ala beste zirkunstantziaren batzuk? Mitxelena-ker atera dituen adibideak, izango dira nik uste baino errepresentagarriagoak (esan beharrean nago Mitxelena-ri, halere, adibideon egokitasunaz dudatzeko itxurak egin edo «fingitu», berak susmoa hartzen didan moduan, ez nuela inoiz egin, besteak beste ez

nuelako uste horren beharrik neukanik ere). Bitxiak dira nolahi ere, erakutsi uste dudanez. Bitxiena eta harrigarriena, adibide-pare bat baino askoz gehiago, euskal idazleei kultur hitzetako «erdalkeria» kritikatzeko berak lehenago hainbeste aldiz kritikatu izan duenean, berak egitea orain. Eta kritikak ez nau harritzen. Ni ere «hautatua izan da» edo «ikusia izan zen» bezalako forma batzuen ugaritzeak kezkatzen nau. Erdalkeriaren arriskua salatzea eta kritikatzeko, ez daukat batere nekerik onartzeko. Baina kontua ez da bospasei, hogeiei, ehun «erdal» hitz aurkitzea milaka orritan. Niretzat Mitxelenaren lehenagoko zenbait idazlanetatik oraingo honetara kontraste dextentea badago ere, gehien deskontzertatu nauena ez da hori, alderdi bakar hori hain masiboki bota badu ere oraingoan. Izan ere, zenbateraino da garbitasuna edo mordoilokeria une honetan egiazko problema (linguistikoa)? Mitxelenaren kritika (linguistikoa) guztia hortik doa oraingoan, baina, haren obra pizka bat ezagututa, bidezkoa ote da zenbait jende iritsi den konklusio moduetara iristea? Añan ni ere, besteren bat bezala, «izpiritua» interpretatzen ibiliko naiz, baina ez dakit izpiritu autentikoaren ala jarraitasunaren agergerri soil, Mitxelenaren eritzia berriz ere hor gelditu da: «...desde el punto de vista del lenguaje ordinario, traducir una obra de física de esa clase no ofrece, salvo en el léxico, dificultad particular. Lo esencial de la obra está expresado en una lengua que es igual en alemán, en ruso y en vasco (y probablemente, pero no me atrevo a asegurarlo, en chino)». Dirudienez, ba, Karmelo Zamalloak eta Xabier U.k (fisika euskaraz irakatsi nahi ez zuen *anonimoak*) ez dute nik baino problema gutxiago izan Mitxelenaren ideiak ongi ulertzeko... Ibarzabalek ere, ikusle eta interprete haundiak, puntutxo hori ez du ikusi nonbait.

Edozeinek daki Mitxelenak, horretara jarrita, adibideetan ematen dizkigun hitz konkretu horiek baino duda gutxiago uzteko modukoak, askoz gehiago eta hobeak, aisa eman ditzakeela. UZEIko lanen kritika zorrotz eta serio bat oso erraz egin dezakeela. *Ez du egin!* Egin duena beste zerbait da, ez da linguistaren azterketa zorrotz bat eta kritika sakon bat. Zergatik? Zergatik dago hain zuzen alderdi linguistikoa hain murriztuta, batez ere hain anbiguo? Zer zen xuxen-xuxen artikulua honekin bilatzen zena?

Hori «izpirituen» ikusleari utziko diogu, hark intentzioak eta ere hain zoli garbi-ikusten dituzenez gero. Zer bilatzen zen utzita, zer aurkitu den ikusiko dugu piska bat.

4. — Zatiketen historiari jarraiki

Niri ez zait alkantzatzten, zer edo zenbat zuzendu beharko dugun orain, Mitxelenaren erasoaren ondoren, gure planteamendu linguistikoetan, orientazio jeneralean behintzat. Kasu konkretuetan, pertsona batzuk eta lan batzuk hobeto ala gaizkiago ibiliko dira bide horretatik (UZEIn 400 bat lankide ibili gara, oso lan modu desberdinak egin behar izan dira, bidezkoa da diferentziak egotea). Baina, oro har, garbi ala mordoilo, Mitxelenak berak irakatsi dio gure belaunaldiari gaur daramagun bidea (ik. JAKIN 21, 1981, 36 eta hur., 47 eta hur., 162 eta hur.). Ez dakit beste inork inoiz hain radikal planteatu ote duen alternatiba: «Hauta dezagun, bada, behin eta betiko zer nahi dugun: euskera garbia ala bizia. Ez dago beste aukerarik» (1960). Horrekin ezin legitimatuko dugu edozein txandrio. Baina orientazio jeneral bat seinalatzen da. Orain, Mitxelenaren artikuluekin, batzuek berriro auzitan jarri duten orientazio jenerala hain zuzen.

Aski ote da artikulua hau, eta bertan esaten edo sujeritzen dena, sujeritu gehiago esan baino, Mitxelena bat-batean beti irakatsi digunaren kontrakoaren maisutzat edo aitzakotzat hartzeko? Nik, aitortzen dut, ez dut konpainia onean ikusten Mitxelena, «Uxola», G. Egaña, C. Zamalloa eta horiekin, aliantza berri batetan bezala... Ez dut sinesten ere, aliantza hori posible denik (UZEIren kontra joateko ez bada) oso urrutirako. Eta berdin: prioritateak zaindu beharra, ordenuan joan beharra, beti azpimarratu du Mitxelenak. Baina hortik euskararen berezko «ezintasunik oraingoz» edo ateratzea, Fisika garbi eta txukun irakasteko adibidez, nik ez artikulua honen eta ez Mitxelenaren lehenagoko lanen ondorio zuzentzat hartuko nuke. *Euskara*, oraindik, eta urte askotan, ez dela gai teknika munduan burua altxatzeko, farregarri geratzeko baizik, ondorioztatzen duenak, berak jakinko du nondik dabilen.

Egia da halere: Mitxelenaren artikuluen ondoren honelakoxe arrazoiak agertu dira haren alde eta UZEIren kontra. Eskola batek han bere erizpideak aurkitu uste izan du, eta ez arrazoi gabe.

Horrela «garbi/mordoilo» auzia, gainditua zirudiena (1977an jadanik Mitxelenak berak hala adierazten zuen) berriro biztu da. Auzi hori gaur berriro bizteak, ordea, askoz gehiago da, bizten duena.

Izan ere, ez daukagu begiratzerik, artikulua batetan zer esa-

ten den, bakarrik: gauzak non eta noiz esaten diren ere kontuan hartu behar da, hots, dagoen giroan halabarrez probokatuko diren erreakzioak. Eta giroa, nire ustez, euskal munduan ez dago batere gozoa eta barea: desanimo handia dago, haserre zahar asko hauskaldarrean eta, Gobernuak daukagunez gero batik-bat, errezelo berri asko. Giro honetan, haserre zaharrak eta errezelo berriak konbinatzea polborarekin jolasean ibiltzea bezala iruditzen zait.

Gure kulturgintzan badira auzi klasiko batzuk, bi alderdi edo bloketako eten handia bereziki. Batuaren aldekoak eta kontrakoak bezala ezagutzen dira nagusiki bi blokeok; baina, erabat berdindu ez arren, ia parekoa, «garbizaleen» eta «mordoiloza-leen» zatiketa dago; eta, «ideologia» mailan edo, herri euskararen eta kultur euskararen aldekoak bezala agertu ohi dira. Historikoki, zatiketa hori (gerra ostean) *Euzko Gogo*a eta *Egan*-en arteko diferentziekin hasi zela, esan daiteke; 59ko Euskaltzaindiaren agiriarekin kontsumatu zela (*Eusker*a IV, 1959, 214-215) eta 68an, batasunari buruz istiluak sortzean, zatiketa zaharra heredatu egiten zela, elementu berriak gehitu baziren ere. Kontraesanak, prozesuan, maila berri bat jo zuen. Honelatsu eman daiteke, sinpleki, historia hori, nahiz berez nahasiagoa izan.

Utz ditzagun orain alderdi bakoitzaren arazoak eta desarrazoak (linguistikoak). Sozialki funtsean bakoitzak bere mundua zuen, azken urteotan bederen bakoitza bere aldetik zebilen (besteak beste, belaunaldien arteko diferentzia ere bilakaturik zegoen nolabait). Bakean bezala bizi ziren talde biak, elkarririk gerra haundirik egin gabe, baina tentsio gogorra zegoen azpian.

Egoera hau problematiko bihurzen zuena eta duena, zera da: blokeon artean, kulturalki duten proportzioaren aldean, politikoki dagoen desproporzioa. Izan ere, ez daukat esan beharrik, joera biok nola daude banaturik politikoki; batez ere zein Alderditan edo Alderdi ingurutan dabilzan batuaren eta «mordoiloaren» etsai gehienak, «herri euskararen» aldezeleak, hots, UZEIkoak bezalako lanak, «mordoiloak» eta batuan, ezin eraman dituztenak. Eta Alderdi hori, Euskal Herriaren eta euskal kulturaren bizitzan, lehenago bezala gaur, oinarri-oinarrizkoa dugu edozertarako. Guztiok nahi dugun euskararen normalizaziorako batez ere.

Gustatzen ez bazaigu ere, hemen, arazoi linguistikoak, indar kultural-sozialak eta proportzio politikoak, nahastu egiten zaizkigu. Eta denak dago hartu beharra kontsiderazioan.

Gobernuak noizpait ere aurkeztu beharko digu euskararen plangintza. Estatutuaren arabera «la Real Academia de la Lengua Vasca es institución consultiva oficial en lo referente al euskera» (art. 6, § 4; normalizaziorakoan efekturik ez duela, ematen badu ere!). PNVan, ordea, Euskaltzaindiaren etsai asko dago, hark, esan bezala, 59an «mordoilo» bidea eta 68an batasuna erabakiaz gero. Ondorioz, PNVan euskaltzale asko dago, kopuruz behintzat gehiago diren eta euskal kulturari ere gehiago ari diren beste euskaltzale «mordoilo» eta batuzale horien etsai bizia. Nola jokatu du plangintzak bi blokeekin? Zeinekin kontatu plangintza egiteko eta aurrera ateratzeko?

Problema da. Zeren eta, Gobernuak hizkuntz eta kultur politika bat hasten badu, errealitate sozialari dagokionagoa, konfliktuan sartzen bait da bere Alderdiko errealitatearekin; eta Alderdiko errealitateari dagokion politika eginez gero, konfliktua errealitate sozialarekin sortzen zaio. Zer egin, beraz? Oreka bat beharko litzateke Alderdiko errealitatearen eta errealitate sozialaren artean. Nola, ordea? Errealitate soziala behartuz Alderdiaren modukora etortzera, ala Alderdiko errealitatea eboluzionatzera bultzatuz? Biak?

Ez da inongo sekreturik, EAJek problema latzak omen dauzka hor. Egunotantxe ari gara prentsan ikusten. Eta problemak Alderdiaren markuak gainezkatzen ditu, zenbait jende Gobernuaren euskarari buruzko politika guztia problema horiek kondizionatuegia bezala ikusten hasi den momentutik. Besteak beste, hau giroan dago eta giro honetan etorri da Mitxelenaen artikulua. Zer esanez ganera! Erdalkeria besterik ez darabilgula, mordoilo hutsak garela, «herri euskara» hondatzen ari garela erabat... Ikusi da zeinek hartu duen beretzako bezala pilota atera eta segituan.

Lehenagoko etenetan, 59koan eta 68koan, arrazoi linguistikoak garbi zeuden. Alternatiba bat eskaintzen zen, aukeratu beharra zegoen: garbi ala mordoilo, batu ala ez-batu. Zer dago orain? Zein alternatiba eskaintzen da, ikusi eta aukera egin dezagun? Garbitasuna eta «herri euskara» begiratzen omen dituen Euskerazaintza? Arrazoi linguistikoak dira, ala sozialak eta politikoak batez ere, antolabide bat eta «sintesi» bat eskatzen dutenak, bakea egiteko?

Ez dago dudarik, oraingoa euskaltzale guztiok elkartzeko ordua da. Bakea behar dugu, bai. Inoiz baino beharrago dugu elkar aditzea eta kolaborantza izpiritua euskaltzaleon artean. Gure ban-

derizo gerrak ahaztu beharra dago. Euskara aurrera ateratzeko, instituzioen beharra daukagu; instituzioek, euskara salbatzeko, euskaltzale ahalik gehienekin kontatu beharko dute. Plangintza bat eta euskaltzaleen kolaborantza hertsia, edozein aurrerapide-
ren presupostu oinarrizkoak dirudite.

Hori dugu gaurko gure egunaren legea. Eta horra: nire us-
tez hori ere, errazagotu ordez, okerragotu bakarrik egin dugu. Lehen haserre eta zatiketa asko bagenuen, orain gehiago eta okerragoak gainera.

Izan ere, zenbaitek esan duenez, polemika hau garbi/mor-
doilo, batu/ez-batu iskanbila haien linean egon daiteke, egon;
baina, haiek azkenean positiboak atera baziren, hemen ez da ikus-
ten zer positiborik irten litekeen. Linguistikoki alternatiba berri,
hoberik ez da ikusten. Sozialki ez, irtenbiderik ireki dugunik
bake eta elkartasun aldera. Orain arteko zatiketei bat gehiago
erantsi besterik ez dugu egiten.

Hauxe: lehen oposizio linguistikoetan hautsita bagenbiltzan,
haik superatu ordez, politikoa gaineratuko dugu orain.

Politika euskara inbadituz doa, ez dago bestela esaterik. Zaila
da oraintxe, bai idaztea, bai irakastea, bai edozer gauza egitea,
barruti politikoki markatu edo jadanik okupatu batetan paratu
gabe. Egunetik egunera ikusten dugun prozesu arriskutsua da.
Arriskutsua, azkenean euskara interes eta komenentzia partidis-
ten menpe utziko duelako, instrumentalizaturik, joko politikoe-
tako pilota hutsa, komeni bezala erabiltzekoa, nahi denean hartu
eta nahi denean utzi. Ez al zen jadanik aski entzuten bazterretan,
Gobernuak ez omen duela euskal kulturaren deus ametitzen, ze-
haro kontrolatzen duena ezik? Euskararen arazoetan sartzeko
batere gogorik ez duela, buruhaustea besterik ez dakarrelako,
eta boto gutxi? Nahiago duela indioen erreserba bat egin eta
hura zaindu, sinbolotarako aski delako? Eta abar, abar. Susmoa
eta errezeloa hobe zegoen bestela ere euskal munduan Gober-
nuarekiko. Orain artean, halere, askotan antza bazuen, baina
inoiz ez ginen iritsi, bi blokeak, alde batean PNV eta bestean
beste denak bezala geratzera. Historikoki faltsua zen, gainera, bai
garbi/mordoilo eta bai batuari buruz. Orain, plangintzaren eta
normalizazioaren orduan, subentzioen orduan, diruaren eta Al-
derdi interesen orduan, horretaraino iritsiak ez bagara, ez gabil-
tza urruti. Bipolarketa horretarako bestela ere dagoen joerari
(AEK/HABE, etab.) freinuak ipini ordez, espreski horixe pro-
bokatu nahita gabiltzala pentsatuko litzateke.

Beste borroka eta iskanbila batzuekiko paralelismoak utzita ere, Mitxelena, *Muga, Deia...*, «aparizio» asko bait da!

Eta ez da, borroka partidistek euskal kultura laurkitzen dutela bakarrik. Gaitza sakonago doa. Edozein elkartek, edozein kulturak dauzka erreferentzia batzuk, moralak, instituzionalak, etab., ordenu batetan funtzionatzeko beharrezkoak, etengabe dena kuestionatzen ibili gabe. Instituzioek apenas izan dute oraindik itzal hau irabazteko erarik (asti gutxi eta, gainera, etengabe polemiketan sartuta). Autoritate moral batzuk bageneuzkan, halerre, euskal munduan, inportanteenetako bat Mitxelena bera. Nik ez dut ikusten, Mitxelena borroka hauetan sartu eta, modu honetan sartuaz, euskal kulturako munduan kohesioak, elkartasunak zer irabazten duen. Gehiago iruditzen zait, erabateko disgregazio prozesua arinagotzen duela.

Normala, herri honen banatuta egotea. Izan ere, zenbait eta zenbait dira suertean erori zaizkion Bautista Basterretxeak? Instituzioak, programak, planak behar ditugu. Baina planak, programak, instituzioak alfer-alferrik dira etengabe dena kuestionatzen duen gizartean. Horixe besterik ez da hemen egiten, goian hala behean: batak besteari beti, jakina. Eta okerreña da, gauden goikoekin eta behekoekin, beste erremediorik ez dagoela nonbait.

5. — Auzitan erori direnak

5.1. «UZEI».

Titulu orokorra justifikatuz hasiko naiz. UZEI auzitan edo *normalizazio-bideak* auzitan esan dut. Istilua, itxuraz, UZEIren kontura joan da. Baina «UZEI» erreala auziperatu dena, edo istiluak harrapatu duena, ez da Esterlines kaleko hori bakarrik: euskararen normalizazio-bila administrazioan, alde batetik, eta bestetik Unibertsitatean edo BBB/UBI mailetako irakaskuntzan dabilen jende gehiena geratu da afektaturik, bide batez itzultzaileak, etab. ere bai. Kritikatu diren adibideak hori erakusten dute (UEU, *Elbuyar, Aranzadi, Jakin*; Fisikako taldeak, etab. erortzen dira kritika horietan: UZEI baino gehiago horietxek hain zuzen, kritikatu diren gauza konkretuei bagagozkie); jendearen erreakzioak ere halaxe dio. Beraz «normalizazio teknikoan» ari omen dela esaten dugun mundu guzti hori harrapatu du erasoak. Hots, egon dagoen normalizazio-bide oraingoz ia bakarra, bloke gisa behintzat.

Lehenik, ba, hori utziko dugu finkatua: euskal letretan bloke haundi bat badago (UEU, UZEI, etab.), elkarrekin eta modu berdinsuetan lanegiten duen jendearena, kriterioak elkarrekin eztabaidatzen dituen, ahalik eta bateratuena jokatuz beren artean, euskararen normalizazio eta estandarizapen bila: beti ere Euskaltzaindiaren arauei jarraituz, baina zenbait gauzatan erabakiak beraiek hartu beharrean, Euskaltzaindiak erabaki gabeko mila puntutan. Horiek denak dira «UZEI», polemika honetako adieran.

5.2. EUSKALTZAINDIA.

Puntu honetan eztabaidako bi problema jotzen dugu jadanik. Euskaltzaindiari aurrea hartzearena edo da bat: UZEIko Hiztegien alde makurra omen da «euskaldunok atzerabiderik gabeko ekintzen (hecho consumado) menpean ipintzea» (J. J. Azurtza). Badirudi horrela ikusi behar dela Mitxelenaren «incluso anticipándose a lo oficial» protesta ere.

Seguruena gogoratu beharrik ez dago, euskararen batasuna ez zela bestela egin, hots, zenbait jenderen aurreko lanari eskerrak baino («anticipándose a lo oficial», noski) eta Euskaltzaindiak bere erabakiak ondotik hartuaz. Funtsean berriro auzitan daukaguna zera da: hiztegi berezituon lanean, normalizazio teknikoan, Euskaltzaindiak aitzindari eta bide urratzaile gisa jokatu behar al duen, ala esperientzia batzuen ondotik bakarrik behar ote duen arazootan sartu, ala batere ez duen sartu behar. Zuzenean ez da gure arazoa (ni behintzat ez noa Euskaltzaindiari zer egin behar lukeen esatera), baina gure arazo gertatu da oso-osorik, Hondarribiako bilkuran (1981ko abenduaren 29an) Euskaltzaindiak berak espreski halaxe planteatu zuenez gero. Harrez gero, Euskaltzaindiak berak jarrita eta nolabait erantzunda, baina galdera hor dago: zer den, edo zertarako daukagun Euskaltzaindirik, normalizazioari begira.

Izan, Euskaltzaindiak ez omen du inoren edo ezeren apendiz izan behar. UZEIrena ez, eta Mitxelenarena ere ez noski. Baina egin, egin beharko du zerbait, ezta? (alegia, ez UZEIk, ez Mitxelenak, baina Euskaltzaindiak berak egin, inoren apendiz izan gabe). Normalizazioa, hein honetan, Euskaltzaindiak zerbait egin zain dago aspaldian. Txillardegik esan: «errazago baita... euskalki zaharren gora-beherak eta bilketak aztertzea, euskara batuari buruz mamituz eta osatuz joatea baino». Eta:

«Euskaltzaindia atzerantz begira jarri da orain dela urte batzu eta UZEI da hain zuzen atzerakada horren agertzapena».

Mitxelaren erasoarekin, UZEI ezezik, Euskaltzaindiaren eginkizuna ere auzitan sartu da. Saihetsetatik laster sortu dira beste zenbait arazo Euskaltzaindiari buruz (ik. Joxe Manuel, «Euskaltzaindia: ia guriak egin du edo alea jacta est», in: *Egin*, 1982-2-20). Nik orain ez dut sartu nahi Euskaltzaindiarekin, auzi bat sortu dela hor ere seinalatu nahi dut bakarrik. Laster gehiago.

Beste arazoa, linea beretik, UZEI «presio-talde» delakoarena litzateke: alegia, Euskaltzaindiaren oneritzia bilatzearena. Arazoa funtsean hauxe da: Euskaltzaindia, gidari gisa aurretik ez dabilenez gero (alde bat utziaz, berriro, ibiltzea tokatzen ote zaion), atzetik behintzat ondo, gaizki, ala nola ikusten ditu, besteok hartzen dituzten erabakiak normalizazioan? Eman lezake orientaziorik, edo eritzirik, edo kritikarik, edo nolabaiteko laguntza-modurik? Eta ez on-, ez gaitzeritzi egin nahi baditu, arazo guztiotatik «libre» geratu nahi badu, zer egin behar dute besteok: itxaroten egon, geldi-geldi, Euskaltzaindiak arauak eman arte; edo berekasa ibili, gauzak ahal duten hoberena eginez, baina «ofizialtasunak» emango liekeen segurantzia gabe? Alegia, erabaki beharra dago irakaskuntzan, administrazioan, etab. zein euskara-modu erabili nahi dugun. Euskaltzainditik erabat aparte eta harekin zerikusirik gabe desarroilatu behar ote du, orduan, ikastoletako, Unibertsitateko irakaskuntza eta textugintza guztiak? Etabar.

Hemen, ba, «UZEI» ezezik (adiera zabalean, alegia) Euskaltzaindia bera ere auzitan daukagu: edo ez duelako egiten, edo baduelako, baina normalizazioak bera gabe ondo ibiltzerik ez daukalako, edonola ere.

Esango litzateke, alde guztietatik desbordatuta geratu dela Euskaltzaindia. Ezin duela erantzun. Euskaltzaindia, badakigu, ohoragarria da guztiontzat instituzioa, baina hezur eta haragizko jendeak osatzen du hura ere, jende hura bezalakoxeak ditu mekanismoak. UZEIko hiztegiei buruz hartu duen erabakia, Mitxelaren eta Sarasolaren oso gustukoa nonbait, kasualitatea bait da, agian munduko erabakirik zuhurrena izango da, izan; baina badu failo txiki bat: dirudienez. Euskaltzaindiak (edo euskaltzainen batzuk) UZEIrekin zeukan problema ondo konpontzen du; konpontzen ez duena, beste denok Euskaltzaindiarekin daukagun problema da. Normalizazioaren problema. Zerbait egi-

ten ez duen edo zerbait ez egitea erabakitzen duen bitartean, normalizazioarekin problema hori bait dago: zeinek egin behar du? Nola? Zer pintatzen du Euskaltzaindiak normalizazio guztian?

Euskaltzaindia normak emateko dago. Garantiak, normarik dagoenean eskatu ahal izango dira. Oraingo istilu guztiok direla eta, E. Knör-ek, Euskaltzaindia atzeratu egin dela, premiek aurrea hartu diotela, eta Euskaltzaindiak bere-bere hiztegi-lana egina izan balu, istiluok ez zirela gertatuko, etab., esaten badu (kontxo!, esango du norbaitek), arrazoia du apika; baina «hori ez da luzatuko, aurki ezarriko dira bideak», esanez kontsolatu uste baldin bagaitu, honelakoak ez bait dira lehen aldiz entzuten, beldur naiz, hark uste baino kontsolagaitzago dagoela jendea. «Berriz ere 64ean egin zitekeena 68an egingo du», esaten zuen norbaitek.

Bestalde, hau ez da printzipio-arazo abstraktua, askotan pragmatiko hutsa da. Modu honetan, esate baterako: edozein erakunde publikok, lan bat enkargatzen badizu, «Euskaltzaindiak onartua», «Euskaltzaindiarekin ados» nahi dizu... Projektu bat finantzatu behar duenak «garantiak» nahi ditu. Administrazio-eskola jarri nahi duenak, adibidez (eta administraziokoa hizkera «berezienetakoa» da, berezirik baldin bada), euskara sartu nahi badu, garantia batzuk nahiko ditu, ez duela edonolako euskara sartuko, Administrazio Publikoaren eskola euskararen experimentaleku bihurtuaz edozein zoroentzat. Euskaltzaindia hiztegi berezitzen arazoan arras desentenditzen bada, ordea, zeinek emango du, adibidez Administrazioko hizkera Zuzenbideko hizkerarekin konformidadean dagoen garantia? Honela «UZEI»ren auziak beste hirugarren bat harrapatzen digu: instituzio publikoak, Euskal Gobernuak.

5.3. EUSKAL GOBERNUA.

Euskararen normalizazio publikoa, soziala (irakaskuntzan, administrazioan, bizitza publiko guztian) inori baino lehenago Gobernuari tokatzen zaio. Baina Gobernuarekin daukaguna zera da: euskara bizitza publikoan ezarri behar duela, baina ez daukala zein euskara ezarri. Hori da, lan bat egiteko tresna bat behar eta tresna bera egin gabe egon. Gainera Gobernu hau, in concreto, PNVkoa da eta PNVk oraingoz ez du erabaki euskara batuaren arazoa ere. Besteok 1964-1968 aldera garbitu genuena, beraz, oinarrizkoena bera, lehen urratsa, oraino erabaki-

tzeko dauka, bestetik Gobernuak jartzen duen eta normalizazioa bultzatzea tokatzen zaion Alderdiak. Horra, ba, UZEI dela eta ez dela, PNVren hizkuntz politika ere auzitan: Zubikarai, Urkiri, Uxola, Egaña, J. J. Azurtza, A. M. Labayen, etab. aztoratuta.

Hori ez da nire arazoa: PNVk, berak jakingo du, nik esan gabe, nola konpondu bere barruko arazoak.

Gobernuarena, ordea, bai, gure arazoa da: PNVk jarri bait du, baina guztiona izateko. Gobernuarena ez da, esate baterako, Ministrari jaun bat batzokiz batzoki ibiltzea, euskara batuaren defentsa egiten. Alderdiko edozeinen lana izan daiteke hori, ez herri osoari zor zaion kargudun publikoarena.

Horra baina: nola egin edo nola bultzatu ahal izango du normalizazio teknikoak, ortografikoak ere egin gabe daukanak eta egiteko hainbeste problemarekin dabilenak? Zer dinamismo desarroila liteke horrela? Konprenigarria da, normalizazioa derrigor bultzatu nahita dabilzanak molesto gertatzea.

Gobernuari berez dagokiona da normalizazio-programa aurrera ateratzea. Hemen, haatik, eta nik dakidala behintzat, puntu-txoren batzuetakoak salbu, programarik ez dago. Programarik ere. Egia da HBk edo EEK apenas daukatela gehiago. Baina aitzakia horrek ez du balio. Agintea eduki, beste norbaitek dauka. Konparatzerik ez dago, aginterik ez daukanaren programa-falta eta Gobernuak, boterea, dirua, aparatoa, erantzukizuna, gobernatzeko herriaren delegazioa daukanaren eta hartu ere bere gain hartu dituenaren programarik eza eta beste edozeinena. Oposizioa oposizio izan daiteke nolabait programa alternatibo global jakinik gabe; gobernatu (Gobernuak ezer ez da gobernatzen ez badu), programa gabe gobernatzerik ez dago.

Euskararen normalizazio-arazoan, ba, diruren bat ba omen dago, Ministeritzak ere bai, etab. gauzak. Ez egon, gobernurik ez dago. Eta luzetxo doa, agintariak bai eta gobernurik ez, ibiltzeko. Tragikoa ere bada, Gobernuak «abertzaleak» omen dau den egoera batetarako.

Ez dirudi arazoa Etxenike edo Labayen baitan pertsonalizatzea dagoenik. Gutxi-asko trebeak izango dira horiek pertsonalki, ez dit batere axola. Munduko trebeenak balira ere kasi soluzio gabekoa da orapiloa bera: batetik, Alderdiaren (PNV) sektore bortitz bezain mindu batekin konpondu behar nolabait (euskara batua bera onartzen ez dion jendearekin hortakotz), bestetik, normalizazioa ezin aurrera eraman Euskaltzaindia gabe eta

Euskaltzaindiari jarraitu zaion jendea gabe, are kontra. Nola eraman aurrera normalizazio teknikoa (ikastoletan, administrazioan, Gobernuan bertan) normalizazio ortografikoa bera ezin egin bada? Hori da errealitatea. Eta hor, edo erdara hutsera jotzen da, hori batua dago, edo zirt edo zart egiten da. Erabaki bat hartu, beste biderik ez dago. Noiz, nola, etab., takto haundiz eta polliki-polliki nola erabakiak bideratu, politikoez jakin behar dute, aldez aurretik begirune guztia zor diegula bai bait dakigu. Inori ez zaio PNV lardaskatu eta txikitu bat interesatzen. Euskaltzaleoi gutxiena.

Baina hori ez bait da dena. Hasiera besterik ez. Luzarora, ponentzia famatu horrekin Alderdiak zernahi erabakita ere egunotan, Gobernuak ez dauka beste normalizazio-biderik, Euskaltzaindiarekin ez bada. Baina ba al dauka Euskaltzaindiarekin? (Esan beharrik ez dago «Euskaltzaindiarekin» egiteak formula desberdin asko aurki dezakeela). Hor dago kokka: ba ote dauka Euskaltzaindiarekin egiterik?

Lehengora itzultzen gara. Euskaltzaindia ohore abstraktu bat izango da, autoritate haundi bat, baina organizazio-modu eta jende oso konkretu bat ere bada. Errealitatea umila da. Gobernuak eska diezaioke, teorian: «Egin lanok niretzat», «eman tituluok». Adibidez: «orain eskolen karguduna ni naiz; nire langileek Fisika euskaraz irakatsi behar dute: emaidazu horiek behar duten euskara». Berdin, administraziokoa, Buletin ofizialekoa, etab. Lehen auzia, Euskaltzaindiari lan hori egitea tokatzen al zaion (niri, kasuotan, ez zait iruditzen ezer laguntzen duenik, Espainiako edo Frantziako Akademiek zer egiten duten begiratzeari: ez Espainian eta ez Frantzian gaude). Bigarrena, ordea: zeinekin egin ahal izango du Euskaltzaindiak hori dena?

Egiaz hori egin nahiko balu ere, *nabi* (eta ezetz ematen du), Euskaltzaindiak, gaurko bere egitamuarekin eta jendearekin eta lan-moduekin, *ezingo* luke egin. Egiteko, bide bat UZEIri edo enkargatzea izango litzateke, eta gero berak berrikustea: baina hori Euskaltzaindia UZEIren apendizet bihurtzea dela esango da... UZEIren ordez beste ente bat sor daiteke. UZEI txikitu eta beste UZEI bat sortu, Euskaltzaindiarenagoa, Gobernuarenagoa. Egin *ahal*, teorian egin daiteke hori, zalantza gabe: aski dirurekin, horretarako organizazioa sortu ahal izango luke Euskaltzaindiak bere baitan edo menpean. Zein jenderek? Dagoentxoarekin hasi beharko luke hark ere. Eta pentsatzekoa da, UZEIren oso antzeko zerbaite izango litzatekeela erresultadua. Merezi ote du, etxe berria egiteko lehengoa txikitzeak? Berdin-

-berdina egitekotan behintzat apenas. Hobetu, lan-metodoak, etab., printzipioz ez du inork ukatuko, egin litezkeela: lankide, etab., gehiagoz, hots, diru gehiagoz. Gaurko UZEIrekin ere berdin egin liteke hori.

Modu honetan, Gobernuak, egin beharrezko normalizazioa «Euskaltzaindiarekin» ezin egin badu, zein «ez-Euskaltzaindiarekin» egin ahal izango du orduan? Hori da problema (eta problema hori, berriro diot, lehen-lehenik eta inorena baino lehena-go, Gobernuaren problema da, Gobernuak soluzionatu behar duena, berak nahi duenaren laguntzarekin). Eta hori da miseria: istilu guztian *inork ez du alternatiba baliagarririk zinez eskaini*. Ze «que haya, pues, más de uno y que gane el mejor» ez da positiboki ezer proposatzea. Nondik sortu behar dute beste horiek? Noiz? Ihesi ibiltzea da.

5.4. HIZKUNTZ EREDUAK.

Mitxelena esaten ez duena, Sarasolak esan digu: nondik atera behar duten beste bigarren eta hirugarren UZEIok (UZEIren «monopolioa» jasaterik ez bait dago). «Are gehiago, [Jaur-laritzak] *beste aukerakizunak bultzatu beharko lituzke*, UZEIrena, erlatiboki, nahikoa bultzatua dagoenez gero» (nire azpim). Zuzen ulertzen badut, beraz, «que haya, pues, más de uno y que gane el mejor» (Mitxelena) eta Gobernuak berak sortu eta bultzatu behar ditu beste bigarren eta hirugarren UZEIok...

Besteak beste (ez naiz orain HABE/AEK aipatzen hasiko!), bitxia da hori, Sarasolaren proposapen hori, jarraitzen dionaren textuinguruan: «*ez zait oraingoz lan hori bain premiazkoa iruditzen*», esaten bait du. Kontraesan borobil-borobila dirudi: daukagun UZEI bakarrarekin lan horretarako aski eta gehiegi ere badaukagu, antza. Iluntxo geratzen da, orduan. Gobernuaren artifizialki aukerakizun gehiago sortzeak zeri erantzun beharko liokeen, UZEI izorratzeari ez bada behintzat.

Sarasolak (*Deia*, 1982-1-22) egiaz esaten duena, ordea, beste zerbait da, niretzat, hori bai, aski konkretua eta oso grabea. Hizkuntz politikaren printzipio batzuk, edo filosofia bat, finkatzera dator. «Instituzionaltzearen arazoa» tituluaren azpian, auziaren barnean *ofizialtzearen arazoa* dagoela, esaten digu (oharra: eta barnerago, niretzat, normalizazioaren arazoa dago). Ez Euskaltzaindiak, ez Jaur-laritzak daukate, Sarasolaren ustez, UZEI ofizialterik. Horretaraino konforme egon ninteke, ni behintzat: batez ere «ofizialtze» terminoa, formula konkretu

posiblei begira, hain adiera gaizki mugatukoa den bitartean. Gainera UZEI ofizialtzeak ez dirudi normalizazioaren baldintza *sine qua non* izan beharra daukanik. Hor esaten zaigu, gero, Jaur-laritzak, UZEI ez ofizialtzeaz gain, «beste aukerakizunak bultzatu beharko lituzke[ela]»: «Eta ez luke oraingoz behin-betirako crabakirik inola ere hartu behar».

Hemen, baina, eta hori da grabea, arrazoia ematerakoan, UZEI eta UZEI bezalako erakunde posibleen mailatik arras beste maila batetara pasatzen da xuxen-xuxen Sarasola, hor ikusten bait da berak arazoa zein mailatan planteatzen duen funtsean: «Zera esan nahi dut, —espikatzen digu—. Gauza jakina da *hizkuntza-eredu bat ezin dela dekretuz ezarri (...)*. Gauzak horrela, eta bestalde gure egungo egoera kontuan harturik, elkarren lehian ari diren *ikuspegi eta joera guztiei* eman behar zaie hedatzeko aukera, ez baitakigu alde zurretik zer fruitu eman dezakeen horietako bakoitzak, eta, *oraingoz behintzat, horietako ezeinek* ez duelako 'aukeratua izateko' adina eskubide bereganatu».

Ni ez noa orain UZEIren (instituzioaren, lan-taldearen) defentsarik egitera, askoz gutxiago UZEI ofizialdu behar den ala ez eztabaidatzera. Sarasolak planteatzen duena, talderen baten edo besteren gorabeherak baino askoz urrunago doa. Normalizazioaren asmoa bera kuestionatzen du, *oraingoz* bederen. *Hizkuntza-eredu bat* ezartzerik ez dagoela, esaten bait du, dekretuz ezartzeak alfer-alferrikakoak omen diren arrazoiarekin.

Hemen, ba, erakunde-mailan ez baino *hizkuntza-ereduen* mailan planteatzen da, garbi-garbi, *ofizialtzearen arazoa*. Kontua ez da UZEI ofizialtzea, hizkuntza-eredu bat ofizialtzea baino. Eta hori ikaragarria da: zeren eta, hipotesi batetan, Gobernuak berak agian arazo honetan neutral geratzea izango balu ere (*gorputz* esan behar den ala *soma, arima* ala *psyche*), Euskaltzaindiak ez bait dauka beti neutral geratzerik, inutil perfektu izan behar ez badu bederen, adibidez euskara batu/ez-batu «ereduen» arazoan, etab., etab. Nik neuk ez dut ikusten, egia esan, Gobernu bera ere nola inhibi litekeen, beti gaztelania hutsa erabiliaz ez bada. Ze, euskara erabiltzen badu, euskararen bat erabiliko du eta «ofizialduko» du, eta denak nahasian erabiltzen ez baditu behintzat, «eredu»ren bat izango da hark erabiltzen (potentziatzen, ofizialtzen) duena ere.

Bereiz dezagun honez gero: gauza bat da UZEI, eta niri behintzat UZEI ez zait axola UZEI delako; beste gauza bat da

normalizazioa. Problema normalizazioarena da, ez UZEIrena (hots, UZEIn hainbat langile dagoela, dirua behar duela, ofizialtzea ondo etorriko litzaiokeela, etab., sekundarioak dira erabat). Gure planteamenduan *UZEItik hasten bagara*, kondenatzeko nahiz defendatzeko, gaurko UZEI konkretu horrek inportantzia handia dauka orduan, eta UZEI horri buruz kontsiderazioak egiten luza gintezke: zer komeni zaion eta ez, zer eman lekiokkeen eta ez, merezi duen ala ez, ibil gintezke. UZEIkoentzat berentzat horrek bere pisua izango du, beste guztiontzat ez da pasatzen oso pisu erlatiboa izatetik. Baina gure planteamenduan *normalizazioaren beharretik* hasten bagara, eta normalizazioaren *erantzukizuna Gobernuari aitortzetik*, gauzak arras bestela agertzen dira eta Sarasolaren arrazoiak, barka, nefastoak dira. UZEIren kontra egon liteke normalizazioaren kontra egon gabe. Baina UZEIren kontrako Sarasolaren arrazoiak horiek badira, horiek normalizazioaren kontrako arrazoiak dira azkenean. Ia ez da kontua UZEI ofizialtzea edo ez ofizialtzea; UZEI gehiago sortzea edo ez sortzea: Gobernuak eginkizun horretatik arras libre eta kanpora uztea da, olinpoan, neutral, *ikuspegi eta joera guztiei* lagunduz, h. d., *normalizazioa ez egitea* eta kito. Mitxelenaen, Sarasolaren eta Ibarzabalen tesia hori baldin bada, mesede handia egingo digute garbi-garbi horrelaxe esanez, prioritateak eta atereaz, edo inposaketaren kalteak eta alferrikakoak aipatuaz, zeharka ibili gabe.

Dena dela, hau dena, edozeinek ikusten du, «hizkuntzalaritza» oso urrun dabil. Honez gero, zientifikoek eta zientziaren distirak itsu samartzeraino liluraturik dagoena bakarrik etor dakiguke, eztabaida honetan jakintsu haundiak alde batetik eta bestetik kaka hutsak edo dabiltzala esanez. Arazoak egiaz zientifikoak direnean, linguistikoak (ez sozio-linguistikoak, are politikoak), ongi dago linguista haundiak eta kaka hutsak bereizten jakitea eta bakoitzari bere lekua seinaltzea. UZEIrekin lanean ibili garen jende honek, bereziki sokratikoak izan gabe, ondo samar dakigu ez dakigula. Baina linguistak, linguistikatik zeharo kanpora ateratzen badira, politikara edo administraziora esate baterako, beste hango beren prestigioaz ez abusatzea eta lekuan lekuko beren gaitasunaz eta zientziak baino ez baliatzea ere, egiaz jakintsu batentzat ez legoke batere gaizki. Ez da hizkuntzalaritza, auzitan dabilena. Eta ez liguke gaitzik egingo mailak eta barrutiak bereizten jakiteak.

Gobernuak, esate baterako, ez dauka zerikusirik linguisten biltzarre batekin. Ez dauka, berez, arazo linguistikoetan zer sar-

tu; hobeto esan, ez du sartu behar *linguista gisa*: baina politiko gisa ezin geratuko da sartu gabe. Eta beti sartuko da moduren batetan edo bestetan. Sartzeko modu zuhurrena jakitea izango da kontua eta hori politika da. Burutik sano dagoen inork ez dio Gobernuko Ministrai bati bere «*zientzia* linguistikoaren» kontu eskatuko; baina edozein hiritarrek eska diezaioke eta eskatu beharko lioke bere «*politika* linguistikoaren» kontu zehatz eta mehatza.

6. — Politika linguistikoaz

Gobernuak ez du ezer egin (esajerazio bat da, baina horrelaxe esango dugu). Etortzen da Sarasola eta esaten du: oso ondo, ezer ez egitea tokatzen zitzaion.

Justifikaziorik eman behar bada, ezer egiten ez delako, ni prest nago justifikazioak onartzeko (ezin esan daiteke orain artean behintzat gerra haundirik eman diogunik Gobernuari euskararengatik): euskara bera hola eta hola dago, ez da Gobernuaren errua; Alderdiarekin problema hau eta hau dago, ez da Gobernuaren errua; hau da Parlamentuko egoera: gehiago egiterik ez dago. Konforme. Ikus dezagun egoera honetan halere zer egin litekeen. Baina ez dezagun inpotentziatik orain inpotentziaren ideologia legitimatzaile bat egin, ezintasun praktikoari printzipio-itxura bat asmatuz, egin daitekeen hoberena ezer ez egitea dela erakusteko.

Azkenean hauxe da Sarasola esatera datorkiguna (eta puntuz-puntu jakitea erraza ez bada ere, oso zabaldua dago, jeneralean Mitxelenaren eritziak azaltzen omen dituela): Gobernuak berak neutral geratu behar duela, inhibitu egin behar duela alegia, gaur egun elkarren lehian ari diren ikuspegi eta joera guztiei hedatzeko aukera emanez, are (UZEIkoa, erlatiboki, nahikoa bultzatua dagoenez gero) bestelako joerei gehiago lagunduz.

Dagoen-dagoenean (artikulu labur baten derrigorrezko mugak ez ditut ahazten) proposapen-modu hau neuri ez zait onargarria iruditzen eta neure ustea oinarritzen saiatuko naiz. Nire arrazoiak funtsean bi hauek izango dira: proposapenari konkrezioa falta zaiola, bideragarritasunik ez dela erakusten alegia; eta, bigarren, Gobernuaren eginkizunen kontzepzio «liberal» faltsu batetan sostengatzen dela.

Errazago jarraitzeko, Sarasolaren kritika funtsean hiru ideion

kritika izango dela aurreratuko dizut: 1) joera ezberdinen arteko lehiaketa librearen ideia; 2) sintesiaren ideia; 3) Gobernuaren eginkizun «neutrala»ren ideia.

Zoritzarrez inon ez digu esaten Sarasolak, non ezarri nahiko lituzkeen arrazoipide honen balioaren mugak: ez da esaten, euskara batua nahikoa bultzaturik dagoenez gero, Gobernuak Euskerazaintza indartu beharko ote lukeen, esate baterako (kasu, gauza bat da *guztiei laguntzea*, edozeinek onartuko genukeena, eta beste bat *guztiei laguntzeagatik* eredu edo joera bat ez primatzea!). Edo Euskaltzaindiak aholkaturiko bidea aski indartsu denez, Krutwigen joerari lagundu behar ote zaion (eta gehiago, besteak aski indartsu direlako). Noraino eta nola balio du *guztiei laguntzeko* printzipio honek? Esfera batzuetan edo, gutxienez, ez da inor primatu behar? Denak berdindu?

Alde txar bat, Sarasola ohartzen denez, nahitaez horrela sortuko den kaosa izanen da. Baina «ongi etorria (...) kaosa, inoiz egoera hobea batera heldu nahi badugu nahitaez igaro behar dugun purgatorioa baita». Izan ere hiztegiaren egiazko finkatzeak *sintesi bidez* etorri beharko du halabeharrez, «nonahi eta noiznahi gertatu den bezala», Sarasolak dioenez (hiztegia, hemen hizkuntz ereduarekin erlazioan hartu beharko dugula, pentsatzen dut).

Hau dena oso jenerala da, praxian eta konkretuan honetara bihurtzen dira kontsiderazio orokor horiek: «Jaurlaritzak aukerabide bakar baten alde apostu eginez, itxuraz soilik konponduko luke arazoa. Aterabide bakarra zera da: jokaera bakoitzari behar adina laguntza ematea, beste jokaeren berri jakinda ihardun dezala eskatzea, eta hitz edo hitz-sailen bat gehiengoaren —*gehiengoaren*— onartzea lortzen duenean soilik bultzatzea edo onartzea». Eta konkretuago oraindik, lehen esan den eran: «Jaurlaritzak (...) beste aukerakizunak bultzatu beharko lituzke, UZEIrena, erlatiboki, nahikoa bultzatua dagoenez gero».

Proposapen alternatibo hau xeheki examinatzen badugu, tamalez oso ilun, jeneralegi, aurkitzen dugu dena: zenbat da «behar adina» laguntzea? Behar adina lagunduz gero denok kontentu. Kaos eta purgatoriotatik, orain artekoarekin aski dugula, esango nuke nik. Sintesia zer izango litzatekeen ere ez da ikusten (Olabideren eta Arestiren «hiztegi-sintesia» imaginatzen dut): eta ez da ikusten, inon konkretatzen ez delako zeintzu diren «beste aukerakizun» horiek. Ezta, sikeran, aukerakizun horietan *de facto* lanean ari diren talderen batzuk, ulertu behar ote di-

tugun (UZEI, etab.); ala noizpait proposatu izan direnak eta gero, edozergatik, praxian mamitu gabe geratu direnak (Krutwig, etc.); edo baita noizpait praktikatu izan direnak eta gero baztertuta bezala geratu diren batzuk (gerra aurreko textugintz esperientzia batzuk adibidez); edo eta edozeini burura dakioken edozein aukerakizun..., sintesia (berez nonbait) eginez joan dadin polliki-polliki. Ez da esaten aukerakizun horiek euskara batuan egon behar ote luketen, ala edozein euskalkitan (Zuberoako euskalkia babesten Jaurlearitza, sintesirako oso inportantea izan daitekeelako). Ez da esaten aukerakizun bakoi-tza (euskara batua eta euskalkiak, esaterako) zein mailatan, edo esferatan, indartu beharko litzatekeen, ala guztiak guztietan indartu behar diren. Ezer ez da konkretatzen: «Beste aukerakizunak» esaten da, gero sintesia, kito.

UZEIrena izen eta aukerakizun oso ezagun eta konkretua da, esfera jakin batetan funtzionatzen duena (ez litzaioke inori burutik pasako, «UZEIko euskara» nobelagintzan edo ipuinetan indartzea, edo UZEIri haurrentzat tebeoak euskaraz egiteko enkargatzea). Gutxienez bitxia da, bitxia baino gehiago seguruen, kontextu honetan, Jaurlearitzak haren aldean gehiago bultzatu beharko omen litzuzkeen bestelako aukerakizunen tesia hain sendo proposatzea, alde batetik, eta hain aidean uztea bestetik, alternatiba horiek zeintzu diren *de facto*. Gure mundua eta bereziki normalizazio-lanetako mundua ez dira hain konplexuak, neke haundirik gabe izen-pare bat bederen ezin aipatu izateko. Euskerazaintza? Krutwig? Oregi?... Denak. Zer gertatzen da orduan «sintesi» delakoarekin? Horrela, dena dela, badakigu Sarasolaren ustez Jaurlearitzak zeini *gutxiago* lagundu beharko liokeen, gehiago zeini eta non ez badakigu ere. Sintomatikoa, edonola ere, hasieratik garbi-garbi dagoen tesia zein den eta beste zeintzu diren ilun edo anbiguo gelditzen direnak hemen ere kontrastatzean.

Ilun dago, baita, Jaurlearitzak onartzeko, aurretik behar omen den «gehiengoaren —*gehiengoaren*— onartzea» nola neurtzen den: hitz arruntetan edo aspaldikoetan errazago, baina hitz tekniko berri baten onarpen-gradua jakiteko, adibidez, eskolako usadioan ala non neurtzen da gehiagoa? Eta nola, noiz neurtzen da gehiagon, elkarren lehian dabiltzan joeren arteko goiti-beheitien presupostutik abiatu garenez gero? *Jaurlearitza*, esate baterako, zenbait esferatan askoz gutxiago erabiltzen da *Gabernu* baino; beste esfera batzuetan aski errotua dago *Jaurlearitza*: «Gobernua» ez bata eta ez bestea erabili (eta ofizialdu) behar ote luke, gehiengoak zein onartzen duen ikusi arte? Ez ote

da alderantziz izaten: agian frakasatu egingo duela *Jaurlaritza* sartu nahiak, baina probisionalki bederen aukeratu eta ofizialdu beharra dagoela baten-bat? Euskara batua ere ez ote da horrelaxe egin (eta frakasa zezakeen arriskuarekin), euskalki bat primatuz? Eta ez al da berdintsu izango beste guztietan?

Gehiengoaren kontuari jarraituz: oraingoz eduki daukagun praxi apurrari begira, hizkera teknikoaren barrutian bederen ez dirudi zaila, gehiengoaren onarpen probisionala zein «ereduk» daukan argitzeak. «UZEI»k, nonbait (adiera zabalean: *Elbuiyar*, etab. barne): «monopolioa» salatu zaio behintzat, eta istilua ere horregatixe sortu omen bait da. Sintesia funtsean eginda legoke orduan...

Bestalde, badirudi sintesirako bidea «selekzio natural» darwiniano baten antzera, edo hobeki merkatu kapitalista arras liberal baten autorregulazioaren antzera lehiaketaren bidez, bururatzeko duela: utz elkarren lehian joera kontrarioak, denak indartu eta gero, azkenean hiztegiaren egiazko finkatzea sintesi-bidez etorriko da eta, «nonahi eta noiznahi gertatu den bezala».

Historikoki (ereduei gagozkiela, noski, ez hitz bakan batzuei) nik ez dut uste hori horrela denik, ez noiznahi eta ez nonahi. Hori idazterakoan ez dakit Sarasolak zein nonahi eta noiznahiko kasu historikoak izango zituen gogoan. Nik, Finlandian Estatuaren interbentzioz egin zela hizkuntzaren normalizazioa, irakurri dut beti. Berdin Txekoslovakian. Soviet Batasunean, Urriko Iraultzaren ondoren, Estatuak bera ahalegindu zen biziki errusiera modernizatzeko (erreforma), zer esanik ez hizkuntza txikiago eta gutxiago desarroilatuekin. Jugoslavian Titok eginarazi zuen serbo-kroata, exito gehiegirik ez duena nonbait. Berrikiago «albaniar batua» Estatuak eginarazi du eta Estatuak jarraitzen du gero normalizazio-prozesua gaur egunera arte, etab. Nola nagusitu ziren beren garaian gaurko frantsesa eta espainola berak, Boterearen babesean eta «dekretuz» ez bada?

Esan diezagula Sarasolak hizkuntz eredu diferenteen artean non nagusitu den *sintesia* berekasa, polliki-polliki, Boterearen interbentzio gabe («*Poder*, Mitxelena esaten zuen legez, es polivalente»). Hizkuntz ereduak esaten dut, ez hitz bat edo beste.

Izan ere, Sarasolak hemen planoak berriro aldatzen dizkigu bat-batean, bere tesia arrazonatzerakoan: UZEIren ofizialtze arazotik hasi eta salto batetik *hizkuntz eredu*en ofizialtze joan zaigu lehenengo; eta orain ereduon ezin inposatzetik edo sintesira nola iristetik hitz partikular batzuen nagusitze mailara, fro-

gak eremu honetan aurkitzeko. Jakina, froga horiek ezin dute ezer frogatu, arazotik kanpora dabilta eta: 1926an Euskaltzaindiak hitz bat «ofizialtzen» du eta geroxeago galdu egiten da; «aberri» hitza seguruenak sekula ez da ofizialdu izan eta denok erabiltzen dugu. Konklusioa: hizkuntz eredu bat ez dago dekretuz ezartzerik. Bai? Hori ote da konklusio frogatua? Hasteko, nik «agizko-aurre» eta «aberri» bezalako hitzak ez nituzke bi eredutakotzat hartuko, bat eta berekotzat baino. Eredu berbaten barruan gerta daitekeela, esango nuke, hitz bat galtzea eta beste bizirik ateratzea. Gero, bistan da, gauza bat dela hitzen bizitza (eta hitzonen bizitza-legeak) eta beste bat haiek «ofizial» deklaratu ditzakeen «dekretua». Hau da, 1926ko Euskaltzaindiak ez zuen «agizko-aurre» finkarazteko indar sozialik, bere eremuan (*Euskaltzaindia* hitza finkarazteko, ordea, bai); eta PNVk bazuen «aberri», «ikurrina», etab., bere eremuan finkaraztekoa. Kito. Eta zer? Hizkuntz ereduari buruz zer? 1971ko *Euskal Literaturaren Historia*-ren egileari ezingo zitzaion ahaztu, nik uste, PNVk, gaurkoa baino kaskarragoa izan arren, Gobernuan egon gabe, askoz medio gutxiagorekin, izan zuela beste zerbaitegarako ere indar sozial aski: hitz-pare bat ezezik, *hizkuntz eredu bat aldi batetarako nagusiaraztekoa*, beste tradizio literario aski boteretsu bat hankaz gora boteaz gainera. Eta hizkuntz eredu horrek, eusten zion indar sozialak adina iraun du.

Beraz, nire konklusioa bestela da: hizkuntz ereduak botere-bidez nagusitzen dira, ez beste inola. Zer zen, boterea besterik, «arrazoi biologikoa» bera?

Arazoa zinezko indartze sozialarena da, ez «ofizialtasun-txartel» edo «dekretu» formalen batena. Boterea eta dekretua edo ofizialtasuna bi gauza dira, hizkuntz arazoan hain zuzen askotan oso batera joaten badira ere (ikus dugu ofizialtasun ezak euskarari zer ekarri dion). Eta, bigarren, arazoa, Sarasolaren hitzetan esateko, hizkuntz ereduena da, ez hitz bat edo beste-rena. Beti izango da posible, joera edo instituzio ofizialak «kapitulua» erabakitzea, eta ez-ofizialak halere «atalburu» nagusiaraztea. Alderantziz berdin, errazago. Baina joeren arteko elkar zuzenketak dira horiek, ez «sintesia». Euskararen normalizaziorako ere zein eredurekin jokatu, erabaki beharko da lehenengo. Eta hura indartu.

Azkeneko puntua azkenik, barnean dagoen kontzepzio politikoarena, Gobernuaren eginkizunei buruz. Sarasolak perspektibak aspikoz gora edo, ez dakit, atzekoz aurrera darabiltzala, iruditzen zait. Hau da, planteamendu politikoa linguistaren pers-

pektibatik egiten duela. Harrigarria zait behintzat Gobernuaren eginkizunen ikusmolde hori: erabakia «hor nonbait» erabakiko da, azokan edo, lehiaketaren eremu azkengabea. Bitartean Gobernua begira dago (espainolez ari, pentsatzen dut, neutralago izateko), kanpotik eta neutral, borroken gainetik. Eta zerbait gehiago onar dezanean bakarrik onartuko du Gobernuak ere. Gobernuaren abstentzionismo- edo neutralismo-antzeko zerbait proposatzen da hortakotz (ez, alabaina, erabatekoa, interbentzionismo bitxiena gaineratzen bait zaio: justizia kosmiko baten antzera, indar sozial gutxiago duten joerei laguntza gehiago eman-go die). Azken batetan Gobernuak ez du berak deus erabakitzen, publikoan erabakita geratu dena onartzen baizik. Demokratikoago ezina. Hain ezina, Eusko Gobernuak, orain beron, majo abstenitzen delarik, ez bait du praktikatzen. Horrelako konstrukzio bat paperean bakarrik egin liteke.

Menturaz egoera normal batetako arazo normalen artean horrelaxe jokatu beharko luke Gobernuak. Hots, indar *sozialek* nagusiarazten duten hizkuntz eredu hartu eta ofizialdu botere *politikoak*. Baina hemen eredu bera bait dago sortzeko (euskarra normalizatua bizitza publiko guztirako): eta horixe sortzea bait da problemaren gako guztia. Momentu honetan, larri baino larriago gabiltzala (euskararen heriotza posibilitate ondo erreala da), joera desberdinak elkarren lehian dabiltzalako, programa harrigarri hori gomendatzen zaio Gobernuari: ez alderdi hartu, egon neutral sintesia egin dadin arte. *Laissez faire, laissez passer* batez ere.

Zertarako behar ote dugu Gobernurik, galdetuko luke batek, gobernatu behar ez badu? Irabazitako borrokak irabazteko aski ginen geu bakarrik, Gobernu gabe.

Hau dena, PNV barruko tirabira eta kontraesanen kontsiderazio askotxo ez bada, izan liteke Hiztegi Arauemaileko lanaren eta metodoaren transposizio bat. Hizteggileak (hizkuntzalariak) ez du berak erabakitzen; bilatu egiten du zer dagoen «erabakita» (printzipioz, ze praktikan gauzak ez bait dira beti hain erabakita etortzen) eta hari ematen dio bere hiztegian lehentasuna. Hori ez da, ordea, geroa egiten, ez iragana biltzen, dabil-tzan eta euskararen normalizazio soziala, ez hiztegi arauemaile bat, egin behar duten politikoen kasua.

Gauza bat da normalizazio *linguistikoa*, bere maila guztietan: hori ez da politikoen egitekoa, printzipioz neutralak izan beharko lukete, linguistek emandakoa onartu (linguistikoki erabakita-

koa politikoki erabaki). Beste bat normalizazio *soziala*: hori politikoen egitekoa da, instituzio publikoarena. Lehenengoa egina balego, politikoen lana hura inplantatzea besterik ez litzateke izango. Baina egin gabe bait dago, politikoez, bigarrena egin ahal izateko, lehenengoa eragin beste erremediorik ez daukate. Zoritxarrez, normalizazio linguistikoa egiteko *obligazio* daukanik inor ez dago gizartean; soziala egitekoa daukana bai: Gobernua. Hor dago koxka. Politikoak, horrela, beren zorigaiztorako, lehenengoa ere inplikaturik geratzen dira. Eta ez daukate inplikatu gabe gertatzerik.

Situazio benetan zaila politikoa: *kriterio politikoekin, funtsean kriterio politikoek balio ez duten kanpo batetan, ausartu eta arriskatu behar*ko dute. Problema horren aurrean konprenstioa eskatzea eta dena, nik onartzen dut. Baina egin beharra daukate, normalizazio sozialaren beren eginbeharra bete nahi badute.

Drastikoki esan: arazoa normalizazioa denez gero, auzitan ez dago UZEI, auzitan Gobernua dago. Gobernuak zeinekin eta nola egin normalizaziorako behar duen euskararen prestakuntza. UZEIrekin egin nahi duela? Ederki. UZEI gabe? Ederki, baita. Hori bere kontua du eta pragmatismo-kontua. Baina egin dezala.

Gobernua problemaren gaintetik eta libre jartzen duen planteamendu bat, oso Gobernuaren adiskidezkoa dela, pentsa liteke. Soluzio bat ematen diola bere larrialdian (Urkirirekin eta Uxo-larekin haserretu beharrik ez du izango; Bizkaiko independentista linguistikoeekin bakea egin ahal izango da). Baina ez nago batere seguru hala denik luzarora. Interes kojuntural batzuegatik etorkizuna askotxo hipotekatzea iruditzen zait. Orain batua/ez-batua, h/ez-h, garbi/mordoilo, Alderdian dauden istiluen-gatik, normalizazio-arazoan neutral geratzeak, luzarora, eginkizuna zailagotzea besterik ezin ekar lezake. Gaur zaila dagoena, bihar ez da erraza egongo. «Zaharrak hil ala» konpontzen direnatakoak ez badira behintzat problema denak...

Seguruagoa iruditzen zait neri, bitartean kaosa haundiagotu egingo dela, Gobernuaren kreditoa gutxitu euskaltzaleen artean (beraz, kolaborantza zailagotu edozein sentidotan), euskaltzale-tasuna bera eta euskara indartzeko motibazioak itzali gizartean..., normalizazioa, azkenean, zailago bakarrik ez, imposible bilakatu. Arazo hau ez dut uste biharko uztea dagoenik. Gaur da aski berandu.

Galdera bat ezin dut kendu burutik: Sarasolaren plante-

mendu honetan, ez Estatuturik eta ez ezer gabeko edozein administrazio demokratiko baino *zertara gehiago* gelditzen da obligatuta, agian diru gehixeago ematera aparte, Eusko Jaurlaritza? Euskararentzat berdin ote da Eusko Jaurlaritza bat eduki ala «Espainiako tesoro historikoak» begiratuko lituzketen Gobernu Zibil kulturalista eta eskuzabal samar batzuk soil-soil eduki? Euskara eta Eusko Jaurlaritza: pentsatzeko gai bat... Bi urte Eusko Jaurlaritza pasa ondoren, harekin hain exigentzia gutxi duten planteamenduak oraino posible badira, dena dela, Jaurlaritza hark berak horixe ematen duelako izango da. Zeharka bederen, ez ote da akusazio bat planteamendu horrek egiten diona Eusko Jaurlaritzari? Bi urte honetan PSOE edo egon izan balitz Eusko Gobernuan, eta gero teorizazio bat egin balute Gobernuaren eginkizunei buruz euskararekin, seguru asko gauza berdintsua izango zen, aterako zuketean planteamendua: utzi, utzi... Filosofia denak egoten dira errelitateak baldinpetuta. Beraz, hauek badira teoriak, bi urte Eusko Jaurlaritza eduki eta gero, horra nolakoak diren, planteamoldeok posibletzen dituzten errealitateak. Bi urte pasa eta gero...

7. — Prioritateen kontua

Mitxelenak UZEI kritikatu omen du: horretan ari zaigu norbait behin eta berriro. Eta gezurra ez da. Baina egia, egia ote da? Axal-axalean geratu gabe Mitxelenaren arrazoiak barnerago begiratzen badira, beste konklusio batzuk berdintsu atera litezkeela, ikusten da. Adibidez: «Mitxelenak Euskaltzaindia kritikatu du». Gutxienez UZEI adina bai. «*Elbuyar* kritikatu du, ikastolak, UEU». Hori da kontua.

Mitxelenak benetan kritikatu duena UZEI baldin bada, gus-tatuko litzaidake niri esplikazio bat, atera dituen adibide konkretu guztietan zergatik Euskaltzaindia askoz akusatuagoa gertzen den UZEI baino, esate baterako. Eta Mitxelenak UZEIko hiztegiak txarrak direla, esan baldin badu (hori omen bait da inork bueltatzen ez dion sakea!), ez ote duen esanago, Euskaltzaindiak egin dituen gauzak, normalizazioan, askoz txarragoak direla. Edo *Elbuyar*-enak, etab., berdin da. Hobeto ikusi nahi duenak, egin beza zerrenda bat, puntuz puntu, kritikatu duen guztiarena. Eta begira beza zeini zenbat dagokion.

Utz dezagun hori.

Normalizazio prozesuan egiten ari garen gehiena, edo dena,

kritikatu du Mitxelenak. Agian euskararekin alderdi horretan daukagun panorama guztia da, Mitxelena disgustatu duena eta goitik beheraino denaren birplanteo radikal bat erro-errotik izango litzateke orduan, eskatu ere eskatu duena. Ni, oro har, ez nintzaioke oso deskonforme egongo. Badu, bai, birplanteo radikal baten beharra euskal kulturgintza guztiak. Eta, Gobernuak politika linguistiko global bati zinez ekin nahiez gero, agian posible ere izango litzateke birplanteo sakon bat.

Ni, honetan, esan beharra daukat argi eta garbi, «instituzionalista» naiz, kontsekuentzia guztiekin. Euskarak instituzioak behar ditu. Instituzio publikoak. Garbiago esan: euskarak PNVren beharra dauka, Gobernuaren beharra dauka, eta Gobernuaren hizkuntz politikari euskaltzaleok laguntzearen beharra. Hori garbi dago. Euskarak ez dauka «arazo pribatua» izaterik.

Hain zuzen horixe espero dugu Gobernu honengandik: euskara salbatzeko programa bat. Indartzeko programa bat. Euskadi berreuskaldunduz joateko programa.

Eta horixe da ez dagoena. Dagoena, euskal kulturgintzari begirutzen badiogu, programazio baten koherentzia eta logika gabeko taldeak edo sektoreak eta ekintzak dira. Han euskal prentsa, hemen ikastolak, hor UZEI, bestean AEK, Euskaltzaindia nondibait, narratiba berriaren ahaleginak desanparoen, argitaketxe bakoitzaren bere politika... Hor dabilta denak, bakoitza bere aldetik. Batzuk gaizki, besteak ez ondo. Baina «militantismoaren» miseria honetatik ateratzeko planik, koordinaketarik eta programa globalik inon ez dago. Hau, ordea, inondik etortzekotan, Gobernutik bakarrik etor daiteke.

Euskara salbatu, denok nahi dugu. Hori ez da aski, esango da: gerta liteke, salbatzeagatik, lana gaizki egiten delako, lardaskatu eta hondatu egiten dugula euskara (*uiuendi perdere causas* hura). Ez dut erraza ikusten, baina ukatu ez nuke egingo, gerta dakigukeela hori. Guk daukagun klasikoak edukirik eta, esaterako, Axular, etab., asko beldurtzerik ba ote dago zentzu horretan? Dena dela, momentu honetan problema hori egiaz larrizat jotzen duenak, ez zeukan zergatik geratu «arriskua dago» jeneral eta orokar soilean: joka daiteke konkretuago, guztion lagungarri, bai okerrak zuzenduz, eta orientazio konkretuak emanaz, arauak (eta Euskaltzaindiak, ez ote du ezer egingo?). Linguistek nahi adina barruti dute hor, nahi adina

kritika egiteko, nahi adina irakasteko linguista ez garenoi. Eskertuko genieke laguntza hori.

Euskara lardaskatzearena baino askoz larriagotzat daukat nik, halere, momentu honetan, euskara salbatzeko plan faltaren problema. Gobernuaren programarik ezarena. Euskal kulturaren dauden talde eta erakundeen dispersioarena eta abandonuarena. Birplanteo bat, hortakoz, behar-beharrezkoa iruditzen zait. Eta eztabaida publikoa behar baldin bada, horretarako ez dut uste inor debate publiko baten aurka egongo denik, Gobernua bera ez bada behintzat. Ze guzti hau Gobernua gabe eztabaidatzeak zentzurik batere ez bait du, deporte hutsarena ez bada. Eta deportetarako badaude hobeak.

Izan ere, oso enpeinatuta dabil norbait, istilu guzti honen barne-barnean dagoen arazoa eta «izpiritua» prioritatea omen dela. Eta egiazko gaia hori izan arren, inork ez diola heltzen burdina goriari. Aurrenik prioritateak erabaki behar omen dira.

Erabaki, nork erabaki? Teoriaren teorian, prioritateak edozeinek erabaki ahal izango lituzke. Hitzegite hutsa izango litzateke, ez luke ezer balioko. Hitzegin, ordea, aski hitzegin da. Ez da hori falta dena. Prioritateak erabakitzea eginkizun politikoa da. Politikoena. Boterea duten politikoa. Eta beren filosofiaren arabera, politika orokarraren barruan, markatu behar ko dituzte prioritateak. Hori ez bait dago kultur eta hezkuntz politika guztiaren barruan isolatzerik. Orain artean behintzat puntu horretan aski abstenitu bagara, politikoen errespetuagatik izan da. Euskarak ez du inoiz erakunde publikoen ardurarik izan, hots, politika linguistikorik. Eta politika linguistikoa serio bat goizetik gauera asmatzerik ez dagoela, denok bagenekien, bai goian ta bai behean. Gobernua baldin bada, alabaina, hutsegiten duena, ez dago zergatik beste inora joan haren erruen errudun bila. UZEIko langile sakrifikatuengana gutxien-gutxiena.

Ez dago eskubiderik, prioritateen arazoak euskal kulturaren orain arte sekula aipatu ere egin ez balira bezala etortzeko, arazoa hori dela berak deskubritu uste duenaren haizeekin. (Ikaragarria da nolako desprezioarekin tratatzen duten beren ustezko periodista superkultoren batzuk euskal kultura guztia!). Mila aldiz eztabaidatu dira gorabehera horiek, mahai-inguruetan nahiz idatziz: hitzegin, mila aldiz hitzegin da liburu politikaz. Haur eta gazte literaturaren lehenasun beharraz eta egon diren diferentziak, ezagunak dira, Iosu Zabaletaren (*Hor-*

dago, EE) posturak adibidez. Literaturaren eta normalizazioaren arteko arazoez eta prioritateez ikustea dago *Ob Euskadi*. Literatura «garaia» ala kontsumo literatura potentziatu, aspaldikoa da, ez beti oso gozo eztabaidatua. Aspaldikoak ikastoletako eztabaidak, hiru (edo lau) eredu en gorabeherak, adibidez, inplikatzen duen guztiarekin. Aspalditxokoak Siadeco-ren «Hizkuntz plangintza batetarako oinarriak» ere, oker ez banago Euskaltzaindiaren beraren enkarguz prestatuak gainera. Aspaldikoagoak, oraino, Rikardo Arregiren prioritate seinalapenak, gero mila aldiz gogoratuak eta berraipatuak (eta AEKren hasierak, esaterako), etab, etab. Ikusi nahi duenak badauka zer ikusi. Azkenean Leioako «Euskalarien nazioarteko ihardunaldien» (1980) inguruan ere makina bat istilu sortu bazen, prioritateen arazoagatik izan zen. Eta prioritateen arazoa beti egon da nolabait presente euskal munduan. Besterik pentsatzea, euskal munduan denok espontaneista inuxente hutsak garelako pentsatzea da.

Gertatzen dena, da, orain, eta oraingoz, euskaltzaleok prioritateen arazoa nahitaez puntu partikularrei buruz bakarrik eta barnekaldera planteatzen genezakeela, oso mugatuki: prioritateak ikastolan, prioritateak prentsan, prioritateak literaturan, etab. Nola erabaki *genre* ekintzaren barruan prioritateak. Eta ez daukagula, orokarki eta globalki, prioritateak *programa global* batetan planteatzerik, hezkuntza eta kulturgintza osoari buruz, horrek eskatuko lukeen guztiarekin eta moduan. Hori, izan ere, amets bat edo kixotada bat izango litzateke, edozein partikularrek bere gabinetean eginda; gobernu programa bat izango litzateke, gauzatzeko boterea eta gogoa duenak (eta datuak) eginda. Eta hori, edo Gobernuarekin bakarrik egin ahal izango litzateke (Gobernuak euskaltzaleekin batera egin nahiko balu), edo Gobernuak bakarrik egin lezake sentido piska batekin.

Horixe da Gobernuari kritikatzeko zaiona: ez duela plan globalik. Hau da:

- ez ditu markatu prioritateak, berari bait dagokio eta ez besteri.
- normalizazioak euskaltzale guztien kolaborantza eskatzen badu (hau ere plangintzan sartzen da): daraman politikak gehiago dirudi euskaltzaleak Gobernuarekin zapuztaraztekoa, haiek biltzekoa eta elkarlan giroa sortzekoa baino.
- normalizazioak Euskadi osoarekin (euskaldunak ez direnekin ere) kontatu behar badu, Gobernuak oso

gutxi egin du euskararen aldeko giroa bizteko eta indartzeko, dinamika sozial bat sortzeko. Beste enpeinu bat ikusi da Lemoizen inguruan jendea mentalizatzeke.

Badirudi, euskararen interesa sozialki gutxituz doala (Alderdien baitan ezin askoz gehiago gutxituko da); euskaltzaleok elkarrengandik inoiz baino urrunago gabiltzala, bilduago ibili ordez. Atzeraka goazela, beraz, eta euskararen aldeko ekintza bortitz bat, kanpaina bat, geroz eta zailagoa izango dela. Zabalduz doa desanimoa eta dasanimo honetan Gobernu ez dago zerikusirik gabe (*Muga*-ko artikulua, berriz, ez dakit inor oso animatuko ote zuen, bestela ere euskaltzaleok aldizkari hartatik animo askorik inoiz ez dugu hartzen baina). Martxa honetan, zer eginik ez dagoenean etorriko dira... planak eta programak. Eta Irlandara joango gara. Zetorren bultzada eta dinamika aprobetxatzen behintzat ez da jakin.

8. — Normalizazio linguistikoaren gaurko planteamenduak.

Errealismoa eta prioritateak begiratu beharra aspaldiko gaiak ditu Mitxelenak. Maximalismoen kritikak ere. Eta, beste gauza askotan bezala, Mitxelenaren aspaldidaniko zenbait jarraitzaile horretan ere jarraitun izan da. Gainera Mitxelenak arazo pertsonalak ere baditu horiek: kritiko batek baino gehiagok bota izan bait dio, berak bere lan zientifiko guztia erdaraz egiten duela (horrelakoei buruz, errealismoaren eta prioritateen arazoak ere planteatuz hortakoz, eta arrazonatuz, 1956, 1960, 1969, 1974, 1977, 1980, gutxienez, ikusi dugu: Mitxelenaren apur bat ezagutzailereantz ez zegoen, beraz, *Zeruko Argia* galduren bat misterioitsuki desenterraten ibili beharrik, ridikuloa da. Euskal Herriko Unibertsitateaz mintzatu den bakoitzean atera izan du gai hori bestalde: Bilboko Santiago Apostolera joan beharrik ez zegoen jakiteko). Eta ni neu, esate baterako, guzti horretan Mitxelenaren arazoak arazoizkoak iruditzen zitzaizkidan haie-tako bat izaten nintzen: «si la teoría de la relatividad se hubiera escrito en euskara...» Lotsa piska bat ere sentitzen genuen, oraino ez gaitu eta erabat abandonatu zentzu komunak.

Ni esaten dut eta gu esan beharko nuke: sentiera berdintsua ikusi bait dut beti UZEIko lankideen artean.

Beste edozein gauza bezala mundu honetan, ordea, UZEI

bere inguruko eta barneko errealitateak baldinpeturik sortu zen, eta haren planteamenduak ere, bere azieretoekin eta failoekin, nahitaez historikoki kondizionatuak dira, denborak erakutsi-ala berrikusi eta birmoldatu beharrezkoak. Inor ez da lege horretatik salbatzen eta UZEIk ez dauka zergatik salbatu. Baina hori ez da arrazoirik, Ibarzabalek egiten duen eran, UZEIren proiektu guztia kixotismo edo extremismoren obratzat hartzeko.

Edozeinek onartuko luke UZEIn, uste dut, honelako sententzia sakon bat: «Es hora de fjar sin demora unos criterios de ámbitos de utilización del euskera y, a partir de ellos, los grados, dentro de un plan racional y progresivo». Halaxe da, eta oraindik egin ez bada, ikus bedi zeinena den hutsegitea. Edo beste hau ere: «Plantear la política lingüística en función de un planteamiento doctrinal y abstracto [noiz planteatu ote du UZEIk sekula «politika linguistikorik»?], sin referirse a las condiciones reales de nuestro país puede llevarnos a un callejón sin salida». Honelako jeneralidadeekin ez da erraza deskonforme egotea. Baina Gobernuaren edo ez dakit zeinen problema horiek ez lirateke UZEIren gainera projektatu behar. Beste hau, aldiz, ez dut uste inola ere egia historikoari dagokionik: «UZEI responde a muchas cosas, entre otras a una angustia por euskaldunizar «ahora y de arriba abajo» [zer aipatzen da hemen?] a este país? (*Deia*, 1892-1-24),

Guztiz alderantziz UZEIk, sortu zenean, momentuko baldintza errealean, premien eta posibilitateen azterketa errealista bati erantzuten zion, bere trajektoriak erakutsi duen moduan, inguratu zaion hainbeste jendek batez ere. UZEIk historikoki zeri erantzun dion, irakatsi nahi diezagunak, ondo egingo du, sortu zen aurreko eta uneko azterketen eta dokumentuen bidez argumentatzea. Bestela, norbere kaskoa eta susmoak beste oinarri gabeko «interpretazioek» ez digute deus balio.

Ez dut uste, halere, oraingo gure problema hori dugunik, UZEIren defentsa historiko bat egitea izan behar duenik ere. Nire lana behintzat ez da. Problema beste hau da: UZEI errealitate batetan sortu zela eta oraingo errealitatea bestelakoa dela. Garai bateko haren planteamenduak agian zerbait desfasatuak egon litezkeela beraz. UZEIren planteamenduak botere publiko batek asumitu nahi izatekotan batez ere.

UZEI 1977an sortu zen. Orduko gure ustez euskal kulturako lorpen nagusia, frankismoaren azpiko urteetan, irakaskuntzan zegoen: ikastoletan. Kontuan eduki behar da nola baloratzen

zen konkista hori, birkonkista nazional bezala; eta orduan euskararen etorkizunerako gure hizkuntzaren irakaskuntzan finkatzeari ematen zitzaion inportantzia (euskal TB batetan ezin amets egin ere!). Urteotako euskaltzaleen kontzientzian, euskararen planteamenduetan beti leku zentrala irakaskuntzak hartzen du: ikastolek, lehenengo; eta, 1976az gero, Unibertsitateak.

1973az gero Udako Euskal Unibertsitate (UEU) bat ibili bazebilen, Ipar Euskadin, baina 1976an hain zuzen Euskal (edo Euskal Herriko) Unibertsitate baten arazoa pilpil agertzen da kalean. Distritoaren auzia. Urte hartakoak dira J. Lasaren *Universidad Vasca*, Orellaren artikuluko historikoak gai berari buruz, K. Santamariarenak DVn, *El País*-en, *Z. Argia*-n; Mitxelenaeren interbentzioak, mintzoz (Uztaritzen, Bergaran) nahiz idatziz, *Punto y Hora*-n, behin eta berriro, JAKINen, etab., euskal Unibertsitateaz beti. Larri horixe zegoen. Hizkuntzari gagozkiola, bistan zegoen «euskal» Unibertsitaterik ezin edukino genuela, Euskal Herrikoa edukitzea ez zen gutxi. Dena dela, poliki-poliki euskarak Unibertsitatean ere sartu beharko zuela, zalantzarik ez zegoen. Eta, euskara Unibertsitatean lantzeko asmoz, ikasle unibertsitariak beren zenbait elkarte sortuak zituzten (ik. informe bat in JAKIN 1, 1977, 130-135). Giro honetan sortzen da *Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea* (UZEI). Ez, noski, Unibertsitateari bakarrik begira (izenak bat baino gehiago engainatu bide du), euskarari bidea irekitzeko baizik Unibertsitate-RA Beharbada momentuko euforiak baldinpetuenetako gauza bat UZEIren izena bera da, programa bera baino gehiago.

«Zertarako izanen da UZEI? Lerro gutitan esanez, Euskal Herriko unibertsitalaurreko eta Unibertsitateko kultura euskalduntzeko izango litzateke ikas-leku hau. Orain artean ikastoletan burutu den euskalduntzeari segida emateko da UZEI (...). Lehen-lehenik EGB/Unibertsitatean artean betelan handi bat egin beharko du UZEIk, lanabes lagungarriak sortuz, eta baita horretarako irakasleei zenbait laguntza eskeiniz. Baina, beti ere, hortik gora jo beharko du, Unibertsitatera. UZEIk *euskarazko* Unibertsitatea posibleztatzen lanegin beharko luke».

UZEIko Textu-Hiztegien projektua errealista al zen, prioritateen logika batetan primatu behar zena?... Ez nintzateke ezetz esaten ausartuko.

Lehenengo, 1977 aldera azaldu ziren beste asmo edo projek-

tu batzuekin konpara liteke eta neurtu. Adibidez, esperantza guztiak Euskal Herriko Unibertsitate batetan ezartzen zituzten plan moduekin. Berez, euskararen normalizazio linguistikoa izan liteke eskolaren beraren eta Unibertsitatearen eginkizuna. Baina hemen ez da eztabaidatzen printzipioa: euskarak instituzio publikoen barrutik aurkitu behar duela desarroilabidea (Unibertsitate barrutik, ez «Paraunibertsitateren» batetatik; eskola nazionaletik, ikastolatik baino gehiago). Hori onartu eta gero sortzen da errealismoaren galdera: orain eta hemen, zein da jokabide errealistena? Alegia, oraingo eta hemengo Unibertsitatean (inolak transferentziarik gabekoan) nolako errealtatea daukagun ikusirik; oraingo eta hemengo eskola nazionaletan daukagun errealtatea ikusirik. Zein beste plan agertu da orain artean errealistago UZEIrena baino «euskarazko Unibertsitatea posibleztatze» eta irakaskuntzan balioko duen euskararen normalizaziorako? UZEI ez zen, eta ez da, «Paraunibertsitate» baten kontsakrazioa: gure errealtate apalari egiten zitzaion eta zaion kontzesio errealista apala besterik ez da. Eta askoz gutxiago zen eta da euskara goitik behera eta derrigorrean inposatzeko doktrina intolerante itsuren baten produktua.

Bigarren, Hiztegietatik jo izana eztabaida liteke. Horretarako, zergatik hortixe jo zen azaltzeko, historia luze bat kontatu beharko litzateke eta ez da posible. Batez ere 1977ko ikusmoldeak gogoratu beharko genituzke berriro. Besteak beste, ez gehiegi luzatzeko, hauxe bakarrik gogoratuko dut: euskarari «el valor de vehículo de cultura» itzuli behar zaiola, «lenguaje técnico y científico» gisa ere balio behar digula, etab., agertu ondoren, EAJ-PNVren Iruñeko Batzar Orokorrak berak, 1977ko martxoan, «...la elaboración de vocabularios, la utilización del euskera en los medios de comunicación social, etc., son apreciados en todo su valor por el partido» aitortzen zuen. Eta euskaltzaleen arteko giro arrunta, orduko uste korrientea, isladatu besterik ez zuen egiten noski.

Bitartean, alabaina:

- irakaskuntzako errealtatea biziki aldatu da eta aldatuz doa Euskal Herrian, batetik;
- bestetik, eremu eta eske berriak sortu dira normalizaziorako irakaskuntzatik kanpora ere.

Beharbada ordua da normalizazioaren arazo guztia beste modu batzuetan planteatzeko. Izan ere datu berri asko dago, inportanteanean bakarrik bil bait daitezke denak: euskal Botere Pu-

bliko bat (eztabaidatua, baina) badagoela eta, Preautonomikoan ez bezala, (eztabaidatua, baina) abertzale dena hain zuzen.

Errealitate berriak ustekabeen harrapatu gaituela esango litzateke. Programa gabe. Hemen hasten da egiazko problema, gortina guztiekin ere estaltzerik ez dagoena.

Egia esan, honaz gero ez zait erraza egiten jarraitzea, bukatzea alegia. Arrazoi nagusi honexegatik: bere ideiak, analisiak aportatu, edozein euskaltzalek egin dezake; programa egin, Gobernuak egin behar zuen eta, ez bait du egin, berak egin behar-ko digu noizpait. Agian ari da zerbait prestatzen (bai omen): zer, nola, informazioarik ez dago batere. Gure Gobernuak, euskararekiko politikari buruz batik bat, misterio santu hutsa da. Noizean behin egunkarietan albisteren bat egertzen da («zereko zera prestatzeko bideak berehala hasiko omen dira pentsatzen»), edukin konkretu argirik sekula ez da erakusten. Daturik ez dago eta zurrumurruekin hobe da ez operatu. Zain egon beharko dugu Gobernuak bere klandestinitatetik atera dadin arte. Besteak beste, eta bromak aparte, beharra daukagulako. *Dum haec Romae geruntur*, izan ere, galdu-galduta dabil bere kulturgintza apurrean gure Caio gaisoa, betiko euskaltzale sakrifikatu inuxentea.

Lehengo ikastola eta Unibertsitateaz gainera normalizazioaren eskea orain Administrazioan, TBan, etab. gehituz doakigularik, ba, Gobernuak arazo larri honi erantzun egoki bat bilatu nahiko diola, espero dugu, adabaki hutsak jartzera mugatu gabe. Uste dut, gainera, Mitxelenaekin, luzarora esku pribatuetan uzterik ez dagoela «servicios que deben ser públicos» (deben!). Ez dakit zein publikotasun formularekin, baina, uste dut, konkretzio gehiagotan sartu gabe, Euskadiko Orkestra bat sortzen duen Gobernuak, HABE bat sortzen duen Gobernuak, normalizazioaren eske guzti honi erantzungo dion *zerbitzu publiko bat* sortu beharra daukala. Publikoa eta ofiziala.

1982-2-27

J. A.

Mitxelena-UZEI arazoa: Bibliografia

Idazkaritza

Azken aldian eztabaida sonatu bat eduki dugu euskal kulturan UZEI dela eta ez dela, K. Mitxelenaren kritika batzuk abiarazi eta gero zenbait jendek jarraitua. Gerora bere garrantzia izan dezakeelakoan, JAKINEk agertutako eritzien bibliografia osoa ematen die irakurleei:

0. 81-10-23. L. Mitxelenaren hitzaldia CAP/GAK aretoan; Mitxelenaren beraren eta I. Sarasolaren interbentzioak Donostiako Herri Irratian ondoko egunetan.
1. 81-11-07. LIZARRALDE, J.: «Euskal munduko amorrazioak»: *Egin*.
2. 81-12 ARRIETA, J. A.: «Euskara bitartekari finantzarioetan (edo arnasa luzeko proiektu etsi bat»: *Guipúzcoa*. 42 zenb. (CAP).
3. 81-12-21. MITXELENA, K.: «Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia»: *Muga-19*.
4. 81-12-30. UZEI (La Junta directiva y Trabajadores): «Carta abierta a L. Michelena»: *Diario Vasco*.
5. 82-01-02. DEIA: «Koldo Mitxelena eta UZEI erakundearen arteko polemika». DEIA: «'Muga' aldizkariaren azken alean irakasleak eraso gogorra haurti (sic) dio ikastetxeari baita honek erantzun. Mitxelena eta UZEIren arteko polemika bizia hiztegiaren 'monopolio'az»; DEIA (UZEIren karta ere hemen).
6. 82-01-02. LA JUNTA DIRECTIVA Y TRABAJADORES: «Lanean ari eta ari, UZEIk badu kontrariorik ere. Carta abierta al Sr. Mitxelena»: *Egin*.
7. 82-01-03. AGUIRRE, L.: «A L. Michelena»: *Egin*.

8. 82-01-05. AZURTZA, J. J.: «Mitxelena eta UZEI»: *Diario Vasco*.
9. 82-01-05. AMUNDARAIN, D.: «Koldo Mitxelenaren isil-gordeak»: *Egin*.
10. 82-01-06. AZURMENDI, J.: «Zer gertatzen zaio Mitxelenari?»: *Deia*.
11. 82-01-09. ETXEBARRIA, J.: «Mitxelenaren mitoa? ez, eskerrik asko»: *Egin*.
12. 82-01-20. IBARZABAL, E.: («Crónica política»-n): *Deia*.
13. 82-01-12. INTXAUSTI, J. (UZEIko Zuzendaria): «UZEI J. J. Azurtzari»: *Diario Vasco*.
14. 82-01-12. URRUZOLA «UXOLA»: «Una tercera academia de la Lengua Vasca»: *Diario Vasco*.
15. 82-01-14. LIZARRALDE, J.: «Polemika baten arrazoiak eta desarrazoiak. Kapritxo gehiegi eta diziplina gutxi»: *Egin*.
16. 82-01-15. AZURTZA, J. J.: «UZEI'koen lanari burutz»: *Diario Vasco*.
17. 82-01-15. MICHELENA, L.: «Acuse de recibo»: *Deia*.
18. 82-01-16. INTXAUSTI, J.: «UZEIren protesta»: *Deia*.
19. 82-01-15. K. A. «Euskararen normaltze-nahia gure sektorearen barruan»: *Kutzako berriak*. 5 zenb. (CAM).
20. 82-01-17. LIZARRALDE, J.: «Polemika baten arrazoiak eta desarrazoiak. (eta II). Etorikizunari buruz apostu»: *Egin*.
21. 82-01-17. SANTAMARIA, C.: «Cultura y oficialidad»: *Diario Vasco*.
22. 82-01-17. VITORIA CORTAJARENA, M.: «Subvenciones y euskera»: *Diario Vasco*.
23. 82-01-17. IBARZABAL, E.: «¿Se puede criticar a UZEI? («Crónica Política»)»: *Deia*.
24. 82-01-19. TXILLARDEGUI: «U.Z.E.I.-ren alde euskaraz»: *Egin*.
25. 82-01-20. ZAMALLOA, C.: «Un pleito actual: Mitxelena 'versus' UZEI»: *Deia*.
26. 82-01-20. MATXINSALTO: «Mitxelenaren eskubideak»: *Egin*.
27. 82-01-21. UBILLOS, F.: «Mitxelenaren hamar dogma?»: *Egin*.
28. 82-01-22. SARASOLA, I.: «Tinajera muerta vacuando carpeta»: *Deia*.
29. 82-01-22. TORREALDAI, J. M. («Jakín»-en zuzendaria): «Mitxelena jaunari»: *Deia*.
30. 82-01-22. OLARIAGA, A.: Zakilixut. *Egin*.
31. 82-01-24. LIZARRALDE, J.: «Ez dago eskubiderik»: *Deia*.
32. 82-01-24. IBARZABAL, E. («Crónica Política»-n): *Deia*.
33. 82-01-24. LANDA, J.: «Mitxelena, UZEI eta Euskal Unibertsitatea»: *Argia*.

34. 82-01-25. AIZARNA, S.: «(A manera de cuento): Clodoveo, aspirante a dios»: *Hoja del Lunes de San Sebastián*.
35. 82-01-26. TXURRUKA, J. M.: «Mitxelena jaunak idatzitakoari n-garren kritika (I)»: *Egin*.
36. 82-01-27. MENDIZABAL, F.: «Mitxelenari ohar bat»: *Deia*.
37. 82-01-27. GEREÑO, X.: «UZEI eta bere hiztegiak»: *Deia*.
38. 82-01-27. GORROTXATEGI, J. L.: «Un pueblo inculto»: *Deia*.
39. 82-01-28. TXURRUKA, J. M.: «Mitxelena jaunak idatzitakoari n-garren kritika (eta II)»: *Egin*.
40. 82-01-28. UN LECTOR: «Sobre la calidad de unos diccionarios»: *Diario Vasco*.
41. 82-01-28. EGANA, G.: «Ez, gero, euskera bizia ondatu!»: *Diario Vasco*.
42. 82-01-28. PERTINAX: «Euskeranto»: *Diario Vasco*.
43. 82-01-28. LIZARRALDE, J.: «Euskararen arrazoi biologikoak»: *Deia*.
44. 82-01-29. IRURETAGOIENA, X.: «Batasuna eta normalizazioa: testigu bat beraren bi jokaera ezberdin»: *Egin*.
45. 82-01-29. KNÖR, S.: «Hiztegiez hitza eskatuz»: *Deia*.
46. 82-01-30. XABIER, U.: «Fisika euskaraz»: *Deia*.
47. 82-01-30. LIZARRALDE, J.: «Euskal kulturaren haserreak»: *Habe-2*.
48. 82-01-31. URRUJULEGI, J.: «Euskalari erdaltzaleak»: *Egin*.
49. 82-01-31. AZURMENDI, J.: «¿Se puede dialogar sobre UZEI?»: *Egin*.
50. 82-01-31. LANDA, J.: «Oker zabilta, Mitxelena, oso oker»: *Susa-4*.
51. 82-01-31. SANTAMARIA, K.: «'Argia' etapa berri baten aurrean»: *Argia*.
52. 82-01-31. EGIN: «Especial domingo». (6 lerro): *Egin*.
53. 82-02-02. MUGA: «Editorialean»: *Muga-20*.
54. 82-02-02. IZTUETA, P. (UZEIko lankidea): «UZEI-ren Politika-Hiztegia dela eta, erantzun beharrez»: *Deia*.
55. 82-02-03. LANDA, J.: «UZEI-ren lana eta literatura, elkarren etsai?»: *Egin*.
56. 82-02-04. AZURMENDI, J.: «La cuestión del 'monopolio' UZEI»: *Egin*.
57. 82-02-04. ATXAGA, M.: «UZEIren itzalaz baliaturik Aizarnak 'odolkiak ordainetan' Mitxelenari»: *Deia*.
58. 82-02-04. URIBETXE BARRIA, T.: «Euskararen etxea jasotzen»: *Deia*.
59. 82-02-05. LABAYEN, A. M.: «Evitemos luchas intestinas»: *Deia*.

60. 82-02-07. LEGARRETA, J.: «UZEI, X. Gereño eta...»: *Deia* (Bizkaia).
61. 82-02-10. X. X.: «Txorrabide prentsa agentzia»: *Argia*-923.
62. 82-02-12. UZEIko PEOI BATEK: «Ez dugula maite euskera...!» *Punto y Hora*.
63. 82-02-12. IKASTETXE UNIBERTSITARIO ZENBAITEK: «UZEI-ren lana onetsiz agiria»: *Egin*.
64. 82-02-13. UEU: «UZEI-ren lanari buruzko UEU-ren jarrera»: *Egin*.
65. 82-02-13. LIZASO, F.: «'Ea noiz hasten garen errespetoz hitzegtien»: *Deia*.
66. 82-02-13. IRIGOYEN, A. «Vizcainismo supuestamente asombroso y otras hierbas»: *Deia*.
67. 82-02-14. OSA UNAMUNO, E.: «Zientzia, euskara, UZEI, Mitxelena»: *Egin*.
68. 82-02-14. JAUSORO: «Euskararen normalkuntzarako euskal unibertsitatea»: *Argia*.
69. 82-02-14. «Txorrabide Prentsa Agentzia»: *Argia*.
70. 82-02-16. IKASTETXE UNIBERTSITARIO ZENBAITEK: «UZEI taldearen lana positibotzat»: *Deia*.
71. 82-02-17. EGAÑA, G.: «Euskera, arazo biurtuta»: *Diario Vasco*.
72. 82-02-18. LIZEO ALKARTASUNA: «UZEIko lanaren alde gaude»: *Egin*.
73. 82-02-19. UZEIko LANGILEAK: «UZEI informa y responde (I). Hauxe da UZEI»: *Deia*.
74. 82-02-19. UZEIko LANGILEAK: «UZEI informa y responde (I). Hauxe da UZEI»: *Egin*.
75. 82-02-19. M. A.: «Donostian galduta euskaldunak»: *Egin*.
76. 82-02-19. ORBE, M.: «Onarpen sozialak ekarriko du euskararen normalizapena»: *Punto y Hora*-254. 19/26-2-82.
77. 82-02-19. X. X.: «UZEI dela eta...»: *Intxaur-salsa*. Rev. de los estudiantes de la Fac. de Derecho. VI.
78. 82-02-20. UZEIko LANGILEAK: «UZEI informa y responde (II). Zergatik eta zertarako UZEIren hiztegiak?»: *Egin*.
79. 82-02-20. UZEIko LANGILEAK: «UZEI informa y responde (II). Zergatik eta zertarako UZEIren hiztegiak?»: *Deia*.
80. 82-02-21. UZEIko LANGILEAK: «UZEI informa y responde (III). UZEIren hiztegiak zer balio dute?»: *Deia*.
81. 82-02-21. UZEIko LANGILEAK: «UZEI informa y responde (III). UZEIren hiztegiak zer balio dute?»: *Egin*.
82. 82-02-21. KINTANA, X.: «Euskararen aholku-batzordea dela eta»: *Egin*.

83. 82-02-23. UZEIko LANGILEAK: «UZEI informa y responde (IV). UZEIren giza-kapitala»: *Egin*.
84. 82-02-23. UZEIko LANGILEAK: «UZEI informa y responde (IV). UZEIren giza-kapitala»: *Deia*.
85. 82-02-23. GORDAILU: «Hiztegi gintzarako gauza harrigarriak»: *Argia*.
86. 82-02-23. AZURMENDI, J.: «Ulises: kraziaio ala normalizazioa (edo UZEI eta James Joyce)»: *Argia-924*.
87. 82-02-23. SARRIEGI, A.: «Mitxelenak daukazki Gasteizen»: *Argia-924*.
88. 82-02-23. LANDA, J.: «EAJ-ren alderdikeria dela eta 'Euskal kulturaren haustura berria»: *Argia-924*.
89. 82-02-24. UZEIko LANGILEAK: «UZEI informa y responde (eta V). UZEI ala euskararen normalizazioa da arazoa?»: *Deia*.
90. 82-02-24. UZEIko LANGILEAK: «UZEI informa y responde (eta V). UZEI ala euskararen normalizazioa da arazoa?»: *Egin*.
91. 82-02-25. AZURTZA, J. J.: «Elkarri mokoka»: *Diario Vasco*.
92. 82-02-28. ONDARROAKO IRAKASLE EUSKALDUNOK: «Ondarroako Institutua UZEIren alde»: *Egin*.
93. 82-02 X. X.: «Koldo Mitxelena...»: *Habe-3*.
94. 82-02 ARENDUI: «Joanesen arizpean. Euskal Kultura»: *Aranzazu*.
95. 82-02 X. X.: *Ob Euzkadi-14*.
96. 82-02-25. M. P.: «Irakurleak mintzo: UZEIren alde eskari bat»: *Herria-1.640*.
97. 82-02-28. ASTEKARI: «Mitxelena eta UZEI. Borrokatxo polita». *Goiz-Argi-530*.
98. 82-03-03. APALATEGI, J.: «Orain bizitzarenean... edo UZEI eta gaineratikoen faboretan»: *Egin*.
99. 82-03-03. LANDA, J.: «Enbido bietara eta hordago paretara (erantzunen erantzunez): *Ob! Euzkadi*. 15.
100. 82-03-05. X. X.: (Hojeando la prensa): *Punto y Hora*. 256.
101. 82-03-10. LAURO IKASTOLA: «UZEIrekin hauek ere»: *Egin*.
102. 82-03-11. DAVANT, J. L.: «Gaur euskaraz»: *Egin*.
103. 82-03-12. LOPEZ ADAN, E. (Beltza): «Euskararen aurkako eraso: iraultza aurkako ofentsiba»: *Egin*.
104. 82-03-13. ZENARRUZA TALDEA: «Eztabaida baten atzekalde politikoa (I). Mitxelena-UZEI, arazo politiko bat»: *Egin*.
105. 82-03-14. ZENARRUZA TALDEA: «Eztabaida baten atzekalde politikoa (II). EAJ-ren gobernuaren taktika pausoz pauso»: *Egin*.

106. 82-03-17. ZENARRUZA TALDEA: «Eztabaida baten atzekalde politikoa (III). 'EAJ (sic) dauka hitza'»: *Egin*.
107. 82-03-19. EUSKAL UDALETAKO 34 ITZULTZAILEK: «UZEI eta udal itzultzaileak»: *Egin*.
108. 82-03-20. ZENARRUZA TALDEA: «Likidazionismoaren bidetik garamatzate (I)»: *Egin*.
109. 82-03-21. ZENARRUZA TALDEA: «Elebitasunaren mitoa»: *Egin*.
110. 82-03-23. TORREALDAI, J. M.: «Artikulu bat agindu dit Violantek». *Argia-927*.
111. 82-03-24. ZENARRUZA TALDEA: «Euskal gobernuaren drama eta lotsa (eta 3)»: *Egin*.
112. 82-03. HEMEROTEKA: «UZEIren lana positibotzat»: *Habe-4*.
113. 82-03-25. LANDA, J.: «'Ob! Euzkadi'koen kontraesanak»: *Egin*.
114. 82-03-28. TXILLARDEGI: «Carta abierta al p.f.r. Scheifler»: *Egin*.
115. 82-03-29. JAKIN (Gure eritziz): «Euskara, hizkuntza nazionala: normalizazioaren behar larriaz»: *Jakin-22*.
116. 82-03-29. PAGOLA, M.: «Ezin da gehiago zain egon...!»: *Jakin-22*.
117. 82-03-29. ALTZIBAR, J.: «Euskararen Aholku-Batzordea dela eta»: *Jakin-22*.
118. 82-04 X. X.: «En torno a una polémica: Koldo Mitxelena, UZEI, los otros y el euskera»: 'La Boca del lobo': *Muga-21*.

Idazkaritza

Argiakoei ere, hitza

Gure astekariaren projektua zertan den

Argia

JAKIN aldizkariko aurreko alean, poliki osatutako dossierra irakurtzeko aukera izan genuen, «Komunikabideak Euskal Herrian» gaia zela eta. Enfokea ezezik, gaiaren tratamendua ere egokia iruditu zaigu, eta bertan oso aspektu interesgarriak aurkitu ditugu, interesgarriak eta baliagarriak.

Ildo beretik, geure aldetik ere apurtxoa eskaini genezakeela pentsatu dugu ostera, «Euskara eta prentsa» izeneko mahai-inguruan eskaini ez zitzaigun aukera alegia. Izan ere, orrialde horietan oso gauza eztabaidagarriak esaten bait dira, eta guri dagozkigun gaietan behintzat zer esaterik badugula pentsatzen dugu.

I. — GEZURRAK ARGITUZ

Planteamendu faltsuak alde batetara utzita, badira gezur pare bat edo, gure ustez argitasun piska bat merezi dutenak. Amatiñok uste duenez, *Argia*-k ez luke subentziorik mereziko, diru horren erantzunkizunik ez omen duelako ematen, hau da, subentzioak ezeren truke ematen direla itxuraz. Eta hori frogatzeko zer erabiltzen du, eta iaz ateratako aleen eskasia. Eta galdetzen du: aurten hiru milioi eman zaizkio, eta zer eskainiko digute bueltan?

Barka, lagun, baina urte honetarako eman zaigun subentzioari, ezin zaio iazko datuekin erantzunkizunik eskatu. Eta, aitzitik, aurtengo datuei begiratzen badiegu, subentzioak jaso bezain laster hasi ginen kalera ateratzen, eta lau hilabetetan hamalau ale argitaratu ditugu. Beraz, aste batetan

bakarrik egin dugu kale. Non dago, orduan, gure erantzunkizunik eza? Gure konpromezua bete dugu, garbi dago.

Bestalde zehaztu beharko litzateke subentzio-kopuruaren auzia, aho bertik esaten bait da hiru milioi jaso ditugula kondiziorik gabe. Hori ez da egia. Kondiziorik gabe milioi bakarra jaso dugu, Jaurilaritzatik hartutakoa. Eeste bi milioiak hileroko emaitzetan eta kondizio gogorrekin zaizkigu emanak. Orduan, lau milioi behar genituela esan ondoren, hiru besterik ez zaizkigu ematen, eta horietako bi kondizio gogorrekin. Eta halere, guk eskatzen genuen minimo hura urrutitik ere bete gabe kalera ateratzen ari gara, eta gure asteroko konpromezua betetzen. Gainera, aurten astero ateratzen bagara ere, nork ziurta dezake datorren urtean subentziorik jasoko dugula?

Hitz pare bat ere beste gezur batetaz. Amatiñok dio kaputxinoek zor guztiak pagatu eta zerotik hasi ginela *Argia*-rekin. Hori ez da egia, zorretako lau milioi horiek kaputxinoen garaietatik datozkigu, duela urte dextetik. Gainera lau milioiak uzteaz gain, 600.000 pezeta ere eskatu zizkiguten kaputxinoek.

Azkenik, bukatuko dugu aipatuz Amatiñok ere aipatzen dituen 10.000 pezeta fantasma haien auzia. 10.000 pezeta haiek eskatu zirenean, *Zeruko Argia*-tik kanpoko jendeak bultzatuta izan zen, eta desde luego horien arrastorik ez zen aldizkarian jaso. Areago, *Zeruko Argia* garai batetan erosiko lukeen projektu paralelo bat montatzeko izan zen. Horien erantzunkizuna, beraz, dirua eskatu zizuutenei eska, ez beste inori.

Hala eta guztiz ere, ziur gaude asunto hauek ez zaizkiola jendeari gehiegi interesatuko, eta geure aldetik, gehien axola zaigun gaiari helduko diogu, *Argia* astekariarekin dugun egitasmoari.

II. — EUSKAL ASTEKARI BATEN PROJEKTUA

Planteamendu faltsuak zuzenduz

Geuk zer nolako projektua defendatzen dugun ikustera pasa baino lehen, aipaturiko mahai-inguruan gure ustez irten ziren planteamendu oker batzu zuzenduz hasiko gara, guk zergatik jotzen ditugun halakotzat ikusiz.

Hasteko, badirudi zenbait mementutan sujeritu nahi dela euskara hutsez izateak, besterik gabe, ez duela komunikabide bat justifikatzen. Eta guk haseratik garbi utzi nahi dugu baietz, gure projektuan hori dugula abiapuntu, euskara hutsezkoa izatea, eta horrek Euskal Herri euskaldun bat lortzeko izan dezakeen pisua eta inportantzia. Horretaz jabeturik ez bageunde, ez genituzke sartuko kobratu gabeko hainbeste ordu, eta era berean ekonomikoki hainbeste laguntzen gaituzten irakurle militanteek ere ez ligukete lagunduko. Gu beste lanetara dedikatuko ginatke, eta laguntzaile horiek beste medioetara zuzenduko lukete beren dirua. Hori aurretik.

Bestalde, eta aurrekoaren ondorioz, garbiegi esaten da mahai-inguru horretan euskara erabiltzeak ez diola ematen komunikabide bati subentziorik jasotzeko eskubiderik. Hau da, beste zerbait eskatu behar zaiola euskal aldizkari bati, euskara ezetik. Eta zer izango ote da beste zerbait hori, eta komertzialki errentable izatea. Ez kalitate onekoa izatea, errentablea izatea baizik. Bapo esaten zaigu bertan: «nik lau milioi galtzen duen enpresa bat baldin badut, ez Administrazioak eta ez beste inork emango dit dirurik ezeren truke. Euskara erabiltzen dela eta, zergatik bai?» Baina, jauna, subentzio bat jasotzeko defizitrik gabeko enpresa dela frogatu behar bada, zertarako behar dugu subentzioa, zuloa tapatzeko ez bada?

Geu, ordea, beste honetaz jabeturik gaude: euskara ezin daiteke inola ere merkatuaren legeen menpe utz, bertan hilgo bait litzateke. Hala frogatzen bait da, konstatatzerakoan, euskara hutsezko irratsaiorik ez dela egin presupostuaren % 100 subentzio gisa jasotzen hasi ez den arte. Horretaz jabeturik gaude gu, eta era berean azken asteetan 10.000na pezetako prestamoa egin diguten ehun ta piko lagunak ere. Benetan lotsagarriena iruditzen zaiguna hauxe da: *Argia*-ko langile bakoitzak soldata ez kobratzeaz, urteko milioi erdia subentzio gisa ematea, ehun eta piko irakurleren artean milioia pasata biltzea, eta aitzitik Jaurlaritzak milioi bat besterik ez ematea. Horixe da gure gobernuaren lotsa, eta etxe barneko trajedia.

Azkenik, beste planteamendu faltsu bati ekingo diogu. Badirudi euskal prentsaren gaitzik okerreka kazetarien eskasia dela, eta irratian hala izan badaiteke ere, prentsa idatzian oso bestela da. Prentsa idatzian, ahozkoan jokatzeko ez duen elementu inportante bat bai bait dago: itzulpena. Irratian mikrofonoaren aurrean hitzegiten jakin behar da, eta hori erdaraz ezin daiteke egin, baina astekari batetan, berriz, kazetaritza-lan osoa erdaraz egin daiteke, gainerako lan gutzia itzulpena besterik ez izaki. Honekin esan nahi bait da *Interviu* nahiz *Cambio* 16 batetako ekipo osoa kontratatzeko dirurik bagenu, euskal pareko bat ateratzeko beharrezko gauza bakarra itzulpen on bat litzatekeela. Kazetari erdaldun onekin eta itzultzaile on batzurekin egin daitekeela kazetaritza euskaraz alegia. Garbi utzi nahi dugu, halere, hori ez dela guk aukeratutako formula, baina garbi utzi nahi dugu ere euskal kazetaritzaren ahulezia ez dela kazetari-eskasiaren ondorioa, dirurik ezaren ondorioa baizik.

Bienbitartean, Eusko Jaurlaritzatik esaten zaigu «dirurik egon bada-goela, baina ez dago non inbertitzerik». Gero eta lotsa gutxiago.

Zein aldizkari lortu nahi dugun ARGIArekin

Ekin diezaiozun, oraingoan, gaiaren muinari: zein projekturen atzetik gabilta gure astekaria gauzatzekoan? Maiz esaten bait da mahai-inguru horretan, gaur egunean euskal astekari batek, egiten duena kuestionatu behar lukeela, hizkuntzaren aldetik nahiz gaien aldetik. Ez dagoela astekari-projektu zehatzik alegia.

Halere, guk esan nahi dugu mahai-inguru horretan partaide direnengan ere iluntasun bera atzematzen dugula guk geuk. Guztiak gaitza aipatuz, baina sendabelarra aurkitu gabe.

Normala den bezala, geure aldetik apur bat desarroilaturik daukagu puntu hori dena dela, eta agian intuizio batzu besterik ez badira ere, nahitaezkoa deritzekuegitasmo hori jakin erazteari eta kanpoko kritika eta kontsiluei bidea irekita uzteari.

Edozein enpresatako abiapuntua: ekonomia

Dudarik ez dago dirua dela gainerako proiektu guztiak kondizionatzen dituen elementua. Dena dela, askotxo hitzegin dugu afera horretaz honetz gero: euskal aldizkari bat ezin dela merkatuaren legeen aginduetara utzi, euskal aldizkari bat ez dela norbere lukrorako enpresa bat, euskararen aldeko kultur zerbitzua betetzen duenez babes ofizialaren beharra, eta abar.

Baina eman dezagun dirua badugula aski astekari bat aurrera ateratzeko (hau izan daiteke *Argia*-ren kasua), ez superraldizkari bat planteatzeko moduan, baizik eta orain arteko medio teknikoeg eginikoa. Nola betekoe genuke? Zer nolako gaiak aukeratu? Nolako tratamendua eman gai horiei? Zein moztatako euskara erabili? Ikus dezagun bada.

Aukerak egiteko erreferentzia: irakurlegoa

Martxan dagoen aldizkari batek behar lukeen lehenengo gauza litzateke bere irakurlegoa nolakoa den jakitea. Eta hortxe aurkitzen gara *Argia*-ren beste zailtasun batekin, ez bait daukagu eskuetan datu zehatzik, era zientifiko batez gure irakurlegoa zein den jakiteko.

Halere, bada beste gauza bat egin dezakeguna: Euskadiko irakurlegoaren ezaugarri orokorrak berrikusi, horiek ere guri dagozkigu eta.

Haseratik, bistan da Euskadiko biztanleak —euskaldun nahiz erdaldun— beste tokitakoak baino askoz irakurleagoak direla. Gauza jakina da, hementxe ematen dela estatuko irakurketa-koefizienterik altuena, eta hori frogatzeko ikusi besterik ez dago herri honetan nola irauan duten beste tokitan atipikoak liratekeen egunkari, astekari, eta antzekoek.

Irakurlego euskaldunari mugatuz, militantzi zentzua aipatu beharra dago. Irakurle euskaldunak militantziaz hartzen ditu oraindik ere euskararen inguruko mobida guztiak. Datu honek esplikatzan du, aurrekoarekin batera, nola den posible *Argia*-ren tirada 6.500 alekoa izatea. Areago, gure artean nagusi den euskal analfabetismoa kontutan hartzen badugu. Kontrako arrazoï hori hor egonda ere, *Argia*-k Espainiako edozein astekarik baino gehiago saltzen du irakurlego potentzialarekiko portzentaiari dago-kionez. Datu bat adibide gisa: *Interviu*-k irakurlego erdaldunaren % 1,6 kubritzen badu, *Argia*-k irakurlego euskaldunaren % 10 kubritzen du. Garbi dago, beraz, bi ezaugarri horiek direla medio, *Argia*-ren irakurle-kopuruak aspaldi jo duela merkatu-legeek ipinitako goia.

Kontutan hartu beharrekoa da baita, gure herriko irakurleagoa beste herrietakoa baino askoz kritikagoa dela ere. Arrazoiak zehaztea zaila bada ere, errealitate hori hor dago, eta inportantea da hori jakitea, euskal irakurle batek komunikabide bati egingo dion kritika beste erdal irakurle batek egin dezakeena baino gogorragoa izango da eta.

Hori guztia present izanik, pasurik zailena geratzen zaigu: euskal irakurleago orokorra ezetik, *Argia*-ren irakurleagoa nolakoa den zehaztea. Eta, aurrerago esan legez, hor hasten dira komeriak, ez bait dago konkretuki horixe nolakoa den jakiterik. Dena dela, guk irakurleekin izandako kontaktatu zuzenen bidez alde batetik, eta duela urte pare bat eginiko inkestaren bidez bestaldekik, oinarrizko intuizio batzu atera ditzakegu ondorio gisa.

Aldez aurretik esan genezake gure irakurle medioa gaztea dela batik bat, goi-mailako ikasketak egin dituen, eta kultur maila dexente daukana. Dena dela, irakurle medio horretaz gain, badira beste zenbait irakurle-mota, hala nola, militantziaz besterik erosten ez duen irakurlea, euskalduntzeko azken pausuak ematen ari direnak, goi-mailako ikasketak egingabeak edota kultur maila txikiko jende xehea, eta alfabetatzeko lehen urratsetan ari direnak.

Gure asmoa, daukagun irakurleagoari eusteaz gain, beste mota guztietara ere hedatzea litzateke, ahalik eta euskaldun gehienengana heltzea. Horrexegatik, gurea ez dugu bihurtu nahi gogoeta-aldizkaria edota «kazetaritza horizko» aldizkaria. Gure ustez, horrek irakurleagoa mugatuko bait luke.

Irakurleagoaren nahiak eta beharrak

Puntu honetara helduta, aipatu beharra dago gurea bezalako aldizkari batek daukan beste berezgarria. Jakina da beste herrietako aldizkari bakoitzak bere linea berezia daukala, eta hori da *Interviu*, *Triunfo* eta *Cambio 16* beren artean bereziten dituen ezaugarria. Gurean, aldiz, ezin dugu linea konkreturik aukeratu, ikuspegi-pluraltasun horretarako espaziorik ez dagoelako alegia. Beraz, batean eta bestean osagarri diren elementuak hartuz, ahalik eta biztanle-sektorerik zabalenetara iritsiko den produktua egin.

Horrek galeratzen digu *Triunfo* bezalako aldizkari bat egitea, jende arruntak ez bait luke agoantatuko, ezta *Interviu*-ren linea sensazionalista aplikatu ere gainerantzekoen kritikak jaso gabe. Aukera desberdinen artean, beste hizkuntzetan beharrezko gertatzen ez den beste erdibide bat asmatu beharra dago, eta hori da *Argia*-k gainditu behar duen beste kontrako apustu bat.

Gauzak horrela, batzuri *Argia*-ko euskara zailegia iruditzen zaien birtartean, besteei pobreegia iruditzen; batzuri gaiak kulturalistegiak eta besteei, berriz, txabakanoak; etab., etab.

Ondorio gisako bidea

Gauzak horrela ikusita, nahitaz aukera bat hartu beharra planteatu

genion geure buruari, eta honako ideia hau hartu genuen oinarri: ohizko erdal medioek eskaintzen dutenaz gain, beste zer edo zer eskaintzea. Eta beste «zer edo zer» hori bi alderditatik ikusita, alde batetik egunkariak beren izaeragatik bete ezin dituzten eta gertu sentitzen ditugun arloak ukitu (euskal kultura, ebidenteena), eta bestaldetik egunkariak eta gainerantzekoek erabilitako gaiak beste ikuspegi baten bidez tratatu (baina beste ikuspegi horrek ez du derrigorrez gogoeta edo erreflexioa izan behar).

Oinarri horren gainean eraiki nahi dugu gure etxea, ondorengo puntuetan ere zutabe ditugula: informagai bitxiak, elementu aringarriak, azterketarako elementuak, debaterako plataforma eta denbora pasatzeko aukerak. Hori guztia hiru sailetan: gizartea, kultura eta denborapasak.

Elementu bakoitzari bere pisua emanez eta inola ere elkarren nahasian. Gure helburu finala hauxe izanik: gure irakurleko posible horretako sektore bakoitzak beti ere orrialderen bat interesgarri aurki dezala.

Aplikapen berdina izango luke euskara-moetaren aukeraketak, egokitutako maila guztiak argitaratzen saiatuz.

Bukatzeko, ideologiaren auzia

Eta gure ihardute honi bukaera emateko, hainbeste aipatzen den ideologia eta zabaltasunaren auziari helduko diogu. Guk, hasteko, esango dugu gure planteamendu teorikoak zeintzu diren. Abiapuntu bezala, aukera abertzalea garbi dago gurean. Horretaz gain, jokabide aurrerakoia asumitu nahi izan dugu, inongo alderdi politikotara mugatu gabe eta bertan ezkerretako jendea nahiz EAJko zenbait sektore ere tartean sar daitezkeela. Gure aukera teorikoa hori besterik ez da, nahiz eta praktikan oreka handirik ez egon zenbaitetan. Dena dela, uste dugu, azken aleetako esperientzian aski frogatu dugula sektore guzti horietara zabalik gaudela. Bide horretatik sakontzea da gure asmoa.

Norbaitek esango digu ea zertan oinarritzen dugun jokabide aurrerakoiaren aukera hori, eta erantzuna berehala dator: H-ren kasuan hautapen bat egitea nahitaezkoa iruditu zitzaigun bezalaxe, euskararen normalkuntzarako eta gainerako gai guztietarako ere hautapen progresista baten beharra derrigorrezkotzat jotzen dugulako.

Eta besterik gabe, itxi egingo dugu barraka, aspaldi pasata bait daukagu orrialdeen topea. Besterik gabe.

Joseba Sarrionaindiaren
Izuen gordelekuetan barrena

Jon Kortazar

*Izuen gordelekuetan barrena*¹ liburuari buruz hitz egitea ez da txantxetako. Norbaitek bidaia horretan barna abiatu nahi izanez gero, kontuan izan beharko du idazlearen mehatxua liburuaren hitzaurrean. «Esan nahi dut poema liburu hau ez dela ez dena, eta ez duela behar zutoihalik, ez hilobi arranditsurik, heriotz naturalez dagokion hilobiaz aparte»². Eta jakingo du edozein irakurle animotsuk hitzok berarentzat direla, eta liburu ez dela osoki berarentzat. «Neuri eta adiskideei bakarrik dagokigun lan katea» direla, alegia, liburuaren hartzaileak. Baina, berea ez duen sekretu bat azaltzen ari dela sentituko balu ere, badaki jakin ez duela berak errua, ez duela berak ireki gordairu zaharra, zeinetan utzi nahi bait zuen betiko idazleak liburu. Sariketa batera bidaltzeko, Josebak berak ireki zuelakoa jakingo du, ostera. Eta hitzaurrea amaitzean, «iadanik ez da nirea»³ irakurriaz batera, idazlearen hasierako mehatxuak zentzurik ez duela sentituz, liburu edozeinena, irakurtzen duten guztiena dela (betea ere bai, hortakoz) asmatuz, Josebak hitzaurrean kontatzen duen ipuina ez dela egia osoa konturatuko da. Eta «bandidaia» «berbidaia» bihurtuz ausartzen naiz eritzi honi, komentario honi aurrera eragiten.

1. — Hitzaurrean barna

Egia esan, ez da erraza hau. Liburuak markatu ditu jadanik, zeintzuk diren liburuaren ezaugarri nagusi eta mugarik zehatze-

nak. Hitzaurreak oso argiak dira. Eta plurala erabiltzen dut, hitzaurreak bi direlako: argitalpenari prosaz egindakoa, eta liburuari bertsoz jarritako «Bitakora kaiera».

Baina nik, (ze erremedio, bestela hutsean ariko nintzateke) ez dut uste hiru ezaugarriren bitartez liburu osoa azaldua dagoenik. Estilo didaktikoegi bat jarraituz, gogora ditzagun hirurok:

- 1) Erreferentzia literarioz osaturiko poema bilduma.
- 2) Bizimodu arruntetako egoeretan oinarrituak.
- 3) «Pott banda»ren influentzia⁴.

Guzti hori beste hitz hauetan labur dezakegu: poesia autonomo ebokatzaile eta fantastikoa egiten duela. Ez da erraza zer den esatea, baina Paul Meabek (Manu Ertzilak) honela azaltzen du hitz guttitan: «La diferencia entre ambas poesías (sentimental y literaria) es que en la sentimental se plasma la vida en la escritura, mientras que en la literaria se trata de emplear la escritura como forma de vida»⁵. (Bizitzeko era legez, tresna legez, literatura egitea beharrian neketsu baten antzo, ez profesio legez). Edo Friederich-ek dioenez, XX. mendeko lirikaz mintzo: «renuncia a la inteligibilidad limitada, substituyéndola por una sugestión plurivalente y afirma su voluntad de convertir el poema en algo independiente y autónomo, cuyos contenidos se mantienen sólo gracias al lenguaje, a lo ilimitado de su fantasía o a su irreal juego de ensueños»⁶.

Hauxe da autonomia hitzaren zentzurik sakonena. Poemaren mugatasun eta borobiltasuna barna zabaltzen gara geure ebokazioetara. Eta Sarrionaindiaren poesia berez autonomoa da. Errealitatearen aipamenak egin arren ere, ez du autonomia ezabatzen. Bere etxeondoko itsuaren erreferentziek, kasurako, ez dute hau deuseztatzen. Erreferentzia extraliterarioa da, baina erreferentzia ez da poeman agertuko. Extrapoematikoa da, era batez irakurtzeko idazleak damaigun azalpena. Baina poemak ez du azalpenik ematen. Erreferentziaren extraliterariotasunak poemaren autonomiaren alde jokatzen du.

«Pott banda»ri egindako aipamena berebizikoa da. «Pott banda»ren bizitza, bizitza literarioa zen, harrigarria. Baina Josebak egiten duen aipamena aipamen hutsa da. Bandaren giltzarriak agertzen ez dituen. Baina, bandaren eragina argia bada liburu honetan, hain argi geratzen ez diren mogimendu bi aipatu nahi nituzke.

Orain gutti (1981-08-24) telebistan egindako elkarrizketa batean, Bernardo Atxagak hauxe esan zuen bandaren hasierako sei partehartzaileei buruz: poesiaz Eliot⁷ eta prosaz Marcel Schow gustatzen zitzaizkiela. Eta datu biak bandaren giltz moduan ematen zituen. Beraz, prosaz sinbolismoarekiko eta poesiaz musikaltasunarekiko joerak nabaritzen direla ulertu, irakurri beharko. Sinbolismoak eta Eliot-ek berriro garamatzate lehen esandakora: poesiaren autonomiara.

Baina horiexek izan baziren ere «Pott banda»ren zutabe literarioak, ez da ahaztu behar Josebak, horietatik at, beste irakurketa batzuk egin dituela⁸. Eta gai honetan argigarriak dira Alvarez (Museo de cera, 1976) hain hurbildik gogoratzen duen «berrogei IZEN SONETOA egiteko», eta liburua zehar beste olerkari batzuei egindako aipamenak (Pessoa eta Dylan Thomas). «Pott banda»ko idazleen artean duten influentziagatik, azpimarratu nahi nituzke, XIX-XX mendeetako idazle bidaiariak: Conrad, Poe, Melville. Eta Josebarengan eragin handia izan duen beste idazle bat ezin dugu ahaztu: Mirande, nori poema luze bat eskaintzen bait zaio liburuan.

Bigarren hitzaurrea, «Bitakora kaiera» (nire ustez, liburuan dauden poemetan ederrenetarikoa) ez da helburuaren eta nahien proposamena, gaiena eta kontzepzioarena baizik. Gaiena: bertan laberintoa eta oroimena eta etsipena (noraeza) direlako liburua gai nagusitzat hautatzen, gaurko literaturaren joerak jarraituz; eta kontzepzioarena, liburuan Europa zehar bidaia proposatzen zaigulako, sorterri, herri, hiri koordinaden artean mugituz (cfr. eskema).



Laberintoa, Hegoamerikako idazleen behin eta betiko irudia da: «Ulises»en oroimena izanik ere, gaur egun, Borges, Cortázar, García Márquez-ek etab.ek erabilia: noraezaren, ezjakintasunaren eta existentzialismoaren iruditzat har dezakegu.

Oroitzapenak, berriz, identifikazioaren eta nortasunaren azterna bezala funtzionatzen du. Oroitzapena bederen gorde behar

duela pentsatzen du: bere kondaira bait du, bere iragana, bizi duena, bere burua. Oroitzapenaren gai honek badu zerikusirik denboraren joan lotezinarekin eta Bergsonen teoriatzko kontzepzio filosofikoekin.

Kontzepzioarekin jarraituz, matizazio bat egin beharrean aurkitzen gara. *Sensu stricto*, kontzepzio bi agertzen bait dira bigarren hitzaurre poetiko honetan: bata, lanaren kontzepzio bezala, bidaia aipatuz, eta lehenago gogoratu ditugun London, Melville, Swift-en antzera, ontziz egingo den bidaia («Bitakora kaiera»). Berez, argi dago ez dagoela ontzi baten beharrik, abentura hitza ere ebokatzen bait dugu bitakorarekin.

Bestea sakonagoa da, eta badu zerikusirik idazkerarekin:
 «ez prophetaren antzera, eroaren antzera baizik;
 ez Jainkoentzat, marionetentzat baizik;
 marionetak marionetentzat bezala eskribatzen du».

(IGB, 12).

Esaldiaren garrantzia azpimarkatzekoa da. Hasteko, eroaren irudia aipatuz, Platonengandik datorren eta Graves-engana heletzen den kontzepzio batetan, inspirazioaren («goi-arnas» hitzak ez luke hemen balio, espreski ez delako «goi»rik baieztatzen) indarra onartzen da.

Marionetak marionetentzat idazten du. Ez du ezer erakutsi nahi (profeten antzera), ez du otoi egiten; bera bezala menperatuak, eta ez dakigun norbaitek mugituak garenontzat idazten du dindilizka gauzkaten sokak emozio dardar batekin mugitzeko.

Kontzepzio literarioaz hainbat gauza esan dugu jadanik, Joseba XX. mendeko korrante literarioetan txertatuz, eta, bide batez, haren gaurkotasuna eta aislamente-falta demostratuz. Pessoa-ren aipamen batekin amaitu nahi nuke: ez pedante edo jakitun agertu nahi dudalako neure burua; liburu hau idaztean egon den sentipenaren ispilu bezala ikusten dudalako baizik: «Cada uno de nosotros quedó entregado a sí mismo en la desolación de sentirse vivir. Un barco nos parece el objeto cuyo fin es navegar, pero su fin no es navegar: es llegar a un puerto. Nosotros nos encontrábamos navegando sin la idea de qué puerto nos debía acoger. Reproducíamos en versión dolorosa la fórmula aventurera de los argonautas: navegar es preciso, vivir no lo es»⁹. Argonautak bezala, kaiera idazten duen gizonak, Josebak.

II. — Liburuan barna

Izuen gordeleketan barrena liburuaren barna abiatuak hainbat gauza gustagarri agertzen dela esan beharko. Bata, dudarik gabe, obraren barnean dagoen lan nekoso, barnearen eragitea. Bestea, estilo baten agerpena.

Lanaren eragiteari buruz, prozesu horretan sufritutako eta landutakoari buruz, García Lorca-ren hitz batzuk ekarri nahi nituzke: «Si es verdad que soy poeta por la gracia de Dios — del diablo—, lo soy también gracias a la técnica y al esfuerzo, y porque me doy perfecta cuenta de qué es un poema». Eta Josebaren poesia horrelakoa dela esango nuke. «Artisau gisa» egina, *Etiopia*-ren hasieran irakurtzen genuenez, forma guztiak pentsaturik eta landurik.

Baina obra egiterakoan, lanak bere pisua izan badu, ez du guttiagokoa izan, lanaren kontzepzio musikalarik emandakoak. «Poema bakoitzak badu autonomia» esaten digu Josebak hitzazurrean, «izan ere bilduma ez bait da homogenea, ez lengoaiaren, ez gaiaren ez tankeraren aldetik» (6. or.). Tankerarena, argi baino argiago dago. Eliot-en oihartzun bat ote tankera-aldaketa hori? Berririo Friederich-ek dioena zitatu beharko dut. Esaldiok Eliot-i buruzkoak dira, baina Josebaren liburuari ere aplikagarriak: «Solo en un punto concuerdan todas [las críticas] y es que esta obra llena de incongruencias resulta fascinadora por su musicalidad... El lenguaje trascurre, siempre de modo imprevisto, por las más diversas modulaciones: relato escueto, nostalgia, contemplación, melodía de flauta, de vez en cuando patetismo y luego otra vez ironía, sarcasmo, estilo coloquial descuidado»³⁰.

Tonuen aldaketa bilatu izanak, teknikak ugaritzera darama liburua. Aberatsa da teknika-arlo honetan: badira poema narritiboak, badira sentimentalak, nostalgia bilatzen dutenak, ideien elkarkidetasunean oinarrituak (20 or.), akumulazioz jotzen dutenak, hitz-jokoan oinarrituak edo koplak zaharren teknika erabiltzen dutenak. Teknikaren aberastasun honek frogatzen du, nahitaez, liburua idazteko erabili den pausa eta kontua. Aberatsa eta ona ez dira gauza bera, ordea.

Tonuen aldaketa nabaria dela esan dugu, eta onuragarritzat jo. Baina hemen sortzen da liburu honen lehen hutsa. Tonu-aldaketaren eskakizunari zor zaizkion zenbait (ez dira gutti batzuk) poemaren ahulezia, ezereza. Neri behintzat ez zaizkit gus-

tatzen «hasi eta amaitu» eratako poemak (40., 48. or., adibidez), gero astiroago aztertuko ditugun epigramak...

Baietz uste dudan arren, ez dakit horrelako poemek ez ote duten liburuaren kalitatea jaisten. Batzutan, ideia baten espresio grafikoek (ideogramak ez ditudala gogoko aspaldi esan nuen) ez dute deus aportatzen, musikalitatearen tonu-aldaketa ez bada. «Olerkia» eta «Izpilua» (28, 29. or.) dira diodanaren adibiderik argienak.

Bigarrenez, estimagarria da liburuan Josebaren idaztanka. Hau dela eta, hizkeratik hasi behar dugula uste dut. Hemen badago, nik uste, kontzientzia poetiko baten adierazlea den aukeraketa, badago euskal tradizio klasikoarekin (lapurtera, behe-nafarrera) lotu nahia, eta, azkenik, Miranderen hizkuntza poetikoaren ausnarte eta sakontzea.

Ni ez naiz gauza, Josebak hizkuntza poetiko berria egiten duela esateko. Nik neuk ez dut uste berria denik, eta esan dut erroak zeintzuk diren. Baina esan beharra dago, oso hizkera poetiko interesgarria dela. Lehendabizi, matizatua delako; bigarren, fonetikaren musikaltasuna lortzearren, aukeraketa zehatza egin delako. Orohar, hiru ezaugarri eman didate atentzioa²¹:

1) *Hiztegia*: Hiztegiari, eta batez ere aukeraketan, fin eta leuntasunera jo da. Baina hiztegiaren arlo honetan badira alderdi bi zeharo desberdinak. Hiztegi zuzenarekin lotuko nuke bata: badira liburuan hainbat izen (sustantibo) zehatz, poemaren nolabaiteko argitasuna markatzen dutenak. Arlo semantikoa, aipagarriak ditugu izadiaren mailako arbola eta txorien izenak. Berriro aipatu nahi ditut fonematikaz ozenak diren izakien izenak, hizkuntza poetiko horren zutabe direnak: karnaba, behi mantsok, kalatxoria, maluta, txakur deslaiak.

Mundu poetikoa eraikitzen duten izenok hainbat eta hainbat dira, batera ñimiño eta handi. Alde honetatik, badirudi euskalkien hiztegi ahaztu eta partikular baten berbiztuera dugula begien aurrean. Partikularra da, hain zuzen fonetikak agintzen duelako.

Baina fintasan horren bilaketan, bada zenbait izen topiko. «Bibolin» hitz jadanik gastatua; «Harpa loak hartua», nolabaiteko ezjakintasuna edo ezina edo dekadentzia azaltzeko.

2) *Matizazioa*. Oso poesia fina dugula esan dugu. Matizatua ere. Alde bakoitzari berea zor diola. Bigarren ezaugarri hau nabariagoa dugu jostaketa eta adierazi mailan. Badira hainbat

poema labur, egitura nahiko berdintsuarekin. Hona egitura hori: Esaldi nagusi bat dago, eta jarraian hasierako esaldi horren csanahia matizatzen duen bigarren bat. Horretarako loturak (edo; baina) oinarritzko elementu bihurtzen zaizkigu (ik., adib., 18, 25, 65. or.).

3) *Esaldi baten errepikapena*. Badu honek matizazioarekin zerikusirik, baina hala ere, erretorikaren influentzia markatu nahi dut. Errepikapenak nahiko erritmo lasaia ematen dio olerkiari. Esan nahi dudana, irudi baten bitartez adieraz dezaket: kostaldearen kontra jotzen duten olatuen antzekoak dira; lasaitasuna sortzen dute esaldiok. Hala eta guztiz ere, ez dira monotonian jausten. Kolpe bakoitzak, errepikapen bakoitzak, gauza berriren bat dakarkigu.

Baina badira liburu honetan harritzen nauten hainbat detaile.

Bata *Etiopia* liburuarekin duen zerikusia. Idazle biok lagunak izanik, prozesu literario antzekoetan ibilirik, kontzepzio poetiko berdintsuetan jausten dira. Baina, paralelismo harrigarriegia da: bidaiarena, zirkuluarena... *Etiopia* helduagoa iruditzen zait, zorrotzagoa, kontzesio guttiagokoa. Bada desberdintasun bat (hobe, bi) zerbait azaltzeko. Eta biek dute zerikusirik denborarekin. Esan zaigunez, *Etiopia* egiten urte bi eman zituen Bernardok. *Izuen gordelekuetan barrena* egiten, hil bi Josebak. *Izuen gordelekuetan barrena*, Josebaren lehen liburua da; ez, oster, *Etiopia* Bernardorena.

Eta *Etiopia*-ren kontzepzioa barrokoagoa ikusten dudanean (hau da, kontrasteen biolentziarekin lotuagoa), kontzepzio erromantikoen artean ikusiko nuke *Izuen gordelekuetan barrena*-rena: sentimentalismoarekin lotuagoa. Bernardo, Schow eta Eliot-en simbolismora hurreratzen den artean, Pound eta Yeats-enganago doa Joseba²².

Hau oso irudi pertsonala dena badakit. Baina horrela ikusiz gero, horrela azaldu behar. Esandakoa nolabait frogatzeko edo sendotzeko, ohar linguistiko bat datorkit eskuartera. Josebak ez du aditzaren bigarren pertsona askotan erabiltzen (Ulises-en kantetan eta Alexis Zorba-renean salbu). Eta bigarren pertsona da, izatez, drama eta tragediaren sena adierazteko egokiena.

Liburu honetan azaleanago geratu dira beste sentimendu batzuk: norberaren sentimenduak, iragana eta nostalgia. Baina, hauek adierazteko modua nolabait «idilikoa» da, irakurlearengan tentsiorik uzten ez duena.

Tentsio-falta argiago agertzen da narrazioetan: soldadu hila-
ren ama (103. or.) eta Ossian (99 or.) lirateke adibide bezala
erabilgarrienak. Irakurri ostean, pena kutsua sentituko dugu;
*baina ni neu ez naiz ama horren barnean sentitu, haren samin-
dura ez zait komunikatu.*

Horrela, liburua irakurtzean, hau izan dut sorpresarik han-
diena: izuak inondik ez agertzea. Aurkitu ditut liburuan barna
orotzapenak, sentipenak, ikusmen geldoak. Baina ez dut izurik
ikusi.

Norbaitek (Joseba eta bion lagun batek), liburu honetan Jo-
sebari bere adina igertzen zaiola esaten zuen. Gaztea edo aur-
kitzen zuen liburua. Ni ez nator harekin oso bat. Ezin ukatua
da liburuan joera erromantikoa. Baina joera hori estalia geratzen
da, ikuspegi erromantikoa arazo kontzeptual (ideien jokoak, ideien
progresioa) bihurtzen duenean: «Irlandar herriaren aldekoak»
(94. or.) aipa genezake joko hori jarraitu duten olerkien adi-
bidetzat.

Beste puntu harrigarria, Epigramak dira. Neri ez zaizkit gus-
tatzen, eta bihoa aurretik baieztapen hori. Dena dela, nahiko
argi dago haien helburua, Joseba irakurriz: «Bestalde, ikuskizun,
ideia eta egoera niminoak atzeman nahi izan dira epigrametan»
(16 B, 6), kontrapuntu bezala edo.

Zein ote da horien funtzioa? Hiru erantzun etorri zaizkit
gogora. Lehenbizikoak badu zerikusirik *Etiopia*-rekin. *Etiopia*
nahiko liburu serioa izanik, ironiarekin jokutzen du distantzia-
mendu bezala. Piolet-en ipuina eta liburuko azken ipuina ez dira
clerkariaren seriotasunari (liburuari) barre-zantzo bi baino. Ha-
sieran, epigramen deusezak, isladak, funtzio bera zuelakoan nen-
goen.

Bigarrenak, hainbat bider aipatu dugun Eliot-ekin du lotura:
«Con estos fragmentos he apuntalado mis ruinas. Debemos acep-
tarlas [las palabras] como adhesión al fragmentarismo, que es
la ley de la poesía de Eliot. El fragmentarismo determina su
modo de expresarse... Lo que se dice en un grupo de versos,
se destruye en el siguiente o se olvida»¹⁸.

Hirugarren interpretazio bat ere badago. Epigramak omenal-
diak dira: poema labur txinoei, grekoei, irlandesei, Pound-i eta
filme-fotogramai egindako omenaldiak.

Hori da, azken batean, epigramek bilatu dutena: gaurko gure

munduaren zihurtasunik eza fragmentarismoz, osotasun faltaz, inpresionismoz azaltzea.

Amaitzeko, eritzi orokor bat ematera behartua sentitzen naiz. Aspaldion euskaraz irakurri dudan lanik gustokoena izan da niretzat; olerki batzuk ikaragarri gustatu zaizkit. Ez dut nik Josebaren estiloa ukatuko. Estilo fina eta zuzena da, dekadente kutsuarekin aurkitzen badut ere. Anbiziotsua iruditu zait. Ez nuen hain lan anbiziotsurik irakurri aspaldiko urteetan. Hala eta guztiz ere, idazle-karrera baten hasierako obraren itxura du: sentimenduen joera nabarmenegi agertu zaio, eta, askotan, eza-guera eta influentzia literarioak hain aberatsak izanki, liburuen munduko hoztasuna ere bai¹⁴.

Baina ez naiz ni hemen, Joseba zein idazle ona den desku-britzen hasiko. Bere literatur aldiaren aro bat erre du («Edoze-lan ere badakit gauza bat: ez dudala aurrerantzean era honetako poesiarik eginen»). Etorkizunaren txanda da oraingoa.

J. K.

¹ SARRIONANDIA, Joseba: *Izuen gordelekuetan barrena*. CAM, Bilbo 1981. 149 or.

² *Op. cit.*, 7 or.

³ *Op. cit.*, 7 or.

⁴ *Op. cit.*, 6 or.

⁵ CABRERO: «Paul Meabe», in: *Hoja del Lunes de Bilbao*, (31-8-81) 14 or.

⁶ FRIEDERICH, Hugo: *Estructura de la lírica moderna*, Seix Barral, Barcelona 1974, 186 or.

⁷ *Oh! Euzkadi-n* (11.zb.), Eliot-en itzulpen bat argitaratu du Josebak.

⁸ Irakurketa horien berri zehatzak dira Z. A.ko literaturari buruzko artikuluak.

⁹ PESSOA, Fernando: «*Antología de Alvaro de Campos*, Ed. J. A. Llardent, Editora Nacional, Madrid 1978, 15 or.

¹⁰ FRIEDERICH, Hugo: *op. cit.*, 257-258 or.

¹¹ Bernardo Atxagari buruzko artikulua batetan Lolak Susa, aldizkarian (geroago artikulua *Xaguxarra-n* agertu zen) esaten zenez, estiloari buruzko oharrok ez dira aski, eta aberastu beharra dago.

¹² Eliot-en aipamen ugari egiten ditugu, baina *El entierro del muerto* («April is the cruellest month») zatiaren birsorketa da «Apirilari gorazare» (21 or.).

¹³ FRIEDERICH, Hugo: *op. cit.*, 258-259 or.

¹⁴ Badirudi puntu honetan Rilke-ren aholkuak jarraitu dituela. «Por eso, sálvese de los temas generales y vuélvase a los que le ofrece su propia vida cotidiana: describa sus melancolías y deseos, los pensamientos fugaces... describalo todo con sinceridad interior, tranquila, humilde y use para expresarlo, las cosas de su ambiente, las imágenes de sus sueños y los objetos de su recuerdo» (RILKE, R. M.: *Cartas a un joven poeta*, Alianza Ed., Madrid 1980, 25 or.

Euskal liburuak

ELHUYAR EKONOMI TALDEA: *Kalkulu bankario eta administratiboa.*

Aurrezki Kutxa Probintziala argitaldaria, Donostia. 1982, 220 or., 23,5 x 16,5 zm.

Argitaratu berri den liburu hau, benetan liburu didaktiko eta argigarria, irakaskuntzarako biziki egokia, eta, konkretuki, Lanbide Heziketara zuzendua.

Egilea, aurkezpenik behar ez duen Elhuyar. Talde honetako irakasle, ekonomilari eta administralarien lana da. Duela bi urte hasia da lantalde hau honelako gaiak lantzen eta liburu hauxe da hain zuzen bere lehen fruitua.

Hona liburuaren gaien zerrenda kapituluz kapitulu: 1) Dirua eta Moneta. 2) Aleazioak eta nahasteak. 3) Portzentaiak. 4) Interes bakuna. 5) Azken kapitulua. 6) Merkatal elkarteak. 7) Kreditua. 8) Deskontua. 9) Trukeak eta baljokidetasuna. 10) Efektu-negoziazioa. 11) Fondo-bidalke-ta. 12) Idazpenezko eragiketak. 13) Kontu korronteak. 14) Aurrezki-kontuak. 15) Kredituzko kontuak.

Euskararen normalizazio-bidean liburu aproposa hauxe, gure eguneroko bizitzan hainbesteko garrantzia eta pisua duen hainbat eta hainbat kontzeptu, eragiketa, tresna eta kalkulu azaltzen bait dira bertan.

aurkibidea

Zenbaki bonetan 3

Industri birmoldaketa

PEREZ CALLEJA, A.: Euskal krisia 6
 OLABERRI, X.: Industri krisia Euskadin 28
 BAKAIKOA, B.: Euskal ekonomiaren egoera eta irteera ahagarriak 46

Orain eta Hemen

Bat, bi, hiru, lau, bost-sei-zazpi... Real! — Aspaldiko Soljenitsyne berraurkitu dut. — RTVEko 180en gutuna. — Ongi etorri, *Tribuna Vasca*. — Torturaren kultura. — Karlista sozialista. — València: ortografiaren katramila politikoak. — Kazetari txartela adierazpen askatasunaren aurka. 65

Gaiak

AZURMENDI, J.: UZEI auzitan edo normalizazio bideak auzitan 77
 IDAZKARITZA: Mitxelena-UZEI arazoa: Bibliografia 121

Hainbat aburu

ARGIA: *Argiakoei* ere, hitza. Gure astekariaren projektua zertan den ... 127

Liburuak

KORTAZAR, J.: Joseba Sarrionaindiaren *Izuen gordeleketan barrena* ... 133
 X. X.: Euskal liburuak 142

© **JAKIN**

JAKINeko idazlanetaz
inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria.

JAKIN

aldizkari irekia da eta
ez dator nahitaez
idazleen eritziekin bat.

Zuzendaritza:

joan mari torrealdei
l. a. bilbao (kazetaria)

Idazkaritza eta administrazioa:

Ategorrieta hiribidea, 23 1. esk.
Donostia - 13. Tel. (943) 27 17 13

1982rako prezioak:

barruan kanpoan
ale arrunta 375 pta. 400 pta. (25 FF)
ale bikoitza 600 pta. 700 pta. (40 FF)
ale extra 700 pta. 800 pta. (45 FF)
harpidetza 1.200 pta. 1.300 pta. (80 FF)

JAKIN

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. - Donostia-13
Tel. (943) 271713

JAKIN

INDUSTRI BIRMOLDAKETA

**normalizazioa noizko?
UZEI auzitan?
ARGIARI ere hitza**

Apirila
Ekaina

23

1982